TOLOSAKO UDALA

2026IPLE0005

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.	Esta acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:	El código de identificación del archivo resultante es el siguiente:

e6100dadad1c8c6c4d91cf173716d0e87acd9fce1258d92e0cb55b27c96c078b

Lotura honetan dago:
Está en este enlace: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

2026.05.28

TOLOSAKO UDALBATZAK 2026KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA	**ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA CELEBRADO EL DÍA 28 DE MAYO DE 2026**
Tolosako Udaletxean, 2026ko maiatzaren hogeita zortzian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:	En el Ayuntamiento de Tolosa, siendo las 18:30 horas del día veintiocho de mayo de 2026, tras la primera convocatoria, se reúne la Corporación para celebrar Pleno Ordinario. Presidida por el alcalde-presidente, Angel Martinez de Rituerto Arregui, y con la asistencia de los siguientes miembros de la Corporación municipal, para tratar el orden del día:

Alkate-lehendakaria / Alcalde-presidente:
Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako Zinegotziak / Concejales asistentes:

Goiuri Eceiza Arandia (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Aitor Aguirresarobe Murgui (EH BILDU)
Cristina Pelaez Errazquin (EH BILDU)
Aitzol Luis Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Miren Yosune Sanz Vidal(EH BILDU)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV)
Maria Leire Zubeldia Rezola (EAJ-PNV)
Javier Francisco Zabala Sastre (EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegui Zubiria (EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez (EAJ-PNV)
Miren Biotxa Aguirre Ugalde(EAJ-PNV)

Jose Maria Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Udal idazkaria / Secretaria municipal:
Sara Berasategui Fuertes

Kontuhartzailea /Interventora:
Marta Alonso Sarasola

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Eguneko gai-zerrenda	Orden del día
A) AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA	**A) APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**
1. puntua. Onartzea, hala badagokio, 2026ko apirilaren 30ean egindako aurreko ohiko bilkuraren (04/2026) akta.	**Punto 1**. Aprobar, en su caso, el acta de la sesión anterior (04/2026), ordinaria, celebrada el día 30 de abril de 2026.
Espedientearen kodea: 2026IPLE0004	Código de expediente: 2026IPLE0004
B) EBAZPEN-ATALA	**B) PARTE RESOLUTIVA**
Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra.	**Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Organización.**
Ez du ezer aurkeztu	No presenta nada
Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra.	**Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo del Territorio.**
2. puntua. Onartzea, hala badagokio, I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikoak edo udal-onurakoak direla deklaratzea.	**Punto 2.** Aprobar, en su caso, la declaración de interés especial o de utilidad municipal de las instalaciones, construcciones y obras relacionadas en el Anexo I.
Espedientearen kodea: 2026BLUR0005.	Código de expediente: 2026BLUR0005.
Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra	**Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Ciudadanía**
3. puntua. Hasierako onespena ematea, hala badagokio, Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren Erregelamenduari buruzko irizpenari.	**Punto 3.** Aprobar inicialmente, en su caso, el dictamen sobre el Reglamento de la Escuela Municipal de Música Eduardo Mokoroa.
Espedientearen kodeak: 2025IORD0004	Código de expediente: 2025IORD0004

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

4. puntua. Onartzea, hala badagokio, Sexu indarkeriaren aurrean Udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko Protokoloa.

Espedientearen kodeak: 2026OPLO0002

Punto 4. Aprobar, en su caso, el Protocolo de actuación ante la violencia sexual en los servicios y edificios públicos municipales.

Código expediente: 2026OPLO0002

Proposamenak

Ez du ezer aurkeztu

Proposiciones

No presenta nada

C) INFORMAZIO ETA KONTROL ATALA

5. puntua. Alkateak eta zinegotzi delegatuek emandako dekretuen berri ematea.

6. puntua. Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea.

7. puntua. Galderak eta eskaerak.

C) PARTE DE INFORMACIÓN Y CONTROL

Punto 5. Dar cuenta de los decretos dictados por el alcalde y concejales/as delegados/as.

Punto 6. Dar cuenta de los Acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local.

Punto 7. Ruegos y Preguntas

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

El alcalde-presidente da inicio al pleno para tratar los siguientes asuntos:

1. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2026KO APIRILAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN (04/2026) AKTA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute.
Batzarkideek aho batez onartu dute.

PUNTO 1. APROBAR, EN SU CASO, EL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (04/2026), ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 30 DE ABRIL DE 2026.

Han examinado el acta mencionada en el título. Aprobada por unanimidad por los miembros de la Corporación.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

2. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, I. ERANSKINEAN ZERRENDATUTAKO INSTALAZIOAK, ERAIKUNTZAK ETA OBRAK INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-ONURAKOAK DIRELA DEKLARATZEA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko maiatzaren 20ko irizpena.

PUNTO 2. APROBAR, EN SU CASO, LA DECLARACIÓN DE INTERÉS ESPECIAL O DE UTILIDAD MUNICIPAL DE LAS INSTALACIONES, CONSTRUCCIONES Y OBRAS RELACIONADAS EN EL ANEXO I.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo del Territorio de 20 de mayo de 2026.

I K U S I R I K

LEHENA.- Eranskinetan zerrendatzen diren interesdunek aurkeztutako eskaeren arabera, honako hau eskatzen dute: alde batetik, Osoko Bilkurak erabaki dezala eskatutako /komunikatutako eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikotzat edo udal-onurakotzat jotzea inguruabar sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzekoak izateagatik; eta, bestetik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren hobaria aitor dadila, Tolosako Udalaren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskaleko 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Interesdun bakoitzak irekitako espediente bakoitzean Hirigintzako dagokion teknikariaren txostena dago, eta bertan adierazten da aztertutako obra horrek hobaria jasotzeko Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean zehaztutako baldintzak betetzen dituen ala ez, zerrendatzen den eranskinean jasotzen den bezala.

K O N T U A N H A R T U R I K

LEHENA.- Tolosako Udalaren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskaleko 10.1 artikuluan honako hau jasotzen da:

≪1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak Udal Batzak izendatzen baditu, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obrak, zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obrak, zerga-kuotaren %60eko hobaria jasoko dute.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 95eko hobaria izango dute.

d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obrek, % 95eko hobaria izango dute.

e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetako obrak % 80eko hobaria izango dute.

f) Jarduera ekonomikoaren lotutako 200 metro karratu baina gutxiagoko lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan % 95eko hobaria izango dute.

g) Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %95ko hobaria izango dute.

Apartatu honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria≫.

BIGARRENA.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauak 5. artikuluan jasotzen duenez, udalerriek, beren ordenantza fiskaletan, zergaren kuotaren gaineko hobari hau arautu ahal izango dute:

≪1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean:

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

(…).≫.

Tolosako Udalak 2025eko martxoaren 27ko osoko bilkuran ordenantza fiskala aldatu eta hobari mota hori sartu du, eta, horren harira, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau proposatzen du:

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

IRIZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- DEKLARATZEA I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak badirela INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-ONURAKOAK, Ordenantza Fiskalean tipifikatutako balizko kasuetako batean daudelako.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren gaineko HOBARIA AITORTZEA, mozkinaren arrazoia behar bezala justifikatutzat jotzen delako, Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

ERANSKINA I

Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria AITORTZEA.

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Obra mota / arrazoia	Hobariaren %
1	2026H3330060	A.M.D.P.A. (15976855C)	a	95%
2	2026H3330042	J.M.E. (72605769J)	a	95%
3	2026H3330076	M.R.O.O. (32984524V)	a	95%

Obra motak:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obra delako.
b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obra delako.
c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obra delako.
d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obra delako.
e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetako obra direlako.
f) Jarduera ekonomikoarekin lotutako 200 m² baino gutxiagoko lokaletan, 50.000 €tik beherako aurrekontua duten obra delako.
g) Udalak onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuan edo Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako eraikinetan egindako obra delako.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboak, 2026ko apirilaren 22n egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren ondoren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

I R I Z P E N A

LEHENA.- DEKLARATZEA I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak badirela INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-ONURAKOAK, Ordenantza Fiskalean tipifikatutako balizko kasuetako batean daudelako.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren gaineko HOBARIA AITORTZEA, mozkinaren arrazoia behar bezala justifikatutzat jotzen delako, Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

ERANSKINA I

Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria AITORTZEA.

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Obra mota / arrazoia	Hobariaren %
1	2026H3330060	A.M.D.P.A. (15976855C)	a	95%
2	2026H3330042	J.M.E. (72605769J)	a	95%
3	2026H3330076	M.R.O.O. (32984524V)	a	95%

Obra motak:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obra delako.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obra delako.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obra delako.
d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obra delako.
e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetako obra direlako.
f) Jarduera ekonomikoarekin lotutako 200 m² baino gutxiagoko lokaletan, 50.000 €tik beherako aurrekontua duten obra delako.
g) Udalak onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuan edo Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako eraikinetan egindako obra delako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikoak edo udal-onurakoak direla deklaratzea. hasierako onespena eman dio 2026 urteko lanpostu-zerrenda aldatzeari buruzko irizpena.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

3. PUNTUA. HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, EDUARDO MOKOROA UDAL MUSIKA ESKOLAREN ERREGELAMENDUARI BURUZKO IRIZPENARI.

PUNTO 3. APROBAR INICIALMENTE, EN SU CASO, EL DICTAMEN SOBRE EL REGLAMENTO DE LA ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA EDUARDO MOKOROA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko maiatzaren 20ko irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo del Territorio de 20 de mayo de 2026.

I K U S I R I K

LEHENA.- Tolosako Udaleko Kultura eta Musika eskola Azpisaileko zinegotzi delegatuak, Goiuri Ezeiza Arandiak, 2025eko azaroaren 14ko probidentzia baten bitartez, xedatu zuela espediente bat hastea, Eduardo Mokoroa Udal Musika eskolako erregelamendua egiteko.

BIGARRENA.- Aurretiazko kontsulta publikoan ez zela inolako proposamenik jaso.

HIRUGARRENA.- Musika eskolako zuzendariak, 2025eko azaroaren 14an, erregelamenduaren proposamena egin zuela. Azaldu zuenez, 1988an onartu zen Musika Eskolaren araudia, eta zahartua dago hainbat arlotan. Gainera, Musika eskolaren funtzionamendua egokiagoa izan dadin, beste hainbat aldaketa egitea proposatu zuen.

K O N T U A N H A R T U R I K

LEHENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak, 2026ko apirilaren 23an, txosten juridikoa igorri duela. Araudi-proposamenaren aldeko iritzia eman du, euskarak, berdintasunak, eta idazkaritzak adierazitako ekarpenak sartu ondoren.

BIGARRENA.- Berdintasun Saileko teknikariak, ez duela txosten teknikorik igorri, ikusita espedientearen hasieran egin zitzaiola genero-eraginaren aurretiazko txostena, eta jaso zituela Berdintasun Sailaren ekarpenak, 2026ko martxoaren 26an egindako txosten batean.

HIRUGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2026ko martxoaren 27an egindako txostenean, bi ekarpen egin zituela hizkuntza-irizpideei dagokienez eta txertatu ondoren berrikusi eta ontzat jo duela proposamena.

LAUGARRENA.- Kontu-hartzailetza Saileko teknikariak ez duela beharrezkotzat jo proposamenari buruzko txostena egitea, ikusita zein den erregelamenduaren izaera.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

BOSGARRENA.- Udalbatzari dagokiola onartzea, hori xedatzen baitu 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2023ko apirilaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

• **Aldeko botoak:** Aitzol Luis Garcia, Maria Estibalitz Kortejarena, Goiuri Ezeiza, Aitor Agirresarobe, Joxe Mari Villanueva, Iker Uson, Maria Leire Zubeldia.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

I R I Z P E N A

LEHENA.- Hasierako onespena ematea Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren erregelamenduari, eranskinean azaltzen den eran.

BIGARRENA.- Erregelamendua eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu, eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, entzunaldia ematea inplikatutako eragileei.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onespena eman dio Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren Erregelamenduari buruzko irizpenari.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

4. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, SEXU INDARKERIAREN AURREAN UDAL ZERBITZU ETA ERAIKIN PUBLIKOETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko maiatzaren 20ko irizpena.

PUNTO 4. APROBAR, EN SU CASO, EL PROTOCOLO DE ACTUACIÓN ANTE LA VIOLENCIA SEXUAL EN LOS SERVICIOS Y EDIFICIOS PÚBLICOS MUNICIPALES.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo del Territorio de 20 de mayo de 2026.

I K U S I R I K

LEHENA.- Emakumeen aurkako indarkeria matxista nazioartean aitortzen dela neska txikien, neska nerabeen eta emakume helduen oso kopuru handiari, beren seme-alabei eta ondorioz gizarte osoari eragiten diola giza eskubideen urraketatzat. Sexuindarkeria ez dela ulertu behar soilik erasotzailearen eta erasotutako pertsonaren arteko harreman batean, baizik eta egitura sozial matxista batean, non boteredesorekek emakumeen segurtasuna eta autonomia mugatzen dituztela.

BIGARRENA.- Erreferentziazko araudiak aitortzen duela indarkeria hori desberdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio dela, hala nola soldata-arrakala, pobreziaren feminizazioa edo emakumeek erabakiak hartzeko eremuetan duten ordezkaritza txikia.

HIRUGARRENA.- Definitzen dela emakumeek gizarte-egitura matxistaren barruan bizitzaren eremu guztietan jasaten dutela indarkeria estruktural eta sistemikoa, gizarteantolamenduarekin lotuta dagoela eta emakumeek gizartean eta familian sexuaren arabera betetzen dituztela funtzioen eta erantzukizunen banaketa tradizionalean oinarritzen dena, non emakumeek gizonen mendeko lekua duten.

LAUGARRENA.- Adinak, nazionalitateak, jatorriak, desgaitasunak, administrazioegoerak, pobreziak edo autonomia ekonomikorik ezak, elkarren artean gurutzatzen diren beste faktore batzuekin batera, eragina dute indarkeria-egoerak larriagotzeko eta emakumeek beren eskubideak eraginkortasunez baliatzeko duten egoera eta egoera desabantailatsuagoa izateko

K O N T U A N H A R T U R I K

LEHENA.-. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren VII. kapituluak *Emakumeen aurkako indarkeria*, mugarri bat dakar arlo horretako legerian, bereziki indarkeria matxistaren aurrean erakundeek erantzuteko duen garrantziagatik: indarkeria motak eta moduak zabaltzen ditu (genero-indarkeriatik harago), bai eta zuzenbidezko subjektuaren eremua ere

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

(inguruan bizi diren haurrak, nerabeak eta beste pertsona batzuk biktimatzat hartuta); esku-hartzean begirada intersekzionala eta arretaren pertsonalizazioa txertatzen dituela azpimarratzen du, eta berriz biktimizatzea saihesten duela eta biktimen eskubideak eta ahalduntzea esku-hartzearen erdigunean jartzen dituela.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren lehentasunezko estrategietako bat dela ahalik eta koordinazio eta lankidetza handiena sustatzea udalerriko erakundeen, talde feministen, elkarteen eta gizarte-eragileen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala bermatzeko.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak bi jarduera-protokolo ditu indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko. Lehen protokoloa 2014an sinatu zen.

Hartutako konpromisoa dela-eta, beharrezkotzat jo zen bigarren protokolo bat egitea (laster sinatuko da), gizartearen eta legeen aurrerapenen ondorioz, bai ikuspegiari dagokionez, bai arretari dagokionez, Tolosako egungo eta etorkizuneko errealitateari behar bezala erantzun ahal izateko.

LAUGARRENA.-. Jarduketa-irizpideak bateratzeko eta erantzun egokia, azkarra eta koordinatua ziurtatzeko, Udalak garrantzi berezikotzat jo zuen udal-eraikinetan eta zerbitzu publikoetan lan egiten duten langileei tresnak eta ezagutza ematea, zerbitzuetan eman daitezkeen sexu-erasoak behar bezala identifikatu, artatu eta kudeatu ahal izan ditzaten.

Beraz Protokolo honen helburua da, Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan sexu-indarkeriak prebenitzeko eta ezabatzeko jarduera-esparrua ezartzea, baita erasoak jasan dituzten pertsonen segurtasuna, konfidentzialtasuna eta eskubideak bermatzeko behar diren mekanismoak ezartzea, arreta integrala eta koordinatua eskaintzeko, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersekzionaletik.

Hartzaileak: Protokolo hau Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publikoetan sexuindarkeria jasan duten edo jasaten ari diren pertsona guztiei zuzenduta dago. Arreta berezia jarriko zaie elkargune ugari dituzten pertsonei, hala nola jatorriari, arrazari edo genero-eskema tradizionalak hausten dituzten pertsonei.

Esku-hartzeko prozedura bat ondo egiteko, printzipio gidarietan oinarritu behar da, baina profesionalek modu eraginkorrean aplika dezaten, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak bere jarduera profesionalean barneratzea eta integratzea. Printzipio horiek praktikan jartzeak pertsona erasotuaren ongizatea eta segurtasuna bermatzen du, esku-hartzea koherenteagoa eta eraginkorragoa eginez.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

1.- Egora posibleak: Kasua larria baldin bada eta hain larria ez bada
2.- Protokoloa aktibatzea
3.- Esku hartzea
4.- Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena
5.- Ebaluazio-fitxa betetzea
6.- Sexu indarkeriari aurre egiteko baliabideak

Horrelako irizpideak onartzeko eskumena alkateak duela oro har, kontuan hartuta zer dioen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.s) artikuluan. Ordea, irizpideen izaera eta hedadura ikusirik, proposamena da Udalbatzak onartzea, 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua oinarri hartuta.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2026ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Aitzol Luis Garcia, Maria Estibalitz Kortejarena, Goiuri Ezeiza, Aitor Agirresarobe, Joxe Mari Villanueva, Iker Uson, Maria Leire Zubeldia.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

I R I Z P E N A

LEHENA.- Sexu indarkeriaren aurrean udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko protokoloari onespena ematea

BIGARRENA.- Sexu indarkeriaren aurrean udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko protokoloa onartu ondoren, laburpen bat argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, adieraziz dokumentua eskuragarri dagoela udal-webgunean eta Tolosako Udaleko iragarki-taulan 20 lanegunez.

HIRUGARRENA.- Udal zerbitzu eta eraikinetan lana egiten duten langileei Protokoloa aurkeztea eta prestakuntza saio bat antolatzea.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Sexu indarkeriaren aurrean Udal zerbitzu eta eraikin publikoetan jarduteko Protokoloa.

5. PUNTUA. ALKATEAK ETA ZINEGOTZI DELEGATUEK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Batzordeko lehendakariak 2026ko apirilari eta maiatzari dagozkien dekretuen berri eman du.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

PUNTO 5. DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DICTADOS POR EL ALCALDE Y CONCEJALES/AS DELEGADOS/AS.

El Presidente da cuenta de los decretos correspondientes a abril y mayo de 2026.

Quedan informados los miembros del pleno.

6. PUNTUA. TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA.

Batzordeko lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri eman du.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira

PUNTO 6. DAR CUENTA DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL.

El Presidente da cuenta de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local.

Quedan informados los miembros del pleno.

7. PUNTUA. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ikus bideoaktan agertzen den grabazioa.

PUNTO 7. RUEGOS Y PREGUNTAS

Véase la grabación que consta en videoacta

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Besterik gabe, 19:31ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, udal idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 19:31 horas, se da por finalizada la sesión, y yo, la secretaria municipal, certifico, con el visto bueno del alcalde.

ALKATEA
O.e.

UDAL IDAZKARIA

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren

Antolamendu eta Jarduera Araudia (AJA)

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren inguruan dokumentuetan agertu diren lehenengo datuak 1880 ingurukoak dira. Betidanik izan du musika irakasteko helburua, Tolosako Musika Banda eta Santa Maria kapera musikariz hornitzeko. 1880tik 1983ra arte "Academia de música" deitu izan zitzaion.	Los primeros datos de la Escuela Municipal de Música Eduardo Mokoroa de Tolosa que figuran en documentos son de alrededor de 1880. Siempre ha tenido como objetivo enseñar música para dotar de músicos a la Banda de Música de Tolosa y a la capilla de Santa María. Desde 1880 hasta 1983 se le había venido denominando "Academia de música".
1983ko apirilaren 21eko 63/1983 Dekretuak Tolosako Musika Eskola oinarrizko mailako musika-irakaskuntzako zentro ez-ofizial izendatu zuen. 1990eko apirilaren 9ko 91/1990 Aginduak balio akademikoa eman zion oinarrizko mailako musika-irakaskuntzako zentro ofiziala izateko. 1992ko maiatzaren 12ko Dekretuak baimena eman zion maila ertaineko musika-irakaskuntzak emateko.	El Decreto 63/1983, de 21 de abril, declaró centro no oficial de enseñanza musical de grado elemental a la Escuela de Música de Tolosa. La Orden 91/1990, de 9 de abril, le otorgó validez académica para ser centro oficial de enseñanzas musicales de Grado Elemental. El Decreto de 12 de mayo de 1992 le autorizó la impartición de las enseñanzas musicales de grado medio.
1992ko urriaren 27ko 289/1992 Dekretuko xedapen iragankorrak (1.etik 5.era bitartekoak) aplikatzearen ondorioz, araututako irakaskuntzako musika-ikastetxeak, hau da, oinarrizko eta maila ertaineko kontserbatorioak, musika-eskola bihurtu ziren. Horren ondorioz, 1993ko urriaren 11ko Aginduak baimendu zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako kontserbatorioak musika-eskola bihurtzea (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 93-11-11).	En 1992, como consecuencia de la aplicación de las disposiciones transitorias primera a quinta del Decreto 289/1992, de 27 de octubre, los centros de enseñanza reglada de música, es decir, los conservatorios de grado elemental y medio, pasaron a ser escuelas de música. En consecuencia, la Orden de 11 de octubre de 1993, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 11-11-93, autorizó la transformación de los conservatorios de los territorios históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa en escuelas de música.
Atariko titulua	Título preliminar
1. artikulua. Izaera eta helburuak	Artículo1. Naturaleza y objetivos
2. artikulua. Organigrama	Artículo 2. Organigrama
3. artikulua. Araudiaren eragina	Artículo 3. Incidencia normativa
4. artikulua. Berdintasuneko araudia	Artículo 4. Normativa de igualdad
I. titulua. Kudeaketa-organoak	Título I. Órganos de gestión
5. artikulua. Zuzendaria	Artículo 5. Director/a
5.1. Zuzendariaren funtzioak	5.1. Funciones del/la director/a
6. artikulua. Ikasketaburua 6.1. Ikasketaburuaren funtzioak	Artículo 6. Jefe/a de estudios 6.1. Funciones del/la jefe/a de estudios

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

7. artikulua. Idazkari akademikoa	Artículo 7. Secretario/a académico/a
7.1. Idazkari akademikoaren funtzioak	7.1. Funciones del/la secretario/a académico/a
8. artikulua. Irakasleen klaustroa	Artículo 8. Claustro de profesores/as
8.1. Irakasleen klaustroaren funtzioak	8.1. Funciones del claustro de profesores/as
9. artikulua. Didaktika-departamentuak.	Artículo 9. Departamentos didácticos
9.1. Didaktika-departamentuen funtzioak	9.1. Funciones de los departamentos didácticos
9.2. Didaktika-departamentuen arduradunak	9.2. Responsables de los departamentos didácticos
9.2.1. Didaktika-departamentuetako arduradunen funtzioak	9.2.1. Funciones de los/as responsables de los departamentos didácticos
10. artikulua. Administrazio-unitatea	Artículo 10. Unidad administrativa
10.1. Administrazio-unitatearen funtzioak	10.1. Serán funciones de la unidad administrativa
II. titulua. Irakasleak	Título II. Profesorado
1. atala. Lanaldia	Sección 1ª. Jornada laboral
11. artikulua. Irakasleen urteko lan-egutegia	Artículo 11. Calendario laboral anual del profesorado
12. artikulua. Irakasleen asteko lanaldia	Artículo 12. Jornada semanal del profesorado
13. artikulua. Ordu-murrizketa ikastetxeko zuzendaritza-taldeko karguagatik	Artículo 13. Reducción horaria por cargo en el equipo directivo del centro
14. artikulua. Ordu-murrizketak proiektu espezifikoengatik	Artículo 14. Reducciones horarias por proyectos específicos
2. atala. Ordutegiak	Sección 2ª. Horarios
15. artikulua. Ordutegiak prestatzeko prozesua	Artículo 15. Proceso de elaboración de horarios
3. atala. Eskubideak eta betebeharrak	Sección 3ª. Derechos y deberes
16. artikulua. Irakasleen eskubideak	Artículo 16. Derechos del profesorado
17. artikulua. Irakasleen betebeharrak	Artículo 17. Obligaciones del profesorado
17.1. Tutoreak	17.1. Tutores/as
17.1.1. Tutoreen funtzioak	17.1.1. Funciones de los/as tutores/as
III. titulua. Ikasleak	Título III. Alumnado
1. atala. Ikasle errefortzudunak	Sección 1ª. Alumnado con refuerzo

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

18. artikulua. Ikasle errefortzudunak	Artículo 18. Alumnado con refuerzo
2. atala. Eskubideak eta betebeharrak	Sección 2ª. Derechos y deberes
19. artikulua. Erreferentzia-esparrua	Artículo 19. Marco de referencia
20. artikulua. Ikasleen eskubideak	Artículo 20. Derechos del alumnado
21. artikulua. Ikasleen betebeharrak	Artículo 21. Deberes del alumnado
3. atala. Diziplina-araubidea	Sección 3ª. Régimen disciplinario
22. artikulua. Arau-hausteak	Artículo 22. Infracciones
23. artikulua. Zigorrak	Artículo 23. Sanciones
24. artikulua. Zigor-jardunbidea	Artículo 24. Procedimiento sancionador
25. artikulua. Klaseetara huts egitea.	Artículo 25. Faltas a clases
IV. titulua. Musika-eskola kudeatzeko eta ebaluatzeko tresnak	Título IV. Herramientas de gestión y evaluación de la escuela de música
1. atala. Hezkuntza-eskaintza	Sección 1ª. Oferta educativa
26. artikulua. Hezkuntza-eskaintza	Artículo 26. Oferta educativa
2. atala. Urteko Kudeaketa Plana	Sección 2ª. Plan Anual de Gestión
27. artikulua. Urteko Kudeaketa Plana	Artículo 27. Plan Anual de Gestión
3. atala. Urteko Kudeaketa Txostena	Sección 3ª. Informe Anual de Gestión
28. artikulua. Urteko Kudeaketa Txostena	Artículo 28. Informe Anual de Gestión
4. atala. Musika-eskolako jarduerak	Sección 4ª. Actividades de la escuela de música
29. artikulua. Musika-eskolako ohiko jarduerak	Artículo 29. Actividades ordinarias de la escuela de música
30. artikulua. Musika-eskolako ezohiko jarduerak	Artículo 30. Actividades extraordinarias de la escuela de música
5. atala. Irakasle-aldaketak	Sección 5ª. Cambios de profesorado
31. artikulua. Irakasle-aldaketak	Artículo 31. Cambios de profesorado
V. titulua. Matrikulazioa eta ikasleak onartzea	Título V. Matriculación y admisión del alumnado
1. atala. Matrikula	Sección 1ª. Matrícula
32. artikulua. Matrikula	Artículo 32. Matrícula
2. atala. Ikasle direnen matrikula berritzea	Sección 2ª. Renovación matrícula alumnado

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

33. artikulua. Ikasle direnen matrikula berritzea	Artículo 33. Renovación de la matrícula del alumnado
34. artikulua. Matrikula berritzeko galdetegia eta jarraibideak jasotzea	Artículo 34. Recepción del cuestionario e instrucciones para la renovación de matrícula
35. artikulua. Hezkuntza-eskaintza eguneratzea, eta errefortzudun eta hasierako ikasleen matrikula berritzea	Artículo 35. Actualización de la oferta educativa y renovación de la matrícula del alumnado con refuerzo y de inicio
36. artikulua. Plazen zozketa	Artículo 36. Sorteo de plazas
37. artikulua. Ordutegiak	Artículo 37. Horarios
3. atala. Ikasle berrien matrikula	Sección 3ª. Matrícula del nuevo alumnado
38. artikulua. Ikasle berriak onartzeko faseak	Artículo 38. Fases de admisión de nuevo alumnado
39. artikulua. Hezkuntza-eskaintza. Plaza hutsak	Artículo 39. Oferta educativa. Plazas vacantes
40. artikulua. Maila zehazteko proba	Artículo 40. Prueba de nivel
41. artikulua. Espezialitateko ordutegiak aukeratzea	Artículo 41. Elección de horarios de la especialidad
42. artikulua. Plazak esleitzea	Artículo 42. Adjudicación de plazas
43. artikulua. Matrikula egiteko baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa	Artículo 43: Requisitos de matrícula y documentación a presentar
44. artikulua. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.	Artículo 44. Documentación interoperable y verificable
VI. titulua. Egoitza, materiala eta instrumentuak erabiltzea	Título VI. Uso de la sede, material e instrumentos
1. atala. Instalazioak erabiltzea	Sección 1ª. Utilización de las instalaciones
45. artikulua. Instalazioak erabiltzea	Artículo 45. Utilización de las instalaciones
46. artikulua. Betebeharrak	Artículo 46. Obligaciones
47. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak	Artículo 47. Causas de denegación de la autorización
48. artikulua. Musika-eskolako langileek instalazioak erabiltzea	Artículo 48. Utilización de las instalaciones por parte del personal de la escuela de música
49. artikulua. Musika-eskolako ikasleek instalazioak erabiltzea	Artículo 49. Utilización de las instalaciones por parte del alumnado de la escuela de música
50. artikulua. Instalazioak Udaleko beste sailek edo Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak erabiltzea	Artículo 50. Utilización de las instalaciones por otras áreas municipales o la Asociación de Escuelas de Música de Euskal Herria

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

51. artikulua. Musika-eskolaz kanpoko erabiltzaileek instalazioak erabiltzea	Artículo 51. Utilización de las instalaciones por usuarios/as externos/as a la escuela de música
52. artikulua. Musika-eskolak beste instalazio batzuk erabiltzea	Artículo 52. Utilización de otras instalaciones por parte de la escuela de música
2. atala. Materiala eta instrumentuak musika-eskolatik kanpo erabiltzea	Sección 2ª. Utilización de material e instrumentos fuera de la escuela de música
53. artikulua. Musika–eskolako langileek edo Udaleko beste sailek materiala eta instrumentuak musika-eskolatik kanpo erabiltzea	Artículo 53. Uso de material e instrumentos fuera de la escuela de música por parte del personal de la escuela de música u otros departamentos municipales
54. artikulua. Ikasleek edo beste erakunde batzuek materiala eta instrumentuak musika-eskolatik kanpo erabiltzea	Artículo 54. Uso de material e instrumentos fuera de la escuela de música por parte del alumnado u otras instituciones
55. artikulua. Instrumentuen mailegua	Artículo 55. Préstamo de instrumentos
Xedapen indargabetzailea	Disposición derogatoria
Azken xedapena	Disposición final
ATARIKO TITULUA	**TÍTULO PRELIMINAR**
1. artikulua. Izaera eta helburuak Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskola Tolosako Udalaren mendeko zerbitzua da, musika irakasteko helburua duena.	Artículo 1. Naturaleza y objetivos La Escuela Municipal de Música Eduardo Mokoroa de Tolosa es un servicio de enseñanza musical dependiente del Ayuntamiento de Tolosa.
2. artikulua. Organigrama Musika-eskola Tolosako Udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Sailaren barruan dago.	Artículo 2. Organigrama La escuela de música forma parte del Área de Cultura, Fiestas y Juventud del Ayuntamiento de Tolosa.
3. artikulua. Araudiaren eragina Araudi honetan xedatutakoak honako hauei eragingo die: musika-eskolako irakasle, administrari, bestelako langile, ikasle, guraso eta sor daitezkeen bestelako organoei.	Artículo 3. Incidencia normativa Lo dispuesto en el presente reglamento afectará al profesorado, administrativos/as, otro personal, alumnos/as, padres o madres y demás órganos de la escuela de música que puedan crearse.
4. artikulua. Berdintasuneko araudia Araudi honek berdintasunaren arloko araudia ere beteko du, hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023	Artículo 4. Normativa de igualdad Esta normativa también se ajustará a la normativa en materia de igualdad, en particular al Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Legegintzako Dekretua, eskolari eragiten dioten berariazko artikuluetan:	machista contra las mujeres, en los artículos específicos que afectan a la escuela:
• 3. artikulua. Printzipio orokorrak. • 7. artikulua. Toki-administrazioa. • 21. artikulua. Hautaketa-prozesuak eta epaimahaiak.	• Artículo 3. Principios generales. • Artículo 7. Administración local. • Artículo 21. Procesos selectivos y tribunales.
I. TITULUA	**TÍTULO I**
KUDEAKETA-ORGANOAK	**ÓRGANOS DE GESTIÓN**
Musika-eskolako kudeaketa-organoak honako hauek dira: zuzendaritza-taldea, irakasleen klaustroa, didaktika-departamentua eta administrazio-unitatea. Zuzendaritza-taldea zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkari akademikoak osatzen dute.	Los órganos de gestión de la escuela de música son el equipo directivo, el claustro de profesores/as, el departamento didáctico y la unidad administrativa. El equipo directivo está formado por el/la director/a, el/la jefe/a de estudios y el/la secretario/a académico/a.
5. artikulua. Zuzendaria Irakasleen klaustroak egingo du zuzendaria izendatzeko proposamena, eta, hala dagokionean, baita kargua uztekoa ere.	Artículo 5. Director/a El claustro de profesores/as realizará la propuesta de nombramiento del director/a y, en su caso, de su cese.
Musika-eskolako irakasle bat proposatuko da zuzendari izateko hautagai.	El candidato o candidata propuesto para la dirección será un/una profesor/a de la escuela de música.
Ikasketaburuak egingo ditu zuzendariaren ere motzeko ordezkapenak. Epe luzekoak egiteko, hautagai bat proposatuko du zuzendaritzak, eta klaustroak onartu beharko du proposamen hori.	Las sustituciones a corto plazo del/la director/a serán realizadas por el/la jefe/a de estudios. Para las sustituciones a largo plazo, la dirección propondrá un/a candidato/a, y la propuesta deberá ser aprobada por el claustro.
Zuzendaria musika-eskolaren ordezkaria da, eta bertako aginte gorena izango du.	El/la director/a es el/la representante de la escuela de música, y ostentará la máxima autoridad de la misma.
5.1. Zuzendariaren funtzioak:	5.1. Funciones del/la director/a:
• Musika-eskola kudeatzea, irakasleen klaustroaren aholkularitzarekin; horretarako, indarrean dagoen legeriaren eta araudi honen araberako erabakiak hartuko ditu.	• Gestionar la escuela de música con el asesoramiento del claustro de profesores/as, adoptando para ello las decisiones de acuerdo con la legislación vigente y este reglamento.
• Kudeaketa ekonomikoa egitea onetsitako aurrekontuen arabera.	• Realizar la gestión económica de acuerdo con los presupuestos aprobados.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

• Zerbitzuaren kudeaketa ekonomikoaren jarraipena egitea.	• Seguimiento de la gestión económica del servicio.
• Zerbitzua zuzendu eta ikuskatzea, saileko buruaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean.	• Dirigir e inspeccionar el servicio bajo la dirección e inspección del/la jefe/a del área.
• Musika-eskolaren antolakuntza eta funtzionamendu ona bermatzea. Horretarako, udal-sailekin harremana izango du. • Udaletik eskatutako txostenak egitea.	• Garantizar la buena organización y funcionamiento de la escuela de música, relacionándose para ello con las áreas municipales. • Elaborar los informes solicitados por el ayuntamiento.
• Irakasleen ordutegiak gainbegiratzea eta jarraipena egitea. • Ikastetxearen mantentze-lanak zaintzea eta kudeatzea, Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Sailaren laguntzarekin. • Ikastetxerako behar diren materialak gainbegiratzea.	• Supervisar y hacer seguimiento de los horarios del profesorado. • Cuidar y gestionar el mantenimiento del centro, con la colaboración del Área de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento. • Supervisar los materiales necesarios para el centro.
• Musika-eskolako dokumentuetan sinadura erabiltzea. • Musika-eskolako posta elektronikoa kudeatzea, eta irakasleei dagozkien mezuak birbidaltzea. • Irakasleen baimen-eskaerak kudeatzea.	• Usar la firma en documentos de la escuela de música. • Gestionar el correo electrónico de la escuela de música, y reenviar los mensajes correspondientes al profesorado. • Gestionar las solicitudes de permisos del profesorado.
• Musika-eskolako gelen antolaketa eta kudeaketa egitea. • Leidor, Tolosako Ekinbide Etxea, Topic eta bestelako elkarteekin harremanak eta kudeaketak bideratzea. • Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik eskatzen dituzten datuak betetzea eta bidaltzea (datutegia, estatistika, dirulaguntzak...).	• Organizar y gestionar las aulas de la escuela de música. • Encargarse de las relaciones y gestiones con Leidor, el Centro de Iniciativas de Tolosa, Topic y otras asociaciones. • Cumplimentar y remitir los datos solicitados desde el Departamento de Educación del Gobierno Vasco (base de datos, estadística, subvenciones...).
• Eusko Jaurlaritzarekin eta ikuskaritzarekin egin beharreko harreman eta kudeaketez arduratzea. • Ikasturteko memoria egiteko prozesuan parte hartzea. • Irakasleei, ikasleei eta bere erantzukizunpeko talde eta zerbitzuetako	• Encargarse de las relaciones y gestiones con el Gobierno Vasco y la inspección. • Participar en el proceso de elaboración de la memoria del curso. • Hacer cumplir las funciones docentes y disciplinarias al profesorado, alumnado y

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

kideei irakaskuntza- eta diziplina-arloko eginkizunak betearaztea.	miembros de los equipos y servicios bajo su responsabilidad.
• Musika-eskolaren ildoak eta musika-politika gauzatzea eta garatzea. • Ikasleen onarpen-prozesua gainbegiratzea.	• Ejecutar y desarrollar las líneas y política musical de la escuela de música. • Supervisar el proceso de admisión del alumnado.
• Irakasleak hautatzeko prozesua kudeatzea.	• Gestionar el proceso de selección del profesorado.
• Musika-jarduerarekin zerikusia duten ekitaldiak, musika-taldeak eta musikarien aukeraketa kudeatzea. • Musika-eskola osoari koherentzia eta batasuna ematea hezkuntza-alderdi guztietan. • Didaktika-departamentuen proposamenak onartzea edo aldatzea, horiek onartzeko beharrezkoa izango balitz.	• Gestionar eventos relacionados con la actividad musical, grupos musicales y selección de músicos. • Dar coherencia y unidad a toda la escuela de música en todos los aspectos educativos. • Aprobar o modificar las propuestas de los departamentos didácticos, si fuera necesario para su aprobación.
• Administrazio-unitateko lana antolatu eta gainbegiratzea. • Klaustroko gai-zerrenda prestatzea, ikasketaburuarekin eta idazkari akademikoarekin landu ondoren. • Beste musika-eskolekin harremanak izatea.	• Organizar y supervisar el trabajo en la unidad administrativa. • Elaborar el orden del día del claustro, tras trabajarlo con el/la jefe/a de estudios y el/la secretario/a académico/a. • Mantener relaciones con otras escuelas de música.
• Ikasleen gurasoekin edo tutoreekin harremanak izatea, ikasketaburuarekin elkarlanean.	• Relacionarse con los/as progenitores o tutores/as de los/as alumnos/as en colaboración con el/la jefe/a de estudios.
• Telefonoa hartzea. • Esleitu dakizkiokeen bestelako eginkizunak.	• Atender el teléfono. • Otras funciones que le puedan ser asignadas.
6. artikulua. Ikasketaburua Irakasleen klaustroak egingo du ikasketaburua izendatzeko proposamena, eta, hala dagokionean, baita kargua uztekoa ere.	Artículo 6. Jefe/a de estudios El claustro de profesores/as elaborará la propuesta de nombramiento del/la jefe/a de estudios y, en su caso, de su cese.
Musika-eskolako irakasle bat proposatuko da ikasketaburu izateko hautagai.	El/la candidato o candidata propuesto para la jefatura de estudios será un/una profesor/a de la escuela de música.
Zuzendariak egingo ditu ikasketaburuaren epe motzeko ordezkapenak. Epe luzekoak egiteko, hautagai bat proposatuko du zuzendaritzak, eta klaustroak onartu beharko du proposamen hori.	Las sustituciones a corto plazo del/la jefe/a de estudios serán realizadas por el/la director/a. Para las

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

	de largo plazo, la dirección propondrá un/a candidato/a que deberá ser aprobado por el claustro.
6.1. Ikasketaburuaren funtzioak: • Eskolako jarduerak eta kontzertuak (kanpoko eskaeren bidez sortutakoak barne) ekoiztea eta koordinatzea.	6.1. Funciones del jefe/a de estudios: • Producir y coordinar actividades y conciertos escolares, incluidos los solicitados por demanda externa.
• Baliabide teknologikoak koordinatzea Informatika eta Teknologia Berriak Sailarekin. • Ikasleen tutoreekin harremanak kudeatzea: informazio-bilerak, ikasleen jarraipena eta gatazken kudeaketa.	• Coordinar los recursos tecnológicos con el Área de Informática y Nuevas Tecnologías. • Gestionar las relaciones con los tutores/as del alumnado: reuniones informativas, seguimiento del alumnado y gestión de conflictos.
• Irakasleen beharrak kudeatzea: material-eskaerak eta abar.	• Gestionar las necesidades del profesorado: pedidos de materiales, etc.
• Musika-eskolako material-beharrak kudeatzea. • Tolosako Udal Musika Bandarekin harremanak izatea. • Musika-eskolako kudeaketa pedagogikoa egitea: ikasketa-planaren lanketa eta eguneraketa.	• Gestionar las necesidades de material de la escuela de música. • Relación con la Banda Municipal de Música de Tolosa. • Encargarse de la gestión pedagógica de la escuela de música: elaborar y actualizar el plan de estudios.
• Ikasleen kudeaketa pedagogikoa egitea (irakasleekin jarraipena).	• Realizar la gestión pedagógica del alumnado (seguimiento con el profesorado).
• Irakasleen mediku-azterketak kudeatzea.	• Gestionar los reconocimientos médicos del profesorado.
• Irakasleentzat formakuntza-planak antolatzea.	• Organizar planes de formación para el profesorado.
• Musika-eskolako gatazkak kudeatzea.	• Gestionar los conflictos de la escuela de música.
• Telefonoa hartzea. • Esleitu dakizkiokeen bestelako eginkizunak.	• Atender el teléfono. • Otras funciones que le puedan ser asignadas.
7. artikulua. Idazkari akademikoa Irakasleen klaustroak egingo du idazkari akademikoa izendatzeko proposamena, eta, hala dagokionean, baita kargua uztekoa ere.	Artículo 7. Secretario/a académico/a El claustro de profesores/as realizará la propuesta de nombramiento del/la secretario/a académico/a y, en su caso, de su cese.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Musika-eskolako irakasle bat proposatuko da idazkari akademiko izateko hautagai.	El candidato o candidata propuesto para secretario/a académico/a será un/una profesor/a de la escuela de música.
Ikasketaburuak egingo ditu idazkari akademikoaren epe motzeko ordezkapenak. Epe luzekoak egiteko, zuzendaritzak hautagai bat proposatuko du, eta klaustroak onartu beharko du proposamen hori.	Las sustituciones a corto plazo del/la secretario/a académico/a serán realizadas por el/la jefe/a de estudios. Para las sustituciones de largo plazo, la dirección propondrá un/a candidato/a que deberá ser aprobado por el claustro.
7.1. Idazkari akademikoaren funtzioak: • Matrikulazioa kudeatzea. • Inika programa kudeatzea: notak, matrikulak, eta irakasle, ikasle eta gurasoentzako oharrak... • Musika-hizkuntzako taldeen eta irakasleen antolaketa. • Pianoko ikasketa gela kudeatzea. • Kuoten kontrola egitea. • Espediente akademikoak kudeatzea. • Ziurtagiri akademikoak kudeatzea. • Klaustroko eta bestelako bileretako aktak idaztea. • Ikasleen kudeaketa administratiboa egitea (taldeak, zerrendak eta abar). • Argazkiak eta bideoak kudeatzea. • Telefonoa hartzea. • Ikasleen datu-basea eguneratuta edukitzea.	7.1. Funciones del/la secretario/a académico/a: • Gestionar la matriculación. • Gestionar el programa Inika: notas, matrículas, notas a profesores/as, alumnado y familias... • Organizar los grupos y profesorado de lenguaje musical. • Gestionar el aula de estudio de piano. • Realizar el control de las cuotas. • Gestionar los expedientes académicos. • Gestionar las certificaciones académicas. • Redactar las actas de claustros y otras reuniones. • Realizar la gestión administrativa del alumnado (grupos, listas, etc.). • Gestionar fotos y vídeos. • Atender el teléfono. • Mantener actualizada la base de datos del alumnado.
• Genero-datuak datu-baseetan gordetzea.	• Conservar los datos de género en las bases de datos.
• Kanpo-komunikazioa, webgunea eta sare sozialak kudeatzea (estereotiporik gabeko hizkuntza eta irudiak erabiliko dira komunikazioetan). • Esleitu dakizkiokeen bestelako eginkizunak.	• Gestionar la comunicación externa, la web y las redes sociales (se utilizará un lenguaje e imágenes no estereotipadas en las comunicaciones). • Otras funciones que le puedan ser asignadas.
8. artikulua. Irakasleen klaustroa Musika-eskolako irakasle guztiek osatzen dute irakasleen klaustroa. Klaustroaren lehendakaria musika-eskolako zuzendaria da, eta hura ez dagoenean, ikasketaburuak beteko ditu haren eginkizunak. Klaustroaren idazkaria musika-eskolako idazkari akademikoa da, eta hura ez	Artículo 8. Claustro de profesores/as El claustro de profesores/as está integrado por todos los profesores/as de la escuela de música. El/la presidente/a del claustro es el/la directora/a de la escuela de música, y, en su ausencia, sus funciones serán ejercidas por el/la jefe/a de estudios. El/la secretario/a del claustro es el/la secretario/a

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

dagoenean, ikasketaburuak beteko ditu haren eginkizunak.	académico/a de la escuela de música, y, en su ausencia, sus funciones serán ejercidas por el/la jefe/a de estudios.
Klaustroa legez eratutzat joko da irakasle guztien erdiak gehi bat bertaratuz gero. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan, erabakiak baliozkoak izan daitezen. Nahitaez egon behar dute bileran idazkariak edo hark izendatutako ordezkoak.	El claustro se entenderá legalmente constituido por la asistencia de la mitad más uno de todo el profesorado. Este quórum deberá mantenerse durante toda la sesión para que los acuerdos sean válidos. Será obligatoria la asistencia a la reunión del/la secretario/a o persona en quien delegue.
Erabakiak bozketa arruntaren bidez hartuko dira, norbaitek isilpeko bozketa eskatu ezean. Aldeko botoen gehiengo soila edukita onartuko dira akordioak. Berdinketa izanez gero, beste bozketa bat izango da eta, berdinketak bere horretan jarraituz gero, lehendakari-kargua duenaren kalitatezko botoak erabakiko du.	Los acuerdos se adoptarán por votación ordinaria, salvo que alguien solicite votación secreta. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de votos a favor. En caso de empate, se procederá a una nueva votación y, en caso de persistir el empate, decidirá el voto de calidad del que ostente la presidencia.
Bost klaustro egingo dira ikasturte bakoitzean: bat hasieran, hiru ikasturtean zehar eta bat amaieran. Hala ere, behar bada, klaustro gehiago deitu ahal izango dira.	Se celebrarán cinco claustros por curso: uno al inicio, tres durante el curso y uno al final. No obstante, en su caso, podrán convocarse más claustros.
Deialdia gutxienez zortzi egun lehenago egingo da, premiazko kasuetan izan ezik; azken horietan, 48 ordu lehenago egingo da.	La convocatoria se realizará con una antelación mínima de ocho días, salvo en los casos de urgencia, en los que la antelación será de 48 horas.
Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan ez dauden gaiei buruz, salbu eta klaustroak, kideen legezko gehiengo osoaren botoarekin, premiazkotzat jotzen badu eta dagokion proposamena aurkezten bada.	No podrán adoptarse acuerdos sobre asuntos que no figuren en el orden del día, salvo que el claustro, con el voto de la mayoría absoluta legal de sus miembros, lo considere urgente y se presente la correspondiente propuesta.
7.1. puntuan aipatu den bezala, idazkari akademikoak edo hark eskuordetutako kideak jasoko ditu klaustroetako aktak. Ondoren, Inika aplikazioaren bidez bidaliko die akta irakasle guztiei. Akta hurrengo klaustroan onartuko da, gai-zerrendako lehenengo gaia izango da.	Tal y como se ha mencionado en el punto 7.1, las actas de los claustros serán levantadas por el/la secretario/a académico/a o la persona en quien delegue. Posteriormente, enviará el acta a todo el profesorado a través de la aplicación Inika. El acta se aprobará en el siguiente claustro, siendo el primer asunto del orden del día.
8.1. Irakasleen klaustroaren funtzioak: • Musika-eskolako hezkuntza-proiektua landu eta onartzea. • Musika-eskolako ikasketa-plana landu eta onartzea. • Musika-eskolako AJA landu eta onartzea.	8.1. Funciones del claustro de profesores/as: • Elaborar y aprobar el proyecto educativo de la escuela de música. • Elaborar y aprobar el plan de estudios de la escuela de música.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

• Ekintzen Plan Orokorrarekin bat datozen irizpideak proposatzea. • Urteko plana eta ikasturte amaierako memoriaren gauzatze-prozesuan parte hartzea. • Urteko planari eta ikasturte amaierako memoriari oniritzia ematea. • Irakasleen formakuntzarako proposamenak egitea. • Plazak sortzeko edo aldatzeko proposamenak egitea zuzendaritzari. • Irakaskuntzari eta ikasleei buruz azaltzen diren zalantzazko kasuetan erabaki eta iritzia ematea. • Ebaluazio-lana, ikasleen errekuperazioa eta ikasle berriak onartzeko hautaproba-irizpideak finkatzea eta koordinatzea.	• Elaborar y aprobar el ROF de la escuela de música. • Proponer criterios acordes con el Plan General de Actuación. • Participar en la ejecución del plan anual y de la memoria final de curso. • Dar el visto bueno al plan anual y a la memoria de fin de curso. • Elaborar propuestas para la formación del profesorado. • Proponer a la dirección la creación o modificación de plazas. • Decidir y opinar en los casos dudosos que se planteen sobre la enseñanza y el alumnado. • Establecer y coordinar la labor de evaluación, la recuperación del alumnado y los criterios de prueba selectiva de admisión.
• Egokiak iruditzen zaizkien bezainbeste proposamen eta txosten aurkeztea zuzendaritzari.	• Presentar a la dirección cuantas propuestas e informes estimen pertinentes.
• Esleitu dakizkiekeen bestelako eginkizunak.	• Otras funciones que les puedan ser asignadas.
9. artikulua. Didaktika-departamentuak Musika-eskola didaktika-departamentutan egituratuta dago, ematen diren ikasgaien arabera.	Artículo 9. Departamentos didácticos La escuela de música se estructura en departamentos didácticos, en función de las materias impartidas.
Hauek dira musika-eskolako didaktika-departamentuak: 1. Haria. 2. Haize-egurra. 3. Haize-metala. 4. Perkusioa. 5. Teklatuak, 6. Tradizionalak. 7. Kantua. 8. Musika-tailerra eta musika-hizkuntza. 9. Ikasgai osagarriak. 10. Etorkizunean sortzen direnak eta aurrekoekin lotuta ez dauden guztiak, hala nola joera modernoak eta abar.	Los departamentos didácticos de la escuela de música son: 1. Cuerda. 2. Viento madera. 3. Viento metal. 4. Percusión. 5. Teclados. 6. Tradicionales. 7. Canto. 8. Taller de música y lenguaje musical. 9. Asignaturas complementarias. 10. Las que surjan en el futuro y todas las que no estén relacionadas con las anteriores, como las tendencias modernas, etc.
9.1. Didaktika-departamentuen funtzioak:	9.1. Funciones de los departamentos didácticos:

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

• Plan pedagogiko orokorra egitea. • Hezkuntza-helburuak finkatzea. • Eduki hezigarriak mugatzea. • Ebaluazio-irizpideak eta eskatuko diren gutxieneko edukiak zehaztea. • Musika-eskolako hezkuntza-eskaintzako irizpideak proposatzea, eskariaren nahiz sustatu nahi den eskaintzaren arabera.	• Elaborar el plan pedagógico general. • Fijar los objetivos educativos. • Delimitar los contenidos educativos. • Delimitar los criterios de evaluación y los contenidos mínimos exigidos. • Proponer criterios para la oferta educativa de la escuela de música en función de la demanda y de la oferta que se desee promover.
• Ekintzak antolatzea, bai ikasleentzat (kontzertuak, entzunaldiak…) bai irakasleentzat (ikastaroak, kongresuak…). • Behar diren instrumentuak eta baliabide didaktikoak antolatzea eta aukeratzea. • Ikasle berrien hautaprobetan erabiliko diren irizpide teknikoak finkatzea.	• Organizar actividades tanto para el alumnado (conciertos, audiciones...) como para el profesorado (cursos, congresos...). • Organizar y seleccionar los instrumentos y recursos didácticos necesarios. • Establecer los criterios técnicos que se utilizarán en las pruebas de acceso del nuevo alumnado.
• Ebaluazio-metodoak eta probak antolatzea eta egitea. • Proben emaitzak aztertzea erabilitako metodologiak eraginkorrak edo desegokiak diren jakiteko, eta zuzentzeko eta hobetzeko neurriak hartzeko.	• Organizar y realizar los métodos y pruebas de evaluación. • Analizar los resultados de las pruebas para detectar metodologías eficaces o inadecuadas, y adoptar medidas de corrección y mejora.
9.2. Didaktika-departamentuen arduradunak Arduradun bat egongo da irakasle bat baino gehiago dagoen didaktika-departamentu bakoitzean.	9.2. Responsables de los departamentos didácticos Habrá un/a responsable en los departamentos didácticos que cuenten con más de un/una profesor/a.
9.2.1. Didaktika-departamentuetako arduradunen funtzioak: • Espezialitateko irakasleak koordinatzea.	9.2.1. Funciones de los/as responsables de los departamentos didácticos: • Coordinar al profesorado de la especialidad.
• Metodoen eta programazioen jarraipena egitea. • Bileretako deialdia egitea, eta bilerak zuzentzea. • Didaktika-departamentuetan landuko diren gaiak prestatzea eta antolatzea. • Programak eta ondorengo ebaluazioak betetzen direla bermatzea. • Zuzendariari ematea landutako gaiei buruzko informazioa, eta, beharrezkoa	• Realizar el seguimiento de métodos y programaciones. • Convocar y dirigir las reuniones. • Preparar y organizar los temas a tratar en los departamentos didácticos. • Garantizar el cumplimiento de los programas y de las evaluaciones posteriores. • Informar al/la director/a sobre los temas tratados y, en su caso, proponer medidas cautelares en el claustro de profesores/as.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

balitz, irakasleen klaustroan badaezpadako neurriak lantzea.	
• Zuzendariari laguntzea ikastetxeko antolaketa-lanetan.	• Colaborar con el/la director/a en las tareas organizativas del centro.
10. artikulua. Administrazio-unitatea Administrazio-unitatearen eginkizuna da hartzen diren kudeaketa-akordioak gauzatzea.	Artículo 10. Unidad administrativa Corresponde a la unidad administrativa la ejecución de los acuerdos de gestión que se adopten.
10.1. Administrazio-unitatearen funtzioak:	10.1. Funciones de la unidad administrativa:
• Matrikulazioa kudeatzea. • Matrikulazio-kanpainarako dokumentazioa prestatzea. • Ikasleen datu-basea eguneratuta mantentzea. • Telefonoa hartzea. • Hainbat baliabide material edo/eta didaktikoren erosketak tramitatzea. • Tasen errolda prestatzea. • Kanpo-komunikazioari, webguneari eta sare sozialei dagozkien gaiak bideratzea. • Bere lan-kategoriari dagozkion eta horretarako prestatua dagoen beste edozein lan egitea. • Emanaldietarako eskuko programak eta kartelak prestatzea. • Datu-baseetan genero-datuak gordetzea.	• Gestionar la matriculación. • Preparar la documentación para la campaña de matriculación. • Mantener actualizada la base de datos del alumnado. • Atender el teléfono. • Tramitar la compra de diversos recursos materiales y/o didácticos. • Elaborar el censo de tasas. • Canalizar temas de comunicación externa, web y redes sociales. • Realizar cualesquiera otras tareas propias de su categoría profesional y que estén preparadas para ello. • Preparar los carteles y programas de mano para las actuaciones. • Recopilar datos desagregados por género en las bases de datos.
II. TITULUA	**TÍTULO II**
IRAKASLEAK	**PROFESORADO**
1. ATALA. LANALDIA	**SECCIÓN 1ª. JORNADA LABORAL**
11. artikulua. Irakasleen urteko lan-egutegia. Udalhitz hitzarmenak dioen moduan, musika-eskolako urteko lan-egutegiak 187 lanegun izango ditu, eta horietako 175 eskola-egunak izango dira, hau da, eskolak emateko edo ikasleekin bestelako jarduerak egiteko egunak. Gainontzeko 12 egunak ikaslerik gabeko bestelako lanetarako izango dira.	Artículo 11. Calendario laboral anual del profesorado. Tal y como señala el convenio Udalhitz, el calendario laboral anual de la escuela de música constará de 187 días laborables, de los cuales 175 serán días lectivos, es decir, destinados a impartir clases u otras actividades con el alumnado. Los 12 días restantes se destinarán a otros trabajos sin presencia de alumnos o alumnas.
Ikasturtea kontuan hartuta, irailaren 1etik ekainaren 30era artekoa izango da urteko lan-egutegia.	Teniendo en cuenta el curso escolar, el calendario laboral anual será del 1 de septiembre al 30 de junio.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Horrez gain, hau izango da urteko 1.592 lanorduen banaketa: • 1.122 ordutan zentroan bertan egon beharko dute irakasleek. • Zentroko titularra eta langileen ordezkariak ados jarri ondoren, aparteko 60 ordu erabili ahal izango dira ikasturteko une zehatzetan: azterketak prestatzeko, matrikulaziorako, jaialdietarako, musikaren egunerako, Eguberri bezpera egunerako, txangoetarako eta abarrerako. • «Zentroan egon gabeko» 410 ordu, profesionaltasuna mantentzeko, irakaskuntza-lanari dagozkion zereginak betetzeko eta zerbitzuaren ordu-koadroen bereizgarritasuna konpentsatzeko.	Además, la distribución de las 1.592 horas anuales de trabajo será la siguiente: • 1.122 horas de permanencia del profesorado en el centro. • Previo acuerdo entre el/la titular del centro y los/as representantes de los trabajadores, se podrán utilizar 60 horas extraordinarias en momentos concretos del curso: preparación de exámenes, matriculación, festivales, día de la música, víspera de Navidad, excursiones, etc. • 410 horas de «no permanencia en el centro» para el mantenimiento de la profesionalidad, el desempeño de las tareas propias de la labor docente y la compensación de la singularidad de los cuadros horarios del servicio.
12. artikulua. Irakasleen asteko lanaldia Asteko lanaldia 30 ordukoa izango da. Klase teorikoak edo praktikoak emateko eta era guztietako probak (ahozkoak, idatzizkoak, instrumentalak) egiteko erabiliko diren orduak eskola-orduak izango dira: 24 edo 25 ordu, kasuan-kasuan. Taldeko irakasgaiak dituzten irakasleek (musika-tailerrak, musika-hizkuntza, osagarriak, abesbatza, eta talde instrumentalak) eskola-orduen murrizketa izan dezakete, eta asteko eskola-orduak 24 izango dira.	Artículo 12. Jornada semanal del profesorado La jornada semanal será de 30 horas. Las horas dedicadas a la impartición de clases teóricas o prácticas y a la realización de todo tipo de pruebas (orales, escritas, instrumentales) serán lectivas: 24 o 25 horas, según el caso. El profesorado con asignaturas grupales (talleres musicales, lenguaje musical, complementos, coro y grupos instrumentales) podrá ver reducida su jornada lectiva a 24 horas lectivas semanales.
Gainontzeko orduak, 5 edo 6 ordu kasuan-kasuan, osagarriak izango dira (eskolarik gabeko orduak).	El resto de horas, 5 o 6 según el caso, serán complementarias (horas no lectivas).
13. artikulua. Ordu-murrizketa ikastetxeko zuzendaritza-taldeko karguagatik Zuzendaritza-taldeko ardura bat (zuzendaria, ikasketa-burua edo idazkari akademikoa) duen irakasleak eskolarik gabeko orduen murrizketa eta ordainsari osagarriak izango ditu, hitzarmenean ezartzen denaren arabera. Era berean, zuzendaritza-taldeko irakasleek astean 33 orduko lanaldi presentziala izango dute, 30 ordukoa izan beharrean.	Artículo 13. Reducción horaria por cargo en el equipo directivo del centro El/la profesor/a con una responsabilidad en el equipo directivo (director/a, jefe/a de estudios o secretario/a académico/a) tendrá una reducción de horas lectivas y retribuciones complementarias según se establezca en convenio. Asimismo, el profesorado del equipo directivo tendrá una jornada semanal de 33 horas presenciales en lugar de 30 horas.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

14. artikulua. Ordu-murrizketak proiektu espezifikoengatik Eskola-orduak murriztu ahal izango dira zuzendaritzaren iritziz musika-eskolarentzat interes orokorrekoak diren proiektu espezifikoak egiteko.	Artículo 14. Reducciones horarias por proyectos específicos Se podrán reducir las horas lectivas para la realización de proyectos específicos que, a juicio de la dirección, sean de interés general para la escuela de música.
2. ATALA. ORDUTEGIAK	**SECCIÓN 2ª. HORARIOS**
15. artikulua. Ordutegiak prestatzeko prozesua Zuzendariaren ardura da ordutegiak prestatzeko prozesua eta horiek kontrolatzea, eta eskolaren interesen arabera eta ikastetxeko ordutegiak kontuan izanda prestatuko dira.	Artículo 15. Proceso de elaboración de horarios El proceso de elaboración de los horarios y su control corresponde al/la director/a y se elaborarán en función de los intereses de la escuela y de los horarios del centro.
Irakasle bakoitzaren ordutegi partikularrak egiterakoan, kontuan izango dira aurretik ezarritako ordutegi orokorrak , besteak beste: • Musika-hizkuntzako, abesbatzako, osagarriko eta talde instrumentaletako ordutegiak.	En la elaboración de los horarios particulares de cada profesor/a se tendrán en cuenta, entre otros, los horarios generales establecidos anteriormente: • Horarios de lenguaje musical, coro, complementario y grupos instrumentales.
Kontuan hartzeko irizpideak: • Bakarkako klaseetako ordutegiek inolaz ere ezin dute talka egin aurreko ataletan ezarritako ordutegiekin. • Musika-eskola ez dago behartua eskolaz kanpoko beste jarduera batzuen ordutegiak errespetatzera.	Criterios a tener en cuenta: • En ningún caso los horarios de las clases individuales podrán colisionar con los horarios establecidos en los apartados anteriores. • La escuela de música no está obligada a respetar otros horarios de actividades extraescolares.
• Irakasle bakoitzak zuzendariari emango dio bere ordutegia, gainbegira dezan. • Irakasleen ordutegi-koadroa bistan egongo da irakasle-gelan.	• Cada profesor/a entregará su horario al/la director/a para su supervisión. • El cuadro horario del profesorado estará a la vista en la sala de profesorado.
• Era berean, Udaleko Giza Baliabideen Azpisailera bidaliko da fitxaketen kontrola egiteko.	• Asimismo, se remitirá a la Subárea de Recursos Humanos municipal para llevar a cabo el control de fichajes.
• Zuzendaritzak osatuko du gelen erabilgarritasun-koadroa, ikasleek ikasteko erabil dezaten. Bertan, ikasle erabiltzaile guztien izenak eta orduak ezarriko dira, gelen kontrola eramateko.	• La dirección elaborará el cuadro de disponibilidad de las aulas para que el alumnado lo utilice para el aprendizaje. En él se establecerán los nombres y horas de todas las personas usuarias para llevar el control de las aulas.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

3. ATALA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	SECCIÓN 3ª. DERECHOS Y DEBERES
16. artikulua. Irakasleen eskubideak Honako eskubide hauek izango dituzte lan-alorreko legeek onarturikoez gain, irakasleek:	Artículo 16. Derechos del profesorado Además de los derechos reconocidos por la legislación laboral, el profesorado tendrá los siguientes derechos:
• Instalazioak norbere laneko eginkizunetarako erabiltzea. • Norbere ordutegia prestatzea musika-eskolaren irizpideei jarraituz.	• Utilizar las instalaciones para tareas propias de su labor. • Elaborar su propio horario según los criterios de la escuela de música.
• Norbere eginkizunak betetzeko behar den materiala edukitzea. • Segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan lan egitea. • Berdintasunari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza jasotzea.	• Disponer del material necesario para el ejercicio de sus funciones. • Trabajar en condiciones de seguridad e higiene adecuadas. • Recibir formación en materia de igualdad y prevención de la violencia.
• Klaustro-bileretan parte hartzea.	• Asistir y participar en las reuniones de claustro.
• Kontzertuetan edo bestelako jardueretan aritu ahal izatea, jarduera sortzaileetan parte hartu ahal izatea eta bere espezialitateko ikastaro edo kongresuetara joan ahal izatea, gaitasun artistiko eta pedagogikoa eguneratuta izateko helburuarekin, betiere irakaskuntza-jarduerari kalterik egin gabe. • Aurreikusitako ordutegia aldatu ahal izatea, zuzendaritzari aldez aurretik eskatuta.	• Poder actuar en conciertos u otras actividades, participar en actividades creativas y asistir a cursos o congresos de su especialidad, con el fin de mantener actualizada su capacidad artística y pedagógica, sin menoscabo de la actividad docente. • Poder modificar el horario previsto, previa solicitud a la dirección.
17. artikulua. Irakasleen betebeharrak Lan-harremanaren ondoriozkoez gain, honako betebehar hauek izango dituzte irakasleek:	Artículo 17. Obligaciones del profesorado Además de las derivadas de la relación laboral, el profesorado tendrá las siguientes obligaciones:
• Puntualtasunez ematea eskola guztiak. • Norbere ordutegia prestatzea musika-eskolaren irizpideei jarraituz. • Klaseetan ordena eta diziplina mantentzea eta aprobetxamendua sustatzea, eta zuzendaritzari eta ikasleen arduradunei ematea (gurasoak edo tutoreak) gertatzen diren gorabehera guztien berri.	• Impartir todas las clases con puntualidad. • Elaborar su propio horario según los criterios de la escuela de música. • Mantener el orden y la disciplina en las clases, así como fomentar su aprovechamiento, informando a la dirección y a los responsables del alumnado (padres, madres o tutores/as) de todas las incidencias que se produzcan.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

• Ikasleen ebaluazio-txostenak prestatzea; txosten horietan jasoko dira asistentzia, aprobetxamendua eta bilakaera. • Esleitzen dizkieten ikasleen tutore izatea. • Ikasleak edota ikasleen arduradunak hartzea ezarritako arreta-ordutegian.	• Elaborar informes de evaluación del alumnado que recojan la asistencia, el aprovechamiento y la evolución. • Ejercer la tutoría del alumnado que les sea asignado. • Atender al alumnado y/o a sus responsables en el horario de atención establecido.
• Laneko zereginei buruz eskatzen dizkioten txostenak egitea. • Irakasleen klaustroetara, ebaluazio-saioetara, pedagogia-bileretara eta deitutako bestelako bileretara joatea. Bertaratu ezin denean, aurrez jakinarazi beharko zaio zuzendaritzari, idatziz, behar bezala arrazoituta.	• Elaborar los informes que le sean requeridos sobre las tareas del trabajo. • Asistir a los claustros de profesores, sesiones de evaluación, reuniones pedagógicas y otras reuniones convocadas. Cuando no pueda asistir, deberá comunicarse previamente por escrito a la dirección, justificándolo debidamente.
• Musika-eskolaren arauak betetzea, alde batera utzita desadostasunen berri eman dezakeela. • III. ziklotik aurrera, irakaslea ebaluatzeko inprimakia ikaslearen eskura jartzea ikasturte amaieran.	• Cumplir las normas de la escuela de música, independientemente de que pueda informar de las discrepancias. • A partir del ciclo III, poner a disposición del/la alumno/a el impreso de evaluación del/la profesor/a a final de curso.
17.1. Tutoreak: Ikasle bakoitzaren tutorea espezialitateko irakaslea izango da. 17.1.1. Tutoreen funtzioak izango dira: • Ikaslearen beste ikasgaietako irakasleekin harremana izatea eta jarraipena egitea. • Ikaslearen gurasoekin edo legezko arduradunekin ebaluazio-bilerak egitea. Eskolako erreferentzia-irakaslea tutorea izango da. • Ikasleen inguruan sor daitekeen beste edozein egoera bereziren aurrean, zuzendaritzarekin gaia lantzea.	17.1. Tutores/as: El/la tutor/a de cada alumno/a será el/la profesor/a de la especialidad. 17.1.1. Serán funciones de los/as tutores/as: • Mantener la relación y el seguimiento con el profesorado de otras materias del alumnado. • Realizar reuniones de evaluación con los padres y las madres o responsables del/la alumno/a. El/la profesor/a de referencia de la escuela será el/la tutor/a. • Trabajar con la dirección el tema ante cualquier otra situación especial que pueda surgir en el entorno del alumnado.
III. TITULUA	TÍTULO III
IKASLEAK	ALUMNADO
1. ATALA. IKASLE ERREFORTZUDUNAK	SECCIÓN 1ª. ALUMNADO CON REFUERZO
18. artikulua. Ikasle errefortzudunak	Artículo 18. Alumnado con refuerzo

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Ikasle errefortzudunak ikasketa profesionaletara bideratuko diren ikasleak dira. Horretarako, aurretik adostu beharko dute errefortzua aurrera eramateko konpromisoa zuzendaritzaren, errefortzu-ikasgaietako irakaslearen, tutorearen eta ikaslearen artean. Ikasketa horiek bi ikasturtetan gauzatuko dira, eta ikasgai hauek izango dituzte: • Instrumentu nagusia (astean 60 minutu).	El alumnado con refuerzo es aquel que se orientará a estudios profesionales. Para ello, previamente deberán consensuar el compromiso de llevar a cabo el refuerzo entre la dirección, el profesorado de las asignaturas de refuerzo, el/la tutor/a y el/la alumno/a. Estos estudios se desarrollarán en dos cursos académicos y constarán de las siguientes materias: • Instrumento principal (60 minutos semanales).
• Instrumentu osagarria (astean 45 minutu).	• Instrumento complementario (45 minutos semanales).
• Ikasgai teorikoak (astean 60 minutu). • Talde-jarduera.	• Asignaturas teóricas (60 minutos semanales). • Actividad grupal.
2. ATALA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	SECCIÓN 2ª. DERECHOS Y DEBERES
19. artikulua. Erreferentzia-esparrua Ikasle guztiek dituzte eskubide eta betebehar berberak, adinaren, zikloaren eta mailaren arabera; eskubide eta betebehar horiek errespetatu beharko dituzte gobernu-organoek zein musika-eskolak.	Artículo 19. Marco de referencia Todo el alumnado tiene los mismos derechos y obligaciones, en función de su edad, ciclo y nivel, que deberán ser respetados tanto por los órganos de gobierno como por la escuela de música.
20. artikulua. Ikasleen eskubideak • Norbere duintasuna errespetatua izatea, inolako tratu iraingarririk jaso gabe. • Eskola-errendimendua objektibotasun-irizpideen arabera baloratua izatea, eta horren berri jasotzea, balorazio-txostenen eta aurrez aurreko bileren bidez.	Artículo 20. Derechos del alumnado • El respeto a su dignidad, sin que pueda recibir trato vejatorio alguno. • Que el rendimiento escolar sea valorado con criterios de objetividad y a que se le informe de ello mediante informes de valoración y reuniones presenciales.
• Ikastetxeko zuzendaritza-organoetan ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak egitea. • Ezarritako ordutegi akademikoa errespetatzea, eta irakaskuntza-jarduera eteten denean behar besteko aurrerapenarekin jakinarazpena jasotzea. • Kalitatezko irakaskuntza jasotzea eta helburu horretarako ikastetxean dauden baliabide materialak erabiltzea. • Musika-eskolako dokumentazioa (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua,	• Formular iniciativas, sugerencias o reclamaciones ante los órganos directivos del centro. • Al respeto del horario académico establecido y a recibir comunicación con la suficiente antelación en los casos de suspensión de la actividad docente. • Recibir una enseñanza de calidad y a utilizar los recursos materiales existentes en el centro para este fin. • Acceder a la documentación de la escuela de música (Proyecto Educativo de Centro,

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Antolamendu eta Jarduera Araudia, Urteko Kudeaketa Plana, ordutegiak, ikasketa-programak eta abar) eskuragarri izatea.	Reglamento de Organización y Funcionamiento, Plan Anual de Gestión, horarios, programas de estudios, etc.).
21. artikulua. Ikasleen betebeharrak • Musika-eskolako arautegia onartzea eta betetzea. • Hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.	Artículo 21. Deberes del alumnado • Aceptar y cumplir la normativa de la escuela de música. • Respetar los derechos y libertades de las demás personas que integran la comunidad educativa.
• Irakasgaien klaseetara eta taldeko entseguetara joatea. • Ezarritako ordutegia errespetatzea. • Zuzendaritzaren eta irakasleen xedapenak eta aginduak betetzea, eta irakaskuntza-araubideari, ordenaari eta barne-diziplinari buruzko arauak ere betetzea. • Musika-eskolari emandako datuetan izandako aldaketen berri ematea (helbidea, telefono-zenbakia, eta abar).	• Asistir a las clases y ensayos grupales de las asignaturas que cursan. • Respetar el horario establecido. • Cumplir las disposiciones y órdenes de la dirección y del profesorado, así como las normas sobre régimen de enseñanza, orden y disciplina interna. • Informar de los cambios en los datos facilitados a la escuela de música (dirección, teléfono, etc.).
• Eraikinari edo musika-eskolako materialari eragindako kalteak konpontzea edo birjartzea.	• Reparar o reponer los daños causados en el edificio o en los materiales de la escuela de música.
• Musika-eskolak ezarritako epean, dagozkion kuotak ordaintzea. Ordainketei dagokienez, GAOn urtero argitaratzen diren udal-ordenantzetan onartutakoa betetzea.	• Abonar las cuotas correspondientes en el plazo establecido por la escuela de música. En cuanto a los pagos, cumplir con lo aprobado en las ordenanzas municipales que anualmente se publican en el BOG.
• Behar adina denboran ikastea, jasotako irakaskuntzak behar bezala aprobetxatzeko. Behar bezala ez dituela aprobetxatzen egiaztatuz gero, ikasleak eskubidea gal dezake hurrengo ikasturtean matrikula berritzeko.	• Dedicar el tiempo de estudio necesario para el aprovechamiento adecuado de las enseñanzas recibidas. Si se comprueba que no las aprovecha correctamente, el/la alumno/a puede perder el derecho a renovar la matrícula en el curso siguiente.
Horretarako, prozedura ondorengoa izango da: Irakasleak zuzendaritzari eta ikasleari edo/eta bere arduradunei emango die egoeraren berri, eta ikaslearekin edo/eta haren arduradunekin landuko du gaia.	Para ello, el procedimiento será el siguiente: El/la profesor/a informará a la dirección y al/la alumno/a y/o a sus responsables de la situación y tratará el tema con el/la alumno/a y/o con sus responsables.
Egoerak bere horretan jarraitzen badu, zuzendaritzak idatzizko jakinarazpen bat bidaliko die ikasleari edo/eta haren arduradunei, datorren ikasturtean	En caso de persistir la situación, la dirección enviará una comunicación por escrito al/la alumno/a y/o a sus

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

matrikula berritzeko eskubidea galtzeko arriskuaren berri emateko.	responsables informándoles del riesgo de pérdida del derecho a renovar la matrícula el próximo curso.
Arazoa konpontzen ez bada, zuzendaritzak idatzizko jakinarazpen bat bidaliko die ikasleari edo/eta bere arduradunei, datorren ikasturtean matrikula berritzeko eskubidea galdu duela jakinarazteko.	En caso de que no se solucione el problema, la dirección enviará una comunicación escrita al/la alumno/a y/o a sus responsables informándoles de la pérdida del derecho a renovar la matrícula el próximo curso.
3. ATALA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA	SECCIÓN 3ª. RÉGIMEN DISCIPLINARIO
22. artikulua. Arau-hausteak Ikasleen arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. 1. Hauek dira arau-hauste arinak:	Artículo 22. Infracciones Las infracciones del alumnado se clasifican en leves, graves y muy graves. 1. Son infracciones leves:
• Justifikatu gabeko puntualtasun-faltak eta asistentzia-hutsegiteak. • Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalte ez larriak eragitea musika-eskolako lokalari, materialari edo dokumentuei.	• Las faltas de puntualidad y asistencia no justificadas. • Causar daños no graves como consecuencia del uso indebido del local, material o documentos de la escuela de música.
• Orokorrean, araubide honetan aipatzen diren betebeharrak ez betetzea. • Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakakoa edo taldekoa, baldin eta musika-eskolako ohiko jarduna modu arinean kaltetzen badu.	• Con carácter general, el incumplimiento de las obligaciones a que se refiere este régimen. • Cualquier otra acción no justificada, individual o colectiva, que afecte levemente a la actividad normal de la escuela de música.
2. Hauek dira arau-hauste larriak: • Ikasturte berean, justifikatu gabeko 7 asistentzia-hutsegite. • Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako diziplina-hausteak, irainak edo ofentsak.	2. Son infracciones graves: • Acumular 7 faltas no justificadas de asistencia en el mismo curso. • Las infracciones disciplinarias, injurias u ofensas a los miembros de la comunidad educativa.
• Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako eraso fisikoak. • Hezkuntza-komunitateko gainerako kideen ondasunei kalteak eragitea, horiek behar ez bezala erabiltzeagatik. • Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakakoa edo taldekoa, baldin eta musika-eskolako ohiko jarduna modu larrian kaltetzen badu.	• Agresiones físicas a miembros de la comunidad educativa. • Causar daños a los bienes de los demás miembros de la comunidad educativa por uso indebido de los mismos. • Cualquier otra acción no justificada, individual o colectiva, que perjudique gravemente la actividad habitual de la escuela de música.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

• Ikasturte berean hiru arau-hauste arin egitea.	• La comisión de tres infracciones leves en el mismo curso escolar.
3. Hauek dira arau-hauste oso larriak: • Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako diziplina-hauste, irain edo ofentsa oso larriak.	3. Son infracciones muy graves: • Las infracciones disciplinarias, injurias u ofensas muy graves contra los miembros de la comunidad educativa.
• Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako eraso fisiko oso larriak, sexu-erasoak, eraso sexistak eta diskriminatzaileak. • Hezkuntza-ekintzetan beste norbaiten lekua hartzea eta dokumentu akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. • Hezkuntza-komunitateko kideen osasun eta osotasun pertsonalerako ekintza oso kaltegarriak bultzatzea edo egitea.	• Agresiones físicas muy graves, sexuales, sexistas y discriminatorias contra los miembros de la comunidad educativa. • La suplantación de identidad en acciones educativas y la falsificación o sustracción de documentos académicos. • Promover o realizar acciones muy perjudiciales para la salud e integridad personal de los miembros de la comunidad educativa.
• Musika-eskolako lokalei, materialari, dokumentuei edo kideen ondasunei nahita kalte larriak eragitea. • Larritzat jotako arau-hausteak, baldin eta taldeka edo nahita egin badira.	• Causar intencionadamente daños graves a los locales, material, documentos o bienes de los miembros de la escuela de música. • Las infracciones calificadas como graves, cuando se produzcan de forma colectiva o intencionada.
• Ikasturte berean hiru arau-hauste larri egitea, banakakoak edo kolektiboak.	• La comisión de tres infracciones graves, individuales o colectivas, en el mismo curso académico.
Sexu-erasoak eta eraso sexistak Tolosako Udaleko Zerbitzu eta Eraikin Publikoetan Sexu Indarkeriari Aurre Egiteko Jarduera Protokoloaren arabera sailkatuko dira. Edozein motatako erasoa egitearen zergatia kolektibo zaurgarri bateko kide izatea baldin bada, arau-hauste oso larritzat joko da. Gatazkaren bat sortuko balitz, behar izanez gero, Hezkuntzako Ikuskaritzara ere joko da dagokion protokoloa aplikatzeko.	Las agresiones sexuales y sexistas se clasificarán de acuerdo con el Protocolo de Actuación Ante la Violencia Sexual en los Servicios y Edificios Públicos del Ayuntamiento de Tolosa. Se considerará infracción muy grave cualquier agresión que tenga como causa la pertenencia de la víctima a un colectivo vulnerable. En caso de conflicto, si fuera necesario, se acudirá también a la Inspección de Educación para seguir el protocolo establecido.
23. artikulua. Zigorrak Aurretik zerrendatutako arau-hausteengatik, honako zigor hauek ezar daitezke: Arau-hauste arinengatik:	Artículo 23. Sanciones Por las infracciones anteriormente enumeradas podrán imponerse las siguientes sanciones: Por infracciones leves:

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

• Ahoz edo idatziz ohartarazpena egitea eta erregistratzea, eta ikasleari edo/eta haren arduradunei jakinaraztea. Inguruabarren arabera, txosten zehaztua txertatuko da.	• Amonestación y registro verbal o escrito y comunicación al alumnado y/o a sus responsables. Se incorporará un informe detallado en función de las circunstancias.
Arau-hauste larriengatik: • Musika-eskolatik aldi baterako kanporatzea (astebete eta hilabete artean). • Musika-eskolatik ikasturte osorako behin betiko kanporatzea; horrek ekar dezake hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea galtzea ere.	Por infracciones graves: • Expulsión temporal de la escuela de música (entre una semana y un mes). • Expulsión definitiva de la escuela de música para todo el curso escolar, lo que puede suponer la pérdida del derecho a matricularse en el curso siguiente.
Arau-hauste oso larriengatik: • Musika-eskolatik betirako kanporatzea, eskolan musika ikasteko eskubidea betirako galtzea. Kalte materialik sortuz gero, arau-hausleak eragindako kalteak konpondu beharko ditu, edo konponketa ordaindu. Era berean, ikasleren batek musika-eskolako ondasunen bat lapurtuz gero, lapurtutakoa itzuli beharko du. Nolanahi ere, erantzukizun zibila gurasoena edo legezko tutoreena izango da, legeek xedaturikoaren arabera.	Por infracciones muy graves: • Expulsión definitiva de la escuela de música, pérdida definitiva del derecho a estudiar música en la escuela. En caso de daños materiales, quien haya cometido la infracción deberá reparar los daños causados o abonar el coste de la reparación. Asimismo, en el caso de sustracción de bienes de la escuela de música, se deberá devolver lo sustraído. En todo caso, la responsabilidad civil recaerá en los padres, las madres o tutores/as legales, de acuerdo con lo que dispongan las leyes.
24. artikulua. Zigor-jardunbidea • Zehapenak ezartzeko organo eskuduna musika-eskolako zuzendaritza izango da. • Zigor arinak ikaslea, irakaslea eta haren arduradunek diotena entzun ondoren ezarriko dira.	Artículo 24. Procedimiento sancionador • El órgano competente para imponer las sanciones será la dirección de la escuela de música. • Las infracciones leves se impondrán previa audiencia del/la alumno/a, del/la profesor/a y de sus responsables.
• Zigor larriak eta oso larriak ikaslea eta, adingabea bada, haren arduradunak entzuteko prozedura bideratu ondoren ezarriko dira. • Zigor arinak ikasturte horren amaieran iraungiko dira; larriak, bi urteko epean; eta oso larriak, hiru urteko epean. Betiere egin ziren egunetik aurrera zenbatuta.	• Las infracciones graves y muy graves se impondrán previa instrucción del procedimiento de audiencia al/la alumno/a y, en su caso, a sus responsables. • Las infracciones leves caducarán al final de dicho curso escolar; las graves, en el plazo de dos años; y las muy graves, en el plazo de tres años. Todas ellas contadas a partir de la fecha en que fueron cometidas.
• Halako jokabideak direla-eta ezarritako zigorrak urtebeteko epean iraungiko dira arau-hauste arinak badira; bi urteko epean	• Las sanciones impuestas por tales conductas caducarán en el plazo de un año si se trata de infracciones leves, de dos años

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

arau-hauste larriak badira; eta hiru urteko epean arau-hauste oso larriak badira. Guztiak, zigorra ezarritako egunetik aurrera zenbatuta. • Zigorrak ezartzerakoan kontuan izango dira ikaslearen adina, egoera pertsonala, familiarra eta soziala, eta zigorrak helburu hezigarri eta errekuperazioko izaera izango du.	si se trata de infracciones graves y de tres años si se trata de infracciones muy graves. Todos ellos contados a partir de la fecha de imposición de la sanción. • Las sanciones se impondrán en función de la edad, situación personal, familiar y social del/la alumno/a, y tendrán un carácter educativo y recuperativo.
• Zigorra ezartzerakoan, honako hauek balioetsiko dira:	• Para la imposición de la sanción se valorarán:
Inguruabar aringarriak: ○ Arau-haustea onartzea. ○ Lehendik bestelako zigorrik jaso ez izana. ○ Jendaurrean barkamena eskatzea. ○ Ez izatea asmorik egindakoaren neurriko kalterik egiteko.	Circunstancias atenuantes: ○ Reconocimiento de la infracción. ○ No haber sido sancionado con anterioridad. ○ Pedir disculpas en público. ○ No haber tenido intención de perjudicar en la medida de lo actuado.
Inguruabar larrigarriak: ○ Kaltea adinez txikiagoa den edo kolektibo zaurgarrikoa den pertsona bati egitea. ○ Kaltea sexu-erasoa edo sexu-jazarpena izatea.	Circunstancias agravantes: ○ Causar el daño a un menor de edad o a un colectivo vulnerable. ○ Que el daño sea agresión o acoso sexual.
○ Jakinaren gainean egitea. ○ Taldeko arau-haustea bultzatzea.	○ Hacerlo con conocimiento de causa. ○ Favorecer la infracción colectiva.
○ Eskolako ordezkaritza baliatzea arau-haustea egiteko. Arau-haustea musika-eskolaren esparrutik kanpo gertatzeak ez du galaraziko araudi hau erabiltzea, baldin eta eskolak programaturiko ekintza osagarri edo/eta eskolaz kanpokoetan gertatu bada.	○ Utilizar la representación en la escuela para cometer la infracción. La comisión de una infracción fuera del ámbito de la escuela de música no impedirá la aplicación de la presente normativa cuando se haya producido en actividades complementarias y/o extraescolares programadas por la escuela.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

25. artikulua. Klaseetara huts egitea Ikasleek eskolara joan beharra bermatzeko, ondoko arau hauek hartuko dira kontuan: • Irakasleek dute ardura ikasleek egiten dituzten hutsegiteak kontrolatzeko eta jakinarazteko. Hutsegiteak gertatzen diren unean jakinaraziko zaizkie ikasleei edo ikasleen ardura dutenei, Inika aplikazioaren bidez. Azken horiek, Inikaren bidez (baita telefonoz edo presentzialki ere) justifika ditzakete hutsegiteak, hutsegitearen arrazoia azalduta.	Artículo 25. Faltas a clases Para garantizar la asistencia del alumnado a clase se tendrán en cuenta las siguientes normas: • El profesorado es responsable del control y comunicación de las faltas que comete el alumnado. Las faltas se comunicarán a los/as responsables en el momento en que se produzcan, a través de la aplicación Inika. Estos últimos pueden justificar las faltas a través de Inika (incluso telefónicamente o presencialmente), debiendo explicar el motivo de la falta.
• Irakasleak hutsegiteen ondorioak jakinaraziko dizkio ikasleari, baimendutako hutsegiteen mugara heldu aurretik. • Ikasleak ikasturte berean justifikatu gabeko 7 huts egingo balitu eta araudi honetako 22. artikuluan aurreikusitako neurriekin zigortu beharko balitz, zuzendariak interesdunei jakinaraziko die.	• El/la profesor/a comunicará al/la alumno/a las consecuencias de las faltas antes de llegar al límite de faltas permitidas. • En el caso de que el/la alumno/a cometiera 7 faltas no justificadas en el mismo curso escolar y hubiera que sancionar con las medidas previstas en el artículo 22 de este Reglamento, el/la director/a se lo comunicará a las personas interesadas.
• Honako hauek joko dira hutsegite justifikatutzat:	• Se considerarán faltas justificadas:
○ Aldi baterako edo epe luzeko gaixotasuna. ○ Gertaera edo egoera pertsonal larriak edo ezohikoak. ○ Musika-eskolako beste edozein ekintzarekin bat etortzea.	○ Enfermedad temporal o a largo plazo. ○ Hechos o circunstancias personales graves o extraordinarios. ○ La coincidencia con cualquier otra acción de la escuela de música.
• Adingabeen hutsegiteak haien arduradunek justifikatu beharko dituzte (Inika bidez, telefonoz edo aurrez aurre). Ikasle helduek justifikatuko dituzte beren hutsegiteak.	• Las faltas de las personas menores de edad deberán ser justificadas por sus responsables (vía Inika, telefónica o presencial). El alumnado adulto justificará sus faltas.
• Ez dira hutsegite justifikatutzat joko eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetara joateagatik egindakoak. Nolanahi ere, kontsiderazio berezia izan ahalko dute aparteko eta puntualki egiten diren ekintzek, beste jardueretako entsegu bereziek edo kanpoan lo egitea dakarten eskola-txangoek.	• No se considerarán faltas justificadas las cometidas por asistencia a otras actividades extraescolares. En todo caso, podrán tener especial consideración las acciones que se lleven a cabo de forma extraordinaria y puntual, los ensayos especiales de otras actividades o las excursiones escolares que impliquen pernoctar fuera.
IV. TITULUA.	**TÍTULO IV.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

MUSIKA-ESKOLA KUDEATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK	HERRAMIENTAS DE GESTIÓN Y EVALUACIÓN DE LA ESCUELA DE MÚSICA
1. ATALA. HEZKUNTZA-ESKAINTZA	**SECCIÓN 1ª. OFERTA EDUCATIVA**
26. artikulua. Hezkuntza-eskaintza • Hezkuntza-eskaintza kudeaketa-tresna bat da, musika-eskolan dauden plazak zehazteko balio duena. • Zuzendaritzak zehaztuko du hezkuntza-eskaintza; espezialitate eta ikasgai bakoitzeko guztira dauden plazak adieraziko dira.	Artículo 26. Oferta educativa • La oferta educativa es una herramienta de gestión que sirve para determinar las plazas existentes en la escuela de música. • La dirección determinará la oferta educativa, indicando el total de plazas por especialidad y materia.
• Hezkuntza-eskaintzan hutsik dauden plazei buruzko informazioa emango zaio hala eskatzen duenari.	• Se informará a quien lo solicite sobre las plazas vacantes de la oferta educativa.
• Hezkuntza-eskaintza euskaraz egingo da oro har, eta euskararen erabilera sustatzea izango da zeharkako helburuetako bat; betiere, herritarrek aitortuta dituzten hizkuntza-eskubideei inolako kalterik eragin gabe.	• La oferta educativa se desarrollará con carácter general en euskera , siendo uno de los objetivos indirectos el fomento del uso del euskera, sin perjuicio de los derechos lingüísticos reconocidos a la ciudadanía.
2. ATALA. URTEKO KUDEAKETA-PLANA	**SECCIÓN 2ª. PLAN ANUAL DE GESTIÓN**
27. artikulua. Urteko Kudeaketa Plana Eskolako zuzendaritzak Urteko Kudeaketa Plana prestatuko du ikasturtea hasi aurretik, bermatzeko hezkuntza-ekintza guztiak era koordinatuan egingo direla, eskumenak behar bezala erabiliko direla eta kolektibo guztiek parte hartuko dutela.	Artículo 27. Plan Anual de Gestión La dirección de la escuela elaborará un Plan de Gestión Anual antes del inicio del curso escolar, con el fin de garantizar la realización coordinada de todas las acciones educativas, el correcto ejercicio de las competencias y la participación de todos los colectivos.
Urteko Kudeaketa Planak honako atal hauek izango ditu: 1. Arlo bakoitzerako helburuak eta planak. 2. Ikasturteko jarduera nagusien aurreikuspena. 3. Ikasturteko eskola-egutegia. 4. Ordutegi orokorrak. 5. Langileen urteko formakuntza-plana. 6. Ikasturtea kudeatzeko garrantzitsua den beste edozein informazio.	El Plan de Gestión Anual constará de los siguientes apartados: 1. Objetivos y planes para cada área. 2. Previsión de las principales actividades del curso. 3. Calendario escolar del curso. 4. Horarios generales. 5. Plan anual de formación del personal. 6. Cualquier otra información relevante para la gestión del curso.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

3. ATALA. URTEKO KUDEAKETA-TXOSTENA	SECCIÓN 3ª. INFORME ANUAL DE GESTIÓN
28. artikulua. Urteko Kudeaketa Txostena Musika-eskolako urteko kudeaketa azaltzen duen txostena eskola ebaluatzeko tresna da. Ebaluatuko du Urteko Kudeaketa Plana nola gauzatu den, baita ikasturtean izan diren gorabehera guztiak eta hurrengo Urteko Kudeaketa Planean jaso beharreko hobekuntza-proposamenak ere. Aipatutako txostenak honako hauek jasoko ditu:	Artículo 28. Informe Anual de Gestión El informe explicativo de la gestión anual de la escuela de música es un instrumento de evaluación escolar. Evaluará la ejecución del Plan Anual de Gestión, todas las incidencias que se hayan producido durante el curso y las propuestas de mejora a incluir en el próximo Plan Anual de Gestión. Dicho informe contendrá:
• Proposatutako helburuen eta planen balorazioa. • Egindako berrikuntza eta hobekuntza guztiei buruzko informazioa. • Egindako jardueren balorazioa (eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak barne).	• Valoración de los objetivos y planes propuestos. • Información sobre todas las novedades y mejoras realizadas. • Valoración de las actividades realizadas (incluidas las actividades extraescolares y complementarias).
• Langileen urteko formakuntza-planaren balorazioa. • Hurrengo Urteko Kudeaketa Planean sartu beharreko hobekuntza-proposamenak. • Amaitutako ikasturtean musika-eskolak egindako ekintza guztiak jasotzeko behar diren eranskinak (irakasleen txostenak, matrikula-datuak, sustapenak, bileren aktak, prentsan agertutako berriak…).	• Valoración del plan anual de formación del personal. • Propuestas de mejora a incluir en el próximo Plan de Gestión Anual. • Anexos necesarios para recoger todas las acciones realizadas por la escuela de música en el curso finalizado (informes del profesorado, datos de matrícula, promociones, actas de reuniones, noticias aparecidas en prensa...).
4. ATALA. MUSIKA-ESKOLAKO JARDUERAK	**SECCIÓN 4ª. ACTIVIDADES DE LA ESCUELA DE MÚSICA**
29. artikulua. Musika-eskolako ohiko jarduerak	Artículo 29. Actividades ordinarias de la escuela de música
Ohiko irakaskuntza-jarduera guztiak Urteko Kudeaketa Planak ezarritako ordutegira egokituko dira.	Todas las actividades docentes ordinarias se ajustarán al horario establecido por el Plan de Gestión Anual.
30. artikulua. Musika-eskolako ezohiko jarduerak	Artículo 30. Actividades extraordinarias de la escuela de música
Ezohiko jarduerak izanez gero, instalazioak erabili ahal izango dira musika-eskolako zuzendaritzak horretarako baimena emanez gero, baldin eta zentroaren helburuekin bat badatoz. Horretarako, zuzendaritzak behar beste baliabide jarriko ditu	En caso de tratarse de actividades extraordinarias, las instalaciones podrán ser utilizadas previa autorización de la dirección de la escuela de música, siempre que se ajusten a los objetivos de la misma. Para ello, la dirección pondrá los medios suficientes

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

instalazioak eskola-komunitate osoak erabili ahal izateko.	para que las instalaciones puedan ser utilizadas por toda la comunidad escolar.
Araudi honetan edo Urteko Kudeaketa Planean jasotako berariazko jarraibideak beteko dira instalazioak eta materiala erabiltzeko orduan.	El uso de las instalaciones y del material se realizará siguiendo las directrices específicas contenidas en la presente normativa o en el Plan de Gestión Anual.
5. ATALA. IRAKASLE-ALDAKETAK	**SECCIÓN 5ª. CAMBIOS DE PROFESORADO**
31. artikulua. Irakasle-aldaketak Antolaketa- edo/eta pedagogia-arrazoiengatik, musika-eskolak irakasle-aldaketak egin ahal izango dizkie ikasleei, aurrez ikasleak eskatu ez badu ere. Ikasleren batek irakasle-aldaketa eskatuko balu, pisuzko arrazoiak justifikatuz, musika-eskolak izango du eskumen horren inguruan erabakia hartzeko.	Artículo 31. Cambios de profesorado Por razones organizativas o pedagógicas, la escuela de música podrá realizar cambios de profesorado al alumnado, aunque no lo haya solicitado previamente. En el caso de que algún/a alumno/a solicite un cambio de profesor/a, justificando razones de peso, la escuela de música será competente para decidir al respecto.
V. TITULUA	**TÍTULO V**
MATRIKULAZIOA ETA IKASLEAK ONARTZEA	**MATRICULACIÓN Y ADMISIÓN DEL ALUMNADO**
1. ATALA. MATRIKULA	**SECCIÓN 1ª. MATRÍCULA**
32. artikulua. Matrikula 1. Matrikula da izangaia musika-eskolako ikasle bihurtzen duen dokumentu formala, eta haren bitartez bereganatuko ditu ikasleak dagozkion eskubideak eta betebeharrak.	Artículo 32. Matrícula 1. La matrícula es el documento formal que convierte al/la aspirante en alumno/a de la escuela de música y a través del cual éste adquiere los derechos y obligaciones que le corresponden.
2. Eskolan matrikula egiteko, musika-eskolak ezarritako baldintzak bete beharko dira, baita gerora onartzen diren legeek eta araudiek xedatzen dituzten beste guztiak ere.	2. La matrícula en la escuela se ajustará a los requisitos establecidos por la escuela de música, así como a los que dispongan las leyes y reglamentos que posteriormente se aprueben.
3. Kuoten ordainketari eta baja emateari dagokionez, udal-ordenantza fiskalak dioena bete beharko da, baita prezio-murrizketak eskatzeko eta jasotzeko ere.	3. El pago y baja de las cuotas se ajustará a lo dispuesto en la ordenanza fiscal municipal, así como a la solicitud y percepción de reducciones de precios.
4. Honako irakaskuntza mota hauek jasoko dira matrikulan: 1. zikloa — Tailerrak, musika-hizkuntza hasiera 2. zikloa — Musika-hizkuntza, instrumentua, taldea	4. La matrícula comprenderá las siguientes enseñanzas: 1º ciclo — Talleres, inicio lenguaje musical 2º ciclo — Lenguaje musical, instrumento, grupo

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

2. zikloa*	Instrumentua, taldea
3. zikloa	Osagarriak, instrumentua, taldea
3. zikloa*	Instrumentua, taldea
4. zikloa	Musika-taldea
4. zikloa instrumentuarekin	Musika-taldea, instrumentua
Errefortzurako ikasgai bereziak**	Teoria, instrumentua, instr. osagarria, taldea
Ikasgai teorikoak	Ohikoak ez direnak
Bigarren instrumentua	

2º ciclo*	Instrumento, grupo
3º ciclo	Complementos, instrumento, grupo
3º ciclo*	Instrumento, grupo
4º ciclo	Grupo de música
4º ciclo con instrumento	Conjunto musical, instrumento
Asignaturas especiales de refuerzo**	Teoría, instrumento, int. complemento, grupo
Asignaturas teóricas	No habituales
Segundo instrumento	

*Lehendik ikasketak gaindituta dituztenentzat **Errefortzurako ikasgaiak ikasketa profesionaletara bideratutako ikasleentzat dira.	* Personas con estudios ya superados ** Las asignaturas de refuerzo están dirigidas al alumnado orientado a estudios profesionales.
5. Ikasle bat gehienez bi instrumentutan matrikulatua egon daiteke aldi berean, baldin eta plaza librerik badago. Taldeetan parte hartzeak ez du mugarik. 6. Espezialitateetarako matrikula egiteko hurrenkera:	5. El alumnado podrá estar matriculado en un máximo de dos instrumentos simultáneamente, siempre que haya plazas libres. La participación en grupos no tiene límites. 6. Orden de matriculación para las especialidades:
1- Dagoeneko espezialitateko ikasketak egiten ari diren ikasleak. 2- Errefortzudun ikasleak.	1- Alumnado que cursa estudios de especialidad. 2- Alumnado con refuerzo.
3- Hasiera amaitu duten ikasleak. 4- Espezialitatea aldatu nahi duten ikasleak. 5- Ikasle berriak.	3- Alumnado que ha finalizado el inicio. 4- Alumnado que desea cambiar de especialidad. 5- Alumnado nuevo.
6- 4. zikloan instrumentuko bakarkako klasea ere egin nahi duten ikasleak eta espezialitate bat amaitu ondoren beste batean hasi nahi duten ikasleak.	6- Alumnado que quiera realizar también la clase individual de instrumento en el ciclo IV y alumnos/as que, una vez terminada una especialidad, quieran incorporarse a otra.
7- Bigarren espezialitatearekin hasi nahi duten ikasleak (lehenengoarekin jarraituta).	7- Alumnado que desee comenzar con una segunda especialidad (continuando con la primera).

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

TOLOSAKO UDALA

2. ATALA. IKASLE DIRENEN MATRIKULA BERRITZEA	**SECCIÓN 2ª. RENOVACIÓN MATRÍCULA ALUMNADO**
33. artikulua. Ikasle direnen matrikula berritzea	Artículo 33. Renovación de la matrícula del alumnado
1. Ikasleek eskubidea izango dute matrikula berritzeko, baldin eta eskolako baldintzak betetzen badituzte. 2. Ezin izango dute matrikula berritu musika-eskolako tarifaren bat ordaindu gabe dutenek.	1. Los/as alumnos/as tendrán derecho a la renovación de la matrícula siempre que cumplan los requisitos de la escuela. 2. No podrán renovar la matrícula quienes no tengan abonada alguna tarifa de la escuela de música.
3. Erabaki bada ikasturtean zehar jasotako irakaskuntzak nabarmen ez direla aprobetxatu, araudi honen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatuko da, eta matrikula berritzeko eskubidea galdu ahal izango da.	3. En el caso de que durante el curso se haya determinado que las enseñanzas recibidas no se han aprovechado sustancialmente, se procederá de acuerdo con lo previsto en el artículo 23 de este Reglamento, pudiendo perderse el derecho a la renovación de la matrícula.
4. Ikasleen matrikula automatikoki berrituko da hurrengo ikasturterako, ikasleak edo legezko tutoreak baieztatu ondoren, honako kasu hauetan izan ezik:	4. La renovación de la matrícula del alumnado será automática para el curso siguiente, previa confirmación del/la alumno/a o tutor/a legal, salvo en los siguientes casos:
• Musika-hizkuntza hasiera egin duten ikasleak, instrumentua aukeratu beharko baitute. • Errefortzuan hasiko diren ikasleak. • Instrumentua aldatu nahi duten ikasleak.	• El alumnado que ha realizado el inicio lenguaje musical, ya que deberá elegir el instrumento. • Alumnado que se incorpore al refuerzo. • Alumnado que quiera cambiar de instrumento.
• 4. zikloan instrumentuko bakarkako klasea ere egin nahi duten ikasleak eta espezialitate bat amaitu ondoren beste batean hasi nahi duten ikasleak. • Bigarren espezialitatea egin nahi duten ikasleak.	• Alumnado que quiera realizar también la clase individual de instrumento en el ciclo IV y aquellos/as que, tras finalizar una especialidad, deseen incorporarse a otra. • Alumnado que desee cursar una segunda especialidad.
Matrikula automatikoki berrituko ez zaien ikasleek 38. artikuluan zehaztutakoaren arabera egingo dute matrikula.	El alumnado al que no se le renueve automáticamente la matrícula deberá formalizarla según se especifica en el artículo 38.
34. artikulua. Matrikula berritzeko galdetegia eta jarraibideak jasotzea. 1. Matrikula berritzeko, galdetegia bidaliko zaie ikasleei edo haien legezko tutoreei. Eskatuko zaie baiezta dezatela matrikula berritzea, eta, hala badagokio, zuzendu ditzatela datuak.	Artículo 34. Recepción del cuestionario e instrucciones para la renovación de matrícula. 1. Se enviará el cuestionario de renovación de matrícula al alumnado o a sus tutores/as legales. En el mismo, se solicitará confirmación de la renovación de la matrícula y, en su caso, la subsanación de datos.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

2. Matrikula baieztatzen dutenei hurrengo ikasturteko ordutegiak esleituko zaizkie.	2. A quienes confirmen la matrícula se les asignarán los horarios del curso siguiente.
35. artikulua. Hezkuntza-eskaintza eguneratzea, eta errefortzudun eta hasierako ikasleen matrikula berritzea	Artículo 35. Actualización de la oferta educativa y renovación de la matrícula del alumnado con refuerzo y de inicio
Ikasle direnen erantzunen arabera, eguneratu egingo da espezialitateetan hutsik geratu diren plazen kopurua, errefortzudun ikasleentzat plazak gordetzeko. Ondoren, hasiera egin duten ikasleek aukeratuko dute espezialitatea.	En función de las respuestas del alumnado, se actualizará el número de plazas vacantes en las especialidades, para a continuación reservar plazas para los/as alumnos/as de refuerzo. Posteriormente, la selección de especialidad será realizada por los/as alumnos/as que hayan realizado el inicio.
Horretarako, hasiera egin duten ikasleei hezkuntza-eskaintzaren berri emango zaie Inika aplikazioaren bidez, espezialitatea aukeratu dezaten.	Para ello, se informará al alumnado que haya realizado el inicio sobre la oferta educativa a través de la aplicación Inika para que elijan la especialidad.
Espezialitateren batean eskaerak baino plaza gutxiago baleude, zozketa bidez esleituko lirateke plaza horiek. Horretarako, zozketarako deialdia egingo zaie ikasle horiei.	Si en alguna especialidad hubiera menos plazas que solicitudes, se adjudicarían por sorteo. Para ello, se convocará a estos/as alumnos/as a un sorteo.
Jarraian, errefortzudun ikasleei eta aukeratutako espezialitatean plaza dutenei bidaliko zaie Inika bidez matrikula berritzeko galdetegia, eta, baieztatu ondoren, ordutegiak esleituko dira.	A continuación, a los/as alumnos/as de refuerzo y a los que tengan plaza en la especialidad elegida, se les enviará el cuestionario de renovación de matrícula a través de Inika y una vez confirmado se adjudicarán los horarios.
Ikasle horiek matrikulatu ondoren, libre geratzen diren plazetarako honako hurrenkera hau errespetatuko da: 1. Instrumentua aldatu nahi dutenak (beharrezkoa bada, zozketa egingo da). 2. Ikasle berriak.	Tras la matriculación de estos/as alumnos/as, para las plazas que queden libres se respetará el siguiente orden: 1. Los/as interesados/as en cambiar el instrumento (en su caso, se realizará el sorteo). 2. Alumnado nuevo.
3. IV. zikloan instrumentuko bakarkako klasea ere egin nahi dutenak, edo espezialitate bateko ikasketak amaituta beste espezialitate batekin hasi nahi dutenak. 4. Bigarren instrumentua egin nahi dutenak (beharrezkoa bada, zozketa egingo da).	3. Quienes quieran realizar también la clase individual de instrumento en el ciclo IV, o que habiendo finalizado los estudios de una especialidad, quieran iniciarse en otra especialidad. 4. Los/as interesados/as en cursar un segundo instrumento (en su caso, se realizará el sorteo).
36. artikulua. Plazen zozketa Hutsik dauden plazak baino eskaera gehiago dituzten espezialitateetan, zozketa egingo da ikasle edo tutoreen aurrean. Zozketan plazarik tokatu ez	Artículo 36. Sorteo de plazas En las especialidades con mayor demanda que plazas vacantes, se realizará un sorteo ante el alumando o tutores/as legales. Los/as alumnos/as a

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

zaien ikasleek beste espezialitate bat aukeratu beharko dute matrikula egin ahal izateko. Hala ere, nahi izanez gero, erreserban geratuko dira, epe motzean plazaren bat libratuko balitz espezialitatea aldatzeko.	los/as que no les haya tocado plaza en el sorteo deberán elegir otra especialidad para poder matricularse. No obstante, si así lo desean, quedarán en reserva para realizar el cambio de especialidad en el caso de que a corto plazo se librara alguna plaza.
Zozketarako irizpideak: • Hasiera egin duten ikasleen kasuan, zozketarako zenbaki bat izango dute musika-eskolan egindako ikasturte bakoitzarengatik.	Criterios para el sorteo: • En el caso de alumnos/as que hayan finalizado el inicio, por cada curso cursado en la escuela de música, dispondrán de un número para el sorteo.
• Espezialitatea aldatu edo bigarrena egin nahi dutenen kasuan, bakoitzak zenbaki bakarra izango du zozketarako.	• En el caso de quienes tengan interés en cambiar de especialidad o realizar una segunda, cada persona tendrá un único número de sorteo.
37. artikulua. Ordutegiak 1. Eskolak zehazten duen epealdian (ikasturte amaieran), hurrengo ikasturterako ordutegiak esleituko dira.	Artículo 37. Horarios 1. En el periodo que determine la escuela (final de curso), se asignarán los horarios para el curso siguiente.
2. Aurreikusi gabeko arrazoiengatik gerta daitezkeen ordutegi-aldaketak irailean aztertuko dira, betiere musika-eskolaren aukerak kontuan hartuta.	2. Los cambios de horario que puedan producirse por causas imprevistas se estudiarán en el mes de septiembre, teniendo en cuenta las disponibilidades de la escuela de música.
3. ATALA. IKASLE BERRIEN MATRIKULA	**SECCIÓN 3ª. MATRÍCULA DEL NUEVO ALUMNADO**
38. artikulua. Ikasle berriak onartzeko faseak Ikasle berriak musika-eskolan onartzeko prozesuak honako fase hauek ditu:	Artículo 38. Fases de admisión de nuevo alumnado El proceso de admisión del nuevo alumnado en la escuela de música consta de las siguientes fases:
1. Hezkuntza-eskaintza eguneratzea - plaza hutsak.	1. Actualización de la oferta educativa - vacantes.
2. Maila zehazteko probak (behar direnean). 3. Espezialitateko ordutegiak aukeratzea. 4. Plazak esleitzea. 5. Matrikula eta baldintzak onartzea.	2. Pruebas de nivel (cuando proceda). 3. Elección de horarios de la especialidad. 4. Adjudicación de plazas. 5. Aceptación de matrícula y condiciones.
39. artikulua. Hezkuntza-eskaintza. Plaza hutsak	Artículo 39. Oferta educativa. Plazas vacantes

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Ikasleak direnen matrikula-prozesua amaitutakoan, musika eskolak hezkuntza-eskaintza eguneratuko du, zer plaza huts dauden adieraziz.	Una vez finalizado el proceso de matrícula del alumnado, la escuela de música actualizará la oferta educativa indicando las plazas vacantes existentes.
40. artikulua. Maila zehazteko proba Behar den kasuetan, ikasle berriei sarrera-proba bat egingo zaie, zein mailatan matrikulatu daitezkeen zehazteko. Musika-eskolak, hautagaiaren curriculuma edo egiaztagiriak ikusita, erabaki dezake maila zehazteko probatik salbuestea.	Artículo 40. Prueba de nivel Cuando sea necesario, se realizará una prueba de acceso al alumnado de nuevo ingreso para determinar el nivel en el que pueden matricularse. La escuela de música, a la vista del currículum o de los certificados acreditativos del/la candidato/a, podrá acordar la exención de la prueba de nivel.
41. artikulua. Espezialitateko ordutegiak aukeratzea. Musika-eskolak zehazten duen epealdian, espezialitateetako ikasle berriek beren irakasleekin adostuko dute hurrengo ikasturterako ordutegia. Ahalegina egingo da ordutegi-eskaintza egokitzeko, kontuan hartuz ikasle gazteenei dagozkien adin-tarteak eta musika-eskolatik bizilekurako distantzia.	Artículo 41. Elección de horarios de la especialidad. Durante el periodo que determine la escuela de música, el nuevo alumnado de las especialidades acordará con su profesorado el horario para el próximo curso. Se procurará adecuar la oferta horaria teniendo en cuenta los tramos de edad que corresponden al alumnado más joven y la distancia entre el domicilio y la escuela de música.
42. artikulua. Plazak esleitzea Plazak esleitzea izen-emate hurrenkeraren eta hutsik dauden plazen arabera egingo da.	Artículo 42. Adjudicación de plazas La adjudicación de las plazas se realizará en función del orden de inscripción y de las plazas vacantes.
43. artikulua: Matrikula egiteko baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa 1. Eskolak epe bat ezarriko du, interesa duten pertsonek musika-eskolan ikasteko eskaera egin dezaten.	Artículo 43. Requisitos de matrícula y documentación a presentar 1. La escuela establecerá un plazo para que las personas interesadas soliciten estudiar en la escuela de música.
2. Ikaslea edo haren legezko tutorea ezin bada matrikula egitera joan, beste pertsona batek egin ahal izango du haren ordez, betiere dagokion ordezkaritza-agiria beteta eta sinatuta aurkezten badu.	2. En el caso de que el/la alumno/a o su tutor/a legal no pueda acudir a formalizar la matrícula, podrá realizarla otra persona en su nombre, siempre que presente el correspondiente documento de representación cumplimentado y firmado.
3. Prezio-murrizketak hiru arrazoirengatik eskatu ahal izango dira: familia ugaria izateagatik, guraso bakarreko familia izateagatik edo egoera ekonomikoagatik.	3. Las reducciones de precios podrán solicitarse por tres motivos: por ser familia numerosa, por ser familia monoparental o por circunstancias económicas.
4. Ikasle adingabeen legezko tutoreek baimena eman ahal izango diote musika-eskolari kontzertuetan eta jardueretan argazkiak eta bideoak egiteko, musika-eskolaren sustapenerako. Baimena	4. Los/as tutores/as legales de los/as alumnos/as menores de edad podrán autorizar a la escuela de música la realización de fotografías y vídeos en conciertos y actividades para la promoción de la

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

ukatuz gero, edozein adinetako ikasleen kasuan, musika-eskolak beharrezko neurriak hartuko ditu ikaslearen irudia ez agertzeko.	escuela de música. En caso de denegación del permiso, sea cual sea la edad del/la alumno/a, la escuela de música adoptará las medidas necesarias para que no aparezca su imagen.
5. Ezin izango dute izena eman aurretik musika-eskolako ikasle izan eta tarifaren bat ordaindu gabe duten pertsonek, harik eta beren egoera erregularizatu arte.	5. No podrán inscribirse las personas que hayan sido estudiantes de la escuela de música con anterioridad y tengan alguna tarifa pendiente de pago, hasta que se regularice su situación.
6. Matrikula egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da: • 1. Udalak emandako KMUS eskaera-orri normalizatua (udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri). • 2. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio.	6. La documentación a presentar para realizar la matrícula es la siguiente: • 1. Instancia normalizada KMUS facilitada por el ayuntamiento (disponible en la sede electrónica del ayuntamiento). • 2. Documento de representación, en su caso.
• 3. Legezko tutorea dela egiaztatzen duen dokumentua. a. Prezio-murrizketa eskatu bada guraso bakarreko familia izateagatik: • 1. Familia-unitatea egiaztatzen duen dokumentua ekarri beharko da (epaia, familia-liburua, eta abar). b. Prezio-murrizketa eskatu bada egoera ekonomikoagatik:	• 3. Documento acreditativo de la condición de tutor legal. a. En el caso de que se haya solicitado reducción de precio por tratarse de una familia monoparental: • 1. Deberá aportarse el documento acreditativo de la unidad familiar (sentencia, libro de familia, etc.). b. Si se ha solicitado reducción de precio por circunstancias económicas:
• 1. Bizikidetza-unitateko adin nagusiko kide guztien informazio fiskala. c. Kontu korrontearen titularra eta ordezkaria pertsona bera ez badira:	• 1. Información fiscal de todos los miembros mayores de edad de la unidad convivencial. c. Si el/la titular y el/la representante de la cuenta corriente no son la misma persona:
• 1. Kontuaren titulartasuna frogatzen duen ziurtagiria.	• 1. Certificado acreditativo de la titularidad de la cuenta.
d. Ordainketa helbideratu ez bada: • 1. Ordainketa-ziurtagiria.	d. Si el pago no se ha domiciliado: • 1. Certificado de pago.
e. Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada: • 1. Kontu korrontearen titulartasunaren egiaztagiria. • 2. Errolda-agiria. • 3. Familia ugariaren tituluaren ziurtagiria.	e. En caso de oposición a la consulta de documentos: • 1. Justificante de titularidad de la cuenta corriente. • 2. Certificado de empadronamiento. • 3. Certificado del título de familia numerosa.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

44. artikulua. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek ez dute aurkeztu beharrik administrazio publikoek jada badituzten dokumentuak edo beste edozein administraziok egindakoak.	Artículo 44. Documentación interoperable y verificable De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las personas interesadas no están obligadas a presentar documentos que ya obren en poder de las administraciones públicas o que hayan sido elaborados por cualquier otra administración.
Horrenbestez, Tolosako Udalak beharrezko datuak eta agiriak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu elkarreragingarritasun-plataformen bidez. Hala ere, pertsona eskatzaileek berariaz aurka egin ahal izango diote datuen egiaztapenari; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.	En consecuencia, el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o acceder a los datos y documentos necesarios a través de las plataformas de interoperabilidad. No obstante, las personas solicitantes podrán oponerse expresamente a la verificación de los datos, en cuyo caso deberán aportar la documentación correspondiente.
Ildo horretan, matrikulazioa egin ahal izateko, honako baldintza hauek egiaztatuko dira bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:	En este sentido, para poder realizar la matriculación se acreditarán a través de plataformas corporativas de intermediación o acceso público los siguientes requisitos:
• Nortasun-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari kontsultatuta. • Familia ugariaren titulua, Eusko Jaurlaritzari kontsultatuta. • Kontu korrontearen titulartasuna, Eusko Jaurlaritzari kontsultatuta.	• Datos de identidad, mediante consulta a la Dirección General de la Policía. • Título de familia numerosa, mediante consulta al Gobierno Vasco. • Titularidad de la cuenta corriente, mediante consulta al Gobierno Vasco.
• Errolda-datuak, Tolosako Udalari kontsultatuta.	• Datos de empadronamiento, mediante consulta al Ayuntamiento de Tolosa.
• Udalarekiko ordainketak egunean izatea.	• Estar al corriente de pago con el Ayuntamiento.
Salbuespenez, administrazioak ezin baditu aipatutako datuak eskuratu, interesdunari eskatu ahal izango zaio aurkezteko. Halaber, organo eskudunak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarria eskatu ahal izango du eskaera behar bezala baloratzeko. Tolosako Udalak datu pertsonalen tratamendua interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzean edo udalari esleitutako botere publikoak gauzatzean oinarritzen da.	Excepcionalmente, si la administración no pudiera acceder a dichos datos, se podrá requerir a la persona interesada para que los aporte. Asimismo, el órgano competente podrá requerir cuanta documentación o información complementaria considere necesaria para la adecuada valoración de la solicitud. Por último, el tratamiento de los datos personales por parte del Ayuntamiento de Tolosa se basa en el cumplimiento de una función realizada en defensa del interés público o en el ejercicio de los poderes públicos asignados al Ayuntamiento.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

VI. TITULUA	TÍTULO VI
EGOITZA, MATERIALA ETA INSTRUMENTUAK ERABILTZEA	**USO DE LA SEDE, MATERIAL E INSTRUMENTOS**
1. ATALA. INSTALAZIOAK ERABILTZEA	**SECCIÓN 1ª. UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES**
45. artikulua. Instalazioak erabiltzea 1. Musika-eskolako instalazioak erabiliko dira lehentasunez irakaskuntza-jarduerarako.	Artículo 45. Utilización de las instalaciones 1. El uso preferente de las instalaciones de la escuela de música será el de la actividad docente.
2. Musika-eskolako langileek eta ikasleek instalazio horiek erabili ahal izango dituzte beren ikasketarako. Debekatuta dago behar bezala baimendu gabeko jarduerak egitea (eskola partikularrak, jarduera ekonomikoak, musikarekin lotuta ez dauden bilerak…).	2. El personal de la escuela de música y el alumnado podrán utilizar estas instalaciones para su aprendizaje. Se prohíbe la realización de actividades que no estén debidamente autorizadas (clases particulares, actividades económicas, reuniones no musicales...).
3. Musika-eskolak aldebakarrez aldatu ahal izango du ikasgelen erabilera-ordutegia, bere jarduera (klaseak, entseguak, entzunaldiak, eta abar) behar bezala bideratuko dela bermatu ahal izateko, eta kalteturiko erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasoko horregatik. 4. Zuzendaritzak eskaerak ebatziko ditu, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Era berean, lehentasunak zehaztuko ditu bat egiten duten jarduerak egonez gero.	3. En todo caso, la escuela de música podrá modificar unilateralmente el horario de uso de las aulas con el fin de garantizar el correcto desarrollo de su actividad (clases, ensayos, audiciones, etc.), sin que la persona usuaria afectada perciba indemnización alguna por ello. 4. La dirección resolverá las solicitudes y adoptará las medidas necesarias para garantizar el correcto funcionamiento del servicio. Asimismo, establecerá prioridades en caso de que existan actividades coincidentes.
46. artikulua. Betebeharrak Honako konpromiso eta betebehar hauek izango dituzte musika-eskolako ikasgelen erabiltzaile guztiek:	Artículo 46. Obligaciones Quienes hagan uso de las aulas de la escuela de música asumirán los siguientes compromisos y obligaciones:
1. Baimendutakoarekin bat datorren erabilera egokia egitea. Bereziki debekatzen da erretzea, jatea eta edatea. 2. Erabili ondoren ikasgela baldintza onetan utzi beharko da, gerora behar bezala erabili ahal izateko.	1. Realizar un uso adecuado y acorde con lo permitido. Se prohíbe especialmente fumar, comer y beber. 2. Una vez utilizada, se deberá dejar el aula en buenas condiciones para su uso posterior.
3. Ikasgelan edozein irregulartasun aurkituz gero, eskolako zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio.	3. Cualquier irregularidad detectada en el aula deberá ser comunicada a la dirección de la escuela.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

4. Geletan dagoen materiala erabilera desegokiaren ondorioz hondatzen bada, berritu edo eragindako kalteak ordaindu beharko dira.	4. En caso de deterioro del material existente en las aulas como consecuencia de un uso inadecuado, se deberá renovarlo o indemnizar los daños causados.
47. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak	Artículo 47. Causas de denegación de la autorización
Instalazioak erabiltzeko baimena ukatzeko arrazoi izango dira hauek: 1. Utzitako ikasgelak baimendutakoa ez den beste erabilera baterako erabiltzea. 2. Musika-eskolako arauak ez errespetatzea.	Serán causas de denegación de la autorización de uso de las instalaciones: 1. Destinar las aulas cedidas a un uso distinto del permitido. 2. No respetar las normas de la escuela de música.
48. artikulua. Musika-eskolako langileek instalazioak erabiltzea 1. Musika-eskolako langileek instalazioak erabili ahal izango dituzte beren lana prestatzeko eta ikasteko.	Artículo 48. Utilización de las instalaciones por parte del personal de la escuela de música 1. El personal de la escuela de música podrá utilizar las instalaciones para la preparación de su actividad y para el estudio.
2. Era berean, langileak instalazioetara joan ahal izango dira musika-eskolako ohiko ordutegitik kanpo, emango zaien txartel elektronikoa erabiliz; txartel horrek ateak irekitzeko beharrezko baimenak izango ditu. Indarrean dagoen segurtasun-araudia bete beharko dute.	2. Asimismo, los/as trabajadores/as podrán acudir a las instalaciones fuera del horario habitual de la escuela de música, utilizando la tarjeta electrónica que se les facilitará y que contará con los permisos necesarios para la apertura de puertas. Deberán cumplir la normativa de seguridad vigente.
3. Taldeko saioak eta entseguak egiten diren geletan hauek izango dira (areto nagusia, ganbera-gela eta abesbatza-gela) erabilera-lehentasunak:	3. En las salas de ensayo y sesiones grupales (sala principal, aula de cámara y sala de coro), las prioridades de uso serán:
• Kontzertuak, entzunaldiak edo bilerak dauden egunetan, emanaldi horiek izango dute lehentasuna. Jakinarazi egin beharko zaio astero gela hori erabiltzen duen irakasleari, emanaldi edo bilerak lehentasuna izan arren.	• En los días en que haya conciertos, audiciones o reuniones, tendrán prioridad estas actuaciones. Se deberá informar al/la profesor/a que utilice esta clase semanalmente, aunque la función o reunión sea prioritaria.
• Astero erabiltzen dituzten irakasleak. • Entsegu bereziren bat egin behar denean, saiakera egin beharko da gela horiek libre dauden ordutegian erabiltzeko; bestela, saiatu beharko da astero erabiltzen duen irakaslearekin adosten.	• Profesorado que las utiliza semanlmente. • Cuando sea necesario realizar algún ensayo especial, se procurará utilizar estas aulas en el horario en que estén disponibles; en caso contrario, se tratará de acordarlo con el/la profesor/a que lo utilice semanalmente.
• Ikasleekin proba puntualak egiteko (areto nagusiko pianoarekin adibidez), saiakera egin beharko da aretoa libre dagoen ordutegietan egiteko; bestela, saiatu beharko	• Para la realización de pruebas puntuales con el alumnado (por ejemplo con el piano de la sala principal), se deberá intentar que se realicen en los horarios en los que la sala esté libre; en caso contrario, se tratará de

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

da astero erabiltzen duen irakaslearekin adosten.	acordarlo con el/la profesor/a que lo utilice semanalmente.
49. artikulua. Musika-eskolako ikasleek instalazioak erabiltzea 1. Ikasleek erabili ahal izango dituzte musika-eskolako bakarkako ikasgelak ikasten ari diren instrumentua praktikatzeko. Era berean, ikasleek erabili ahal izango dituzte taldeko saioak eta entseguak egiten diren gelak ikasgaiarekin loturiko talde-entseguak egiteko.	Artículo 49. Utilización de las instalaciones por parte del alumnado de la escuela de música 1. El alumnado podrá utilizar las aulas individuales de la escuela de música para la práctica del instrumento en estudio. Asimismo, el alumnado podrá utilizar las salas de ensayo y sesiones grupales para realizar ensayos grupales relacionados con la materia.
2. Ikasgelak libre dauden orduetan bakarrik erabili ahal izango dira. Irakasleen lan-jarduerak lehentasuna izango du gelak erabiltzeko.	2. Las aulas sólo se pueden utilizar en las horas que estén libres. La actividad laboral del profesorado tendrá prioridad para el uso de las aulas.
3. Ikasleek aukera izango dute ikasketarako gela bat ikasturte osorako erreserbatzeko; horretarako, eskaera egin beharko dute zuzendaritzan (ikasle bakoitzaren irakaslearen bitartez ere egin daiteke). Eskaeren arabera, zuzendaritzak, ikasketa-ordutegiak antolatu, eta ikasle bakoitzari esleituko dizkio bere ordutegia eta ikasgela.	3. El alumnado podrá reservar un aula de estudio para todo el curso, previa solicitud en la dirección (que también podrá hacerse a través del/la profesor/a de cada estudiante). En función de las peticiones, la dirección organizará los horarios de estudio y asignará a cada alumno/a su horario y aula.
4. Ikasle bakoitzaren ikasketa-egun eta -orduan, eraikineko atezainak irekiko dio gela ikasleari, eta ordua amaitutakoan, atezainak itxiko du berriro ere. Ondorioz, atezaina dagoen ordutegian bakarrik erabili ahal izango dira ikasgelak. Atezaina ez badago, irakasle batek ireki eta itxi ahal izango ditu gelak.	4. A la hora y día de los estudios de cada alumno/a, el/la conserje del edificio abrirá la habitación al/la estudiante, y al término de su hora, el/la conserje cerrará de nuevo. En consecuencia, sólo se podrán utilizar las aulas en el horario en que se encuentre el/la conserje. En caso de ausencia de este, un/una profesor/a podrá abrir y cerrar las aulas.
5. Eraikineko atezainak ikasketa-gelak erabiltzen ari diren ikasleen erregistroa izango du unean-unean.	5. El/la conserje del edificio llevará un registro actualizado del alumnado que estén utilizando las aulas de estudio.
50. artikulua. Instalazioak Udaleko beste sailek edo Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak erabiltzea	Artículo 50. Utilización de las instalaciones por otras áreas municipales o la Asociación de Escuelas de Música de Euskal Herria
1. Udalaren politika- eta administrazio-organoek instalazioak erabili ahal izango dituzte, musika-eskolako zuzendaritzaren baimenarekin. Erabiltzeko eskaera egin duten datan eskolak ekintzaren bat antolatua badu, eskolakoak izango du lehentasuna.	1. Los órganos políticos y administrativos municipales podrán utilizar las instalaciones previa autorización de la dirección de la escuela de música. En el caso de que en la fecha solicitada la escuela haya organizado alguna actividad, esta última tendrá prioridad.
2. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak bere ekintzaren bat egiteko instalazioak erabiltzeko	2. La Asociación de Escuelas de Música de Euskal Herria podrá utilizar las instalaciones para el

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

beharra izango balu, horretarako aukera izango luke, behar den baimena eskatu ondoren.	desarrollo de sus actividades, previa solicitud de la correspondiente autorización.
51. artikulua. Musika-eskolaz kanpoko erabiltzaileek instalazioak erabiltzea 1. Kasu berezi batzuetan, musika-eskolakoak ez diren pertsona edo taldeek musika-eskolako instalazioak erabili ahal izango dituzte.	Artículo 51. Utilización de las instalaciones por usuarios/as externos/as a la escuela de música 1. En casos especiales, las instalaciones de la escuela de música podrán ser utilizadas por personas o grupos que no pertenezcan a la escuela de música.
2. Horretarako, musika-eskolako zuzendaritzari zuzendutako idatzizko eskaera egin beharko da, eta honako hauek jasoko ditu: • Arduradunaren (pertsona fisikoa) identifikazio-datuak: izena, abizenak, NAN, helbide elektronikoa eta telefonoa.	2. A tal efecto, deberá presentarse una solicitud escrita dirigida a la dirección de la escuela de música, en la que se detallará: • Datos identificativos del responsable (persona física) (nombre, apellidos, DNI, correo electrónico y teléfono).
• Instalazioak erabiliko dituen pertsona edo erakundearen identifikazioa: izena, abizenak, NAN, helbide elektronikoa eta telefonoa.	• Identificación de la persona o entidad que va a utilizar las instalaciones (nombre, apellidos, DNI, correo electrónico y teléfono).
• Instalazioa erabiltzearen helburua. • Araudi hau ezagutzearen adierazpena eta onarpena.	• Finalidad del uso de las instalaciones. • Declaración de conocimiento y aprobación del presente reglamento.
3. Eskaerari gehienez ere astebeteko epean erantzungo zaio. 4. Erabilera baimendu ondoren eskaeran adierazitako egoeren bat aldatzen bada, beste eskaera bat egin beharko da, eta instalazioak ezingo dira erabili azken hori ebatzi bitartean.	3. La solicitud será respondida en el plazo máximo de una semana. 4. Si una vez autorizado el uso se modificase alguna de las circunstancias señaladas en la solicitud, deberá realizarse una nueva solicitud, y las instalaciones no podrán utilizarse hasta que esta última se haya resuelto.
52. artikulua. Musika-eskolak beste instalazio batzuk erabiltzea Musika-eskolak eskubidea izango du bere instalazioez gain Udalaren beste egoitza edo bitarteko batzuk erabiltzeko.	Artículo 52. Utilización de otras instalaciones por parte de la escuela de música La escuela de música tendrá derecho a utilizar, además de sus instalaciones, otras dependencias o medios municipales para el desarrollo de sus actividades.
2. ATALA. MATERIALA ETA INSTRUMENTUAK MUSIKA ESKOLATIK KANPO ERABILTZEA	**SECCIÓN 2ª. UTILIZACIÓN DE MATERIAL E INSTRUMENTOS FUERA DE LA ESCUELA DE MÚSICA**
53. artikulua. Musika eskolako langileek edo Udaleko beste sailek materiala eta instrumentuak musika-eskolatik kanpo erabiltzea	Artículo 53. Uso de material e instrumentos fuera de la escuela de música por parte del personal de la

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

	escuela de música u otros departamentos municipales
1. Instalazioekin bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie musika-eskolako langileei eta Udaleko beste sailei, musika-jarduerak egiteko.	1. Al igual que las instalaciones, se podrá autorizar la utilización de material e instrumentos para actividades musicales al personal de la escuela de música y a otros departamentos municipales.
2. Eskaera guztiak idatziz egin beharko dira, eta ezarritako prozedura jarraitu beharko da (51. artikulua). Matxuraren bat gertatuz gero, baimenduna arduratuko da konponketaz eta horren kostuaz.	2. Todas las solicitudes deberán formularse por escrito y seguir el procedimiento establecido (artículo 51). En caso de avería, la persona autorizada se hará cargo de la reparación y de su coste.
54. artikulua. Ikasleek edo beste erakunde batzuek materiala eta instrumentuak musika-eskolatik kanpo erabiltzea	Artículo 54. Uso de material e instrumentos fuera de la escuela de música por parte del alumnado u otras instituciones
1. Instalazioekin bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie ikasleei edo beste erakunde batzuei, musika-jardueretarako.	1. Al igual que las instalaciones, se podrá autorizar el uso de material e instrumentos para actividades musicales por parte del alumnado o de otras entidades.
2. Horretarako, 51. artikuluan aipatzen den prozedura jarraituko da.	2. A estos efectos, se seguirá el procedimiento a que se refiere el artículo 51.
3. Matxuraren bat gertatuz gero, baimenduna arduratuko da konponketaz eta horren kostuaz.	3. En caso de avería, la persona autorizada se hará cargo de la reparación y de su coste.
4. Instrumentuak erabili ondoren, beranduenez hurrengo egunean itzuli beharko dira; erabilitako eguna asteburua balitz, hurrengo astelehenean.	4. Una vez utilizados los instrumentos, deberán ser devueltos, a más tardar, al día siguiente; en caso de que el uso coincida con el fin de semana, el lunes siguiente.
55. artikulua. Instrumentuen mailegua Norbere instrumenturik ez daukaten ikasleentzat aukera izango da musika-eskolako instrumentu batzuk maileguan hartzeko. Ikasleak, instrumentua erosi bitartean, gehienez ere bi ikasturtez, aukera izango du musika-eskolaren instrumentua erabiltzeko, baldin eta instrumentu hori erabilgarri badago.	Artículo 55. Préstamo de instrumentos Para el alumnado que no disponga de instrumento propio, la escuela de música ofrece la posibilidad de préstamo en determinados instrumentos. Hasta que el/la alumno/a adquiera el instrumento, y durante un máximo de dos cursos, podrá utilizar el instrumento de la escuela de música, siempre que esté disponible.
Baldintzak: 1.- Instrumentuak edo beste edozein material erabili ahal izateko, aurretik idatzizko eskaera egin beharko da, horretarako inprimakiaren bidez. Bertan,	Condiciones: 1.- La utilización de instrumentos musicales o de cualquier otro material requerirá solicitud previa por escrito a través del impreso habilitado al efecto. En él

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

ikaslearen datuak eta maileguan hartutako instrumentuaren ezaugarriak idatziko dira. 2.- Instrumentua gehienez ere bi ikasturtetarako mailegatuko da, eta eskatzaileak konpromisoa hartuko du instrumentua zaintzeko eta egoera onean mantentzeko.	se anotarán los datos del/la alumno/a y las características del instrumento prestado. 2.- El préstamo del instrumento se realizará por un máximo de dos cursos escolares, comprometiéndose el/la solicitante a su conservación y mantenimiento en buen estado.
3.- Eskatzailearena izango da instrumentuak izan ditzakeen matxura edo galeren ardura, eta hark ordaindu beharko ditu egin behar diren konponketak. 4.- Sokazko instrumentuetan, sokak hausten direnean, eskatzaileak erosi beharko ditu, eta instrumentua itzultzerakoan, soka berriekin itzuli beharko du.	3.- Las averías o pérdidas que sufra el instrumento serán responsabilidad de la persona solicitante, quien deberá abonar las reparaciones necesarias. 4.- En los instrumentos de cuerda, cuando se rompan las cuerdas, deberán ser adquiridas por quien solicitó el préstamo; el instrumento deberá ser devuelto con cuerdas nuevas.
Xedapen indargabetzailea Indargabetuta geratuko da Tolosako Udalbatzak 1990eko irailaren 17ko osoko bilkuran onartutako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolaren barne-araudia.	Disposición derogatoria Queda derogado el reglamento interno de la Escuela Municipal de Música Eduardo Mokoroa, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa en sesión celebrada el 17 de septiembre de 1990.
Azken xedapenak Araudia indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.	Disposición final El reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

SEXU INDARKERIAREN AURREAN UDAL ZERBITZU ETA ERAIKIN PUBLIKOETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

TOLOSA
berdinzalea

Protokoloa Cristina Otegui Albisuk egin du, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailarekin lankidetzan, Genero Berdintasunaren Sustatzeko Goi Mailako Heziketa Zikloko praktikaldian zehar.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Aurkibidea:

1. Sarrera: 3

2. Justifikazioa eta esparrua: 3
2.1 Soziala: 3
2.2 Juridikoa: 6

3. Terminologia: 13

4. Printzipio gidariak: 16

5. Helburuak: 18
5.1 Orokorrak: 18
5.2 Zehatzak: 18

6. Hartzaileak: 18

7. Tolosako Udalaren eraikin eta zerbitzu publikoak: 19

8. Esku-hartzeko prozedura: 19
8.1 Egora posibleak: 20
8.1.1 Kasua larria baldin bada: 20
8.1.2 Kasua hain larria ez bada: 20
8.2 Protokoloa aktibatzea: 21
8.3 Esku-hartzea: 21

9. Sexu indarkeriei aurre egiteko baliabideak: 25

10. Eranskinak: 31
10.1 Esku-hartzearen prozedura bisualago. 31
10.2 Andragoraren folletoa: 39
10.3 Infografia: 42
10.4 Dekalogoa: 45
10.5 Komunikazio egokia: 47
10.6 Laburpen txostena eta ebaluazio eta jarraipen eredua egiteko fitxa: 48
10.7 Baimen informatua: 52

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

1. Sarrera:

Sexu indarkeria indarkeria matxistaren arazo larria da, eta gizarte osoari eragiten dio, eta horregatik, garrantzitsua da eraikin eta zerbitzu publikoetan lan egiten duten profesionalei tresnak eta ezagutza eskaintzea, egoera horiek behar bezala identifikatu eta kudeatu ditzaten. Protokolo hau Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan aplikatzeko prestatu da, helburu nagusia izanik ingurune seguru, duin eta errespetuzko bat bermatzea bertako langileentzat eta erabiltzaileentzat.

Protokolo honetan hainbat atal jorratuko dira, besteak beste; sexu indarkeriaren definizioa, beste hainbat termino garrantzitsu, eta prebentziorako zein esku-hartzerako jarraibideak. Halaber, protokoloak sexu indarkeria jasaten duten pertsonei arreta integrala emateko baliabideak biltzen ditu, eta Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoek jarrera aktiboa izatea eskatzen du.

2. Justifikazioa eta esparrua:

2.1.- Soziala:

Historikoki, sexu indarkeriak emakumeen bizitzan eragin handia izan du, eta gaur egun oraindik ere arazo larri bat izaten jarraitzen du. Nahiz eta azken hamarkadetan hainbat aurrerapen egin diren, emakume askok oraindik ere jazarpenaren beldurrez bizi behar dute, bai espazio publikoetan bai pribatuetan. Sexu indarkeria ez da soilik erasotzaile eta pertsona erasotuaren arteko harreman batean ulertu behar, baizik eta gizarte-egitura matxista batean barruan kokatu behar da, non botere-desorekek emakumeen segurtasuna eta autonomia mugatzen duten.

Mundu mailako datuek erakusten dutenez, sexu indarkeria indarkeria matxistaren arazo sistemikoa da. Nazio Batuen Erakundearen arabera, mundu osoko emakumeen %35ek gutxienez behin jasan dute indarkeria fisikoa edo sexuala. Kopuru hori are handiagoa izan daiteke, kontuan hartzen badugu jazarpen mota guztiak ez direla salatzen edo erregistratzen. Askotan, beldurra, erruduntasuna edo gizartearen arbuio eskasa dira salaketa egiteko oztopo nagusiak.

Europan ere egoera antzekoa da. Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak 2014an egindako ikerketaren arabera, Europar Batasunean emakumeen %55ek jazarpen sexuala bizi izan dute bizitzan behin baino gehiagotan. Ikerketek erakutsi dute jazarpen hori ez dela espazio pribatuetara mugatzen; lan-eremuetan, garraio publikoan, aisialdi guneetan eta baita sare sozialen bidez ere gertatzen da. Horrek agerian uzten du sexu indarkeria ez dela jokabide isolatu bat, baizik eta sistema patiarkalaren ondorio dela.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

Espainiako Estatuan ere, antzeko joerak ikusten dira. Azken urteetako ikerketek erakutsi dute emakume gehienek noizbait jasan dutela sexu indarkeria. 2019ko Makroinkesta "sobre Violencia contra la Mujer" txostenaren arabera, Espainiako emakumeen %40,4k sexu indarkeria jasan du noizbait bizitzan zehar, eta %17k indarkeria fisiko edo sexuala. Halaber, Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) arabera, 2022an 18.000 sexu-delitu baino gehiago erregistratu ziren, eta horietatik %86 emakumeek pairatutakoak izan ziren.

Euskal Herrian, sexu indarkeriaren aurkako borroka garrantzitsua izan da azken urteetan, eta hainbat erakundek azterketak egin dituzte egoera honen dimentsioa ulertzeko. Emakunderen 2021eko txosten baten arabera, emakumeen %42k jasan dute noizbait jazarpen sexuala EAEn, eta kasu gehienak kalean, lan-ingurunean edo jai-giroan gertatzen dira. Bestalde, 2016ko Eusko Jaurlaritzaren inkestaren arabera, emakumeen %80k adierazi dute noizbait beldurra sentitu dutela eraso sexistaren bat jasateko, batez ere gauez etxera bakarrik itzultzen direnean. Gaur egun, euskal erakundeek protokoloak garatu dituzte jaietan eta aisialdi-guneetan erasoak saihesteko, baina kasu askotan ez dira nahikoa izan.

Halaber, testuinguruak ere eragina du sexu indarkeriaren aurkako borrokan. Arazo hau ez da soilik ikuspegi orokor batetik aztertu behar, baizik eta komunitate bakoitzaren errealitatea kontuan hartu behar da. Emakumeek segurtasuna eta askatasuna bermatuta izan dezaten, beharrezkoa da udalerri bakoitzean politikak eta neurriak ezartzea. Horregatik, Tolosan ere, arazo honen dimentsioa eta eragina ulertzea garrantzitsua da. Herriko erakundeek eta gizarte-eragileek egindako lanak ezinbestekoak dira sexu indarkerian aurka borrokatzeko eta emakumeen eskubideak defendatzeko.

Guzti hori kontuan hartuta, azken aldi honetan, Tolosan sexu indarkeria kasu ugari izan dira espazio publikoetan, eta horrek larritasun handia sortu du herrian. Kasu horien aurrean, beharrezkoa da protokolo bat ezartzea Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan, emakumeen segurtasuna bermatzeko eta sexu-indarkeria kasuetan erantzun eraginkorra emateko. Herritarren kezkak eta salaketek agerian utzi dute sexu indarkerien aurkako neurri sendoak ezartzea ezinbestekoa dela. Sexu indarkeriak ez luke tokirik izan behar Tolosan, eta beharrezkoa da herritarrek babesa eta segurtasuna bermatuta izatea.

Datu horietan ikusten da emakumeek sexu indarkeria jasan dutela, eta horrek haien bizitza, osasuna eta ongizatea kaltetu ditu. Era berean, emakumeek hainbat indarkeria-mota jasan dituzte, eta normalean normalizatu egin dira, gizartearen aldetik ezjakintasuna eta onarpen soziala dagoelako. Adrienne Rich pentsalari feministak adierazi zuenez, "patriarkatuak emakumeak beldurpean mantentzen ditu", eta hori sexu indarkeriaren normalizazioan islatzen du.

Horregatik, mugimendu feministek beti borrokatu dute sistema patriarkalaren aurka, sexu-indarkeria barne, emakumeen eskubideak defendatuz eta indarkeri matxista ikusgai bihurtuz. Emakumeen askapenaren aldeko borroka hori, genero-berdintasunaren

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

aldeko aldarrikapenekin batera, hezkuntza, lege eta politika publikoak aldatzeko lan feminista handiari esker gauzatu da. Susan Faludi kazetari eta idazle feministaren arabera, "emakumeek pairatzen duten indarkeria eta diskriminazioa ez dira banakako kasuak, baizik eta egitura sozialaren parte".

Feminismo bidez, sexu-indarkeriaren salaketa sozial eta juridikoa ahalbidetu dute, eta emakumeek indarkeriaren aurkako babesa lortu dute. Historikoki, feminismoak patriarkatuaren aurkako borroka gidatu du, sexu-indarkeria sistemikoa azaleratuz eta emakumeen ahalduntzea sustatuz. Baita ere, lege-aldaketak bultzatu ditu, eta horri esker, sexu indarkeria gaitzesten duten araudiak ezarri dira. Adibidez, 'Yo si te creo" mugimenduak mundu osoan izan du eragina, eta emakume askok beren testigantzak partekatzeko aukera eman du. La Manadaren kasuak agerian utzi du gizartearen presioak eta herritarren mobilizazioak eragina izan dezaketela justizian, eta horrek eztabaida sakona sortu du adostasunari buruz, eta Espainiako legedia erreformatzea bultzatu du. Gainera, mugimendu feministek tabuak hautsi dituzte sexu-indarkeriaren inguruan, pertsona erasotua izatetik pertsona aktibo bihurtuz eta justizia bultzatuz.

Hala ere, nahiz eta aurrerapenak eman diren, sexu indarkeriaren aurkako borroka oraindik ere beharrezkoa da. Emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazioa ez dira desagertu, eta oraindik ere oztopo handiak daude pertsona erasotuentzako justizia lortzeko eta prebentzio eraginkorrak ezartzeko. Gizarte osoak konpromiso aktiboa izan behar du, berdintasuna sustatuz eta emakumeek segurtasun osoz eta eskubide betez bizitzeko eskubidea bermatuz. Berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko, indarkeria matxistaren aurkako borroka etengabea eta kolektiboa izan behar da.

2.2 Juridikoa:

Protokolo honetarako kontuan hartu beharreko legeak:

1. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

54. artikulua.– Definizioa, tipologia eta printzipioak

> 3.– Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota,

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala

7.– Lege honen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrekin batera, hauek dira emakumeen kontrako indarkeria matxistari erakundeek nola erantzun behar dioten arautzen duten printzipio gidariak:

A) Giza eskubideen errespetua, babesa eta sustapena, genero-ikuspegian eta ikuspegi feministan oinarrituta. Lege honen ondorioetarako, horrek esan nahi du genero-harremanen ulermenean eta emakumeen ahalduntzean oinarrituta esku hartu behar dela, biktimen eskubideak neurri guztien muinean jarrita, bigarren mailako biktimizaziorik ez eragiteko, haien intimitatea, irudia eta bizitza pribatua babestuz, inplikatuta dauden erakunde publikoekiko harremanetan baimen aktiboa ematen dutela bermatuz, eta datu pertsonalak tratatzeko prozedura egokiak ezarriz.

57. artikulua.– Prestakuntza

1. EAEko administrazio publiko bakoitzak nahitaezko prestakuntza bermatu behar die, hasierakoa eta jarraitua, politikak eta programak taxutzen dituzten langile guztiei, bai eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren eremuko biktimak identifikatu eta haiei arreta eta babesa ematen dieten guztiei ere. Horretarako, EAEko administrazio publikoetako langileen prestakuntzaren arloko eskumenak dituzten organoek diagnostikoak egin behar dituzte, emakumeen eta gizonen berdintasuneko organismo eta organo eskudunekin elkarlanean. Diagnostiko horiek langileen prestakuntza-beharrei buruzkoak izango dira, prestakuntza profesionalen beharren araberakoa izan dadin, eta aldian behin egingo dira.

4. EAEko administrazio publikoek bermatu behar dute haurren eta gazteen esparruan lan egiten duten pertsonek prestakuntza egokia dutela adin horietako pertsonei eragiten dieten emakumeen aurkako indarkeria matxistaren forma espezifikoak detektatzeko eta artatzeko, bereziki, familia-eremuko edo gertuko inguruneko sexu-indarkeria, bai eta kirolean, aisialdian, ikastetxeetan eta zentro instituzionaletan eta arlo digitalean gertatzen diren indarkeriak ere.

58. artikulua.– Antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta onbideratzeko neurri orokorrak.

1. Euskal herri-administrazioek ziurtatu behar dute emakumeen aurkako indarkeria matxista detektatzeko, hari arreta emateko eta hari ordaina emateko jarduerak berriro biktimizatzea saihestuz eta biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

neurri guztien erdigunean jarriz egingo direla, arreta berezia eskainiz biktimatik biziraun duen pertsonara igarotzeko prozesuari, eta, bereziki, lege honen 3.1 artikuluaren azken atalean aipatutako askotariko diskriminazioa eragiten duten faktoreetako batzuk izateagatik kalteberatasun-egoera handienean daudenei.

2. Euskal herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima guztiek lehentasunezko arreta, integrala, doakoa, eskuragarria eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea ziurtatu behar dute. Arreta hori berariazko gaikuntza duten profesionalek emango dute, indarkeria-egoeratik eratorritako edo indarkeriarekin lotutako beharretara egokituta, inolako diskriminaziorik gabe, edozein dela ere haien egoera pertsonala, soziala edo administratiboa, eta prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetza-maila. Horretarako, kasuan kasuko espedienteen kudeaketa integratua eta koordinatua egingo da, erregelamendu bidez zehazten den moduan, biktimen baimen informatu aktiboa bermatuz eta, aldi berean, datu pertsonalen tratamenduan beharrezkoa den prozedura-bizkortasuna bermatuz.

3. Eskubide horren barruan sartzen da informazio eta orientazio egoki eta irisgarri bat modu ekitatiboan eskuratzea, biktima guztiek ulertzeko moduko hizkuntza batean eta modu argian adierazita beren eskubideei eta dauden baliabideei buruz, haien osasun fisiko eta mentalari arreta ematea, bai eta haien segurtasun-, ekonomia-, aldi baterako bizitoki-, etxebizitza-, hezkuntza- eta gizarte-premiei arreta ematea ere, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan aurreikusitako baldintzetan.

4. Euskal administrazio publikoek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak lehentasunezko eta lehentasunezko arreta-kolektibotzat hartu behar dituzte arreta-prozesuan egokitzat jotzen diren plaza eta zerbitzu publiko eta itunduetarako sarbidean.

5. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteko eta biktimei arreta egokia emateko lehentasunezko helburua sartu behar dute hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sistemaren plan estrategikoetan, haien egiturazko dimentsioa kontuan hartuta.

6. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hezkuntzaren, osasunaren, poliziaren, justiziaren, lanaren eta gizartearen arloko profesionalek modu proaktiboan eta koordinatuan jarduten dutela ziurtatu behar dute, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasu zehaztugabeak detektatzeko eta behar bezala bideratzeko. Horretarako, protokoloak egongo direla eta aplikatuko direla bermatu behar dute. Protokolo horiek inplikatutako erakundeen artean koordinatuta egingo dira, eta dagozkien adierazleak eta jarduteko jarraibideak jasoko dituzte.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

7. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bermatu behar dute inplikatutako eremuetako profesionalek denbora nahikoa dutela, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko prestakuntza- eta laguntza-baliabideak eta gune egokiak dituztela, bai eta biktimen arrisku-egoera baloratzeko irizpideak dituztela ere. Irizpide horiek inplikatutako erakundeen artean koordinatuta egingo dira, polizia-eremuan arriskua baloratzeko dauden sistemei kalterik egin gabe.

8. Euskal herri-administrazioek emakumeak berreskuratzeko, ahalduntzeko eta indartzeko talde-prozesuak sustatuko dituzte, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko komunikazioa eta komunitate-lana sustatuko dute, berdintasunaren aldeko emakume-elkarteekin, talde feministekin, ahalduntze-eskolekin eta emakumeen etxeekin batera.

2. 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.

23. artikulua. Berdintasuna:

> 9. Administrazio publikoek eta kirol-erakundeek bermatuko dute lesbiana, gay, transexual eta intersexualek ez dutela inolako diskriminaziorik jasango beren sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, genero-adierazpenagatik, sexu-garapenagatik edo antzeko zirkunstantziengatik jarduera fisiko eta kirolari ekiten dietenean, eta horretarako:
>
> > B) Jarduera fisikoan eta kirolean LGTBIfobiaren aurkako protokoloak onartzea eta inplementatzea sustatuko dute.

111. artikulua. Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoirengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren debekua:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bermatuko dute indarkeria, intolerantzia, diskriminazioa edo gorrotoa eragiten duten ekintzak debekatzea jarduera fisiko eta kirolaren esparruan, arreta berezia jarriz prebentzioan eta haurrak eta talde zaurgarriak babesteko. Horrez gain, debekatuta egongo dira 2007ko uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 1. eta 2. artikuluetan definitutako kirol indarkeria ekintzak.

112. artikulua. Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoirengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontrako azpibatzordea:

> 2. C) Prebentzio-ekintzak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eta sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren esparruan bereziki.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

114. artikulua. Haurren eta nerabeen babes integrala jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko indarkeria mota guztien aurka.

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautuko dituzte. Protokolo horietan jasoko dira kirolaren eta jarduera fisikoaren eremuan ingurune segurua eraikitzeko jarduketak, eta protokolo horiek jarraitu beharko dira kirolaren, jarduera fisikoaren eta aisialdiaren esparruan haurren eta nerabeen aurka gerta daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko.

   Protokolo horiek kirola, jarduera fisikoa eta aisialdi-jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira, horien titulartasuna edozein dela ere, eta, betiere, errendimendu handiko eta kirol-teknifikazioko zentroen sarean, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan.

2. Adingabeekin kirola eta jarduera fisikoa egin ohi dituzten erakundeek betebehar hauek izango dituzte:

   B) Babes-ordezkariaren figura izendatzea, zeinarengana adingabeek jo ahal izango baitute beren kezkak adierazteko. Ordezkari hori arduratuko da ezarritako protokoloak zabaltzeaz eta betetzeaz, bai eta dagozkion komunikazioak abiarazteaz ere, haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatzen den kasuetan.

3. 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

7. artikulua. Transfobiaren aurkako neurriak:

O) Bermatuko dute emakumezkoaren sexu-identitatea duen eta genero-indarkeriaren, sexu-erasoaren edo salerosketaren biktima den pertsona orok eskura izango dituela, berdintasun-baldintzetan, dauden laguntza-baliabideak, bere legezko dokumentazioan islatzen dena gorabehera.

4. 8/2021 Legea Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena.

45. artikulua. Interneten erabilera segurua eta arduratsua:

1. Administrazio publikoek, hezkuntza, sentsibilizazio eta difusio kanpainak garatuko dituzte haurrei, nerabeei, familiei, hezkuntza-profesionalei eta adingabeekin lan egin ohi duten beste profesional batzuentzat, Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua eta

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

arduratsua sustatzeko, baita erabilera desegokiaren ondoriozko arriskuak ere, haur, neskato eta nerabeen sexu-indarkeriaren fenomenoak sortu ditzaketenak, hala nola ciberbullying, grooming, genero-indarkeria edo sexting, baita adingabeen artean pornografia kontsumitu eta eskuratzeko arriskua ere.

47. artikulua. Kirol- eta aisialdi-eremuko indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloak:

- Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautuko dituzte. Protokolo horietan, kirol eta aisialdi-eremuan ingurune seguru bat eraikitzeko jarduketak jasoko dira, eta kirol- eta aisialdi-eremuan haur eta nerabeen aurkako balizko indarkeria-egoerak prebenitzeko, hautemateko eta esku hartzeko jarraitu behar dira.

48. artikulua. Adingabeekin normalean kirol- edo aisialdi-jarduerak egiten dituzten erakundeak:

1. Adingabeekin kirol edo aisialdi-jarduerak egin ohi dituzten erakundeek betebehar hauek dituzte:

    A. Aurreko artikuluan aipatutako jarduera-protokoloak aplikatzea, administrazio publikoek kirol eta aisialdi-esparruan hartzen dituztenak.

    B. Monitorizazio-sistema bat ezartzea, adingabeen babesari dagokionez aurreko protokoloak betetzen direla ziurtatzeko.

    C. Adingabeek beren kezkak adierazteko erabil dezaketen babes-ordezkaria izendatzea. Ordezkari hori arduratuko da ezarritako protokoloak zabaltzeaz eta betetzeaz, bai eta haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoeraren bat detektatu den kasuetan egin beharreko komunikazioei hasiera emateaz ere.

53. artikulua. Adingabeak babesteko zentroetan jarduteko protokoloak:

1. Adingabeak babesteko zentro guztiak ingurune seguruak izango dira, eta, titulartasuna edozein dela ere, Haurrak Babesteko Erakunde Publikoak ezartzen dituen jarduera-protokoloak aplikatu beharko dituzte. Protokolo horietan, lege honek estalitako indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko jarraibideak jasoko dira. Era berean, kasuan kasuko administrazioek protokolo horiek beren aplikazio-eremuan duten eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko estandarrak eta adierazleak onartu beharko dituzte.

    Besteak beste, protokoloak:

    A. Prozedura hasteko modua, komunikazio-sistemak eta jarduera bakoitzaren ardura duten profesionalen koordinazioa zehaztuko dituzte.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

B. Kexa-bide sinpleak, seguruak eta isilpekoak sortuko dira, adingabeek errepresalien beldurrik gabe informatu dezaten, errekurritu daitezkeen erantzunekin, eta Fiskaltzara, agintaritza judizialera, Herriaren Defendatzailera edo horien homologo autonomikoetara jo dezaten.

C. Bermatuko da, sartzeko unean, babes-zentroak idatziz eta hizkuntza eta formatu ulergarri eta eskuragarrian emango dizkiola adingabeari bizikidetza-arauak, diziplina-araubidea eta kexa eta komunikazio-mekanismoei buruzko informazioa.

D. Jazarpenaren motibazioa desgaitasuna, arrazakeria edo jatorria, sexu-orientazioa, identitatea edo genero-adierazpena denean, jarduera espezifikoak jaso beharko dituzte. Era berean, protokolo horiek jarduera espezifikoak jaso beharko dituzte jazarpena adingabeen teknologia berrien edo gailu mugikorren bidez egiten denean eta intimitatea eta ospea kaltetu direnean.

5. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralarena.

13. artikulua. Prebentzioa eta sentsibilizazioa sektore publikoan:

2. Administrazio publiko eskudunek eta haiei lotutako edo haien mendeko organismoek informazioa eta sentsibilizazioa sustatuko dute eta sexu-indarkerien aurkako babes osorako prestakuntza eskainiko diete beren zerbitzura dauden langileei, agintari publikoei eta kargu publiko hautetsiei.

178. Artikulua. Sexu-erasoak:

178.1 Urtebetetik lau urte arteko espetxe zigorra ezarriko zaio, sexu-erasoaren erantzule gisa, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurkako edozein egintza egiten duena, haren baimenik gabe. Adostasuna dagoela ulertuko da, soilik, askatasun osoz adierazi denean, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, pertsonaren borondatea modu argian adierazten duten egintzen bidez.

178.2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, sexu-erasotzat hartuko dira, edozein kasutan, indarkeria, larderia edo biktimaren nagusitasun edo kalteberatasun-egoera baten abusua erabiliz egiten diren sexu-egintzak, zentzugabe dauden edo abusatzen zaien egoera mentala duten pertsonei egiten zaizkienak, eta biktimak edozein arrazoirengatik bere borondatea deuseztatuta duenean egiten direnak.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

3. Terminologia:

Sexu indarkeria kontrol-adierazpen guztiak eta botere bortitza mota oro erabiltzeari dagokio. Adierazpen horiek, emakumeen eta gizonen arteko ordena sozialaren arabera, jazarpena, kontrola eta mina emateko helburuarekin egiten diren jokabide guztiak dira, non sexu-indarkeria pertsona menderatzeko erabiltzen den, adierazpide edo jokabide egonkor baten bidez.

Halaber, 2/2015 Foru Arauak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dokumentuek sexu indarkeria indarkeria matxistaren barnean kokatzen dute, eta eraikin eta zerbitzu publikoek ardura dute horri aurre egiteko. Horrenbestez, sexu indarkeriaren prebenitzeko eta erantzuteko protokoloak ezarri behar dira.

Hona hemen kontzeptu nagusi batzuk:

- **Indarkeria matxista:** Sorburuan sozializazio bikoa (gizona – emakumea) eta genero desberdintasuna dituen indarkeria da. "Indarkeria matxistari" buruz aritzean honakoak ari gara aipatzen:

    - Indarkeria sexista/ Emakumeen kontrako indarkeria matxista: emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena, eta helburu eta ondorio emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duena.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

- Genero rol sozial bikoei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonek jasaten dituzten beste indarkeria batzuk. Homofobia, lesbofobia eta transfobiaz ari gara.

- Genero barruko indarkeria: sexu/genero bereko pertsonen arteko maitasun eta sexu-harremanen baitan gertatzen den indarkeriari dagokio, molde guztiak barne daudela.

Indarkeri matxistaren definizioa 1/2023 legegintzako dekretuaren 54. artikuluaren 3. puntuan dago.

- **Sexu-indarkeria:** onartu gabeko sexu-ekintza guztiak barne hartzen ditu, hala nola sexu-erasoak eta sexu indarkeriak.

- **Sexu-jazarpena:** sexu-izaerako mesedeak eskatzen dituena, beretzat edo hirugarrenentzat, gizarte-harremanetan, lan-harreman, irakaskuntza, zerbitzuen emateko edo antzeko harremanetan, jarraitutako edo ohikoan, eta jokabide horrek biktimari egoera objektibo eta larri baten inguruko beldurrezko, arrotza edo iraingarria sortzen badio.

- **Bortxaketa:** bortxaketatzat hartzen da baginatik, uzkitik, ahotik edo gorputz-adarrak edo objektuak lehenengo bi bideetakoren batetik sartzea pertsonaren baimenik gabe.

- **Sexu-arrazoiengatik jazarpena**: hitzezko portaera, hitzik gabekoa edo fisikoa, pertsona baten aurkakoa, bere sexua dela-eta, eta bere duintasunaren aurka egiteko edo larderiazko, etsaitasunezko, apalesgarrizko, umiliaziozko edo iraingarrizko ingurunea sortzeko helburuarekin edo efektuarekin.

- **Sexu-indarkeria:** baimenik gabeko ekintza sexual guztiak barne hartzen ditu, hala nola sexu-erasoak eta sexu indarkeria.

- **Sexu-erasoa**: edozein sexu-ekintza, pertsona baten baimenik gabe eta bere duintasunaren aurka egindakoa.

- **Indarkeria instituzionala:** erakundeen (publikoak edo pribatuak) ekintzak edo ez-egiteak, emakumeen eskubideak diskriminatzen edo urratzen dituztenak, genero-desberdintasunak iraunaraziz. Hori adieraz daiteke diskriminazio-praktiken bidez, indarkeriari erantzuteko ez-egiteen bidez, informaziorik edo entzuterik ezaren bidez, testigantzak zalantzan jarriz edo emakumeen aukerak mugatzen dituzten genero-estereotipoak betikotuz. Eragindako pertsonaren birbiktimizazioa eragin dezakete.

- **Indarkeria sinbolikoa:** eguneroko bizitzan, gizarte-harremanetan dominazioa, desberdintasuna eta diskriminazioa transmititzen eta erreproduzitzen du, eta, horretarako, eredu estereotipatuen, mezuen, hizkuntzaren, kulturaren, irudien, jokabideen, balioen eta abarren bidez, emakumeen gizonen aurreko mendekotasuna naturalizatzen eta normalizatzen du.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

- **Indarkeria digitala:** zerbitzu digital edo telematikoen bidez egindako jazarpen, kontrol edo mehatxu mota oro da, emakumeen eskubideak urratzea helburu duena. Horren barruan sartzen dira hainbat mota de indarkeria, hala nola sexu-ziberindarkeria. Sexu-ziberindarkeria sexu indarkeria edo sexu-erasoa sare sozialen bidez gertatzen denean, eta hau Indarkeria digitalaren barnean dagoen forma bat da.

4. Printzipio gidariak:

Printzipio gidariak funtsezkoak dira protokolo baten oinarri sendoa ezartzeko. Pertsona, zerbitzu edo erakunde bakoitzak printzipio horiek barneratu behar ditu, pertsona erasotua laguntza eraginkor eta adeitsuagoa eskaintzeko. Horrela, esku-hartzea koherenteagoa izango da.

Jarraian, protokolo honen printzipio gidariak aurkeztuko dira:

1. **Deskonstrukzio patriarkala:** ukatu egin behar da, emakume bat jasan dezakeen kalterik handiena bortxaketa dela dioen ideia patriarkala, eta emakumea inoiz sendatu ezin dela baieztatzen duena, etengabeko birbiktimizazioan harrapatuta. Ikuspegi hori deseraiki egin behar da, bortxaketak eta gainerako indarkeria patriarkalak hierarkizazio sozialaren eta botere-desberdintasunaren ondorioak baitira. Oso egoera traumatikoak badira ere, emakumeek inguruko baliabideak dituzte, eta beren baliabideak errealitate horretatik ateratzeko.

2. **Lehentasuna:** sexu-indarkeria kasuetan, arreta lehentasunez eta modu integralean emango da. Horretarako, protokoloa berehala aktibatuko da, eta beharrezko baliabideak eskainiko dira, pertsona erasotuaren segurtasuna eta babesa lehenetsiz.

3. **Prebentzio eta ongizatea:** profesionalek pertsona erasotuaren autonomia errespetatu beharko dute, informazioa eskainiz eta segurtasun-neurriak aktibatuz. Pertsona erasotuaren ongizatea lehenetsiko da, eta prebentzio eta sentsibilizazio-neurriak sustatuko dira.

4. **Segurtasuna eta babesa:** esku-hartzean pertsona erasotuaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko da. Babes-neurriek barne hartuko dute pribatutasuna eta erasotzailearekiko kontaktua saihestea.

5. **Pertsona erasotua erdigunean jartzea:** pertsona erasotuak dut beti lehen eta azken hitza. Bere erritmoa eta nahiak errespetatu behar dira. Autonomia osoa izango du, bere erabakiak hartzerako orduan.

6. **Berdintasuna eta irisgarritasuna:** erasotako pertsona guztiak diskriminaziorik gabe artatuko dira, eta haien eskubideak bermatuko dira. Pertsona zaurgarriei laguntzeko eta aurre egin beharreko oztopoak gainditzeko neurriak ezarriko dira.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

7. **Aniztasuna eta intersekzionalitatea:** protokoloak erantzun egokia eman behar die Tolosako gizartean dauden aniztasun errealitateei, hala nola; generoa, dibertsitate funtzionala, kultura, jatorri zein erlijioa, betiere arreta eta laguntza eskeiniz.

8. **Laguntza integrala eta pertsonalizatua:** kasu bakoitza pertsonalizatu egingo da, hala nola, jasandako sexu indarkeria mota eta beste faktore batzuk. Era berean, ez da beharrezkoa salaketa jartzea zerbitzu guztiak (polizialak izan ezik), eskubide eta prestazio guztiak eskuratzeko; kasu bakoitzeko premien arabera zehaztuko dira.

9. **Koordinazioa birbiktimizazioa saihesteko:** berriro ez biktimizatzea eta indarkeria instituzionala saihestea da helburua. Horrek esan nahi du kontakizunaren errepikapenak saihestea, epaitu gabe entzute aktibo bat eskaintzea eta fokua pertsonan eta haren erabakietan jartzea.

10. **Pribatutasuna, konfidentzialtasuna, konfiantza eta intimitatea bermatzea:** Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren aplikazioa bermatzea. Era berean, asistentzia-jarduera oro baimen informatuari lotutako eskakizun eta eskubideen arabera garatzen dela bermatzea, baimen hori askatasunez ematen baita, eta biktimaren borondatea eta lehentasunak lehentasuntzat hartuta.

11. **Prestakuntza:** protokolo honen aplikazioan parte hartzen duten pertsonek prestakuntza eta sentsibilizazio egokia izan beharko dute sexu indarkeriaren esparruan.

12. **Haurrak eta nerabeak defendatzea**: adingabeen interes gorena protokoloaren lehentasunetako bat da.

13. **Erantzukizuna:** sexu indarkeriaren aurrean, profesional guztiek protokoloa bete beharko dute, antzemandako gabeziei erantzunez eta beharrezko neurriak hartuz.

5. Helburuak:

Protokolo bat behar bezala ezartzeko, ezinbestekoa da helburu orokorrak eta zehatzak izatea. Helburu horiek gidari izango dira sexu indarkeriaren aurkako jardunbide egokia bermatzeko eta pertsona erasotua behar bezala babesteko.
Hona hemen helburuak:

5.1.- Orokorrak:

1. Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan sexu-indarkeriak prebenitzeko eta ezabatzeko jarduera-esparrua ezartzea, baita erasoak jasan dituzten pertsonen segurtasuna, konfidentzialtasuna eta eskubideak bermatzeko behar diren mekanismoak ezartzea, arreta integrala eta koordinatua eskaintzeko, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersekzionaletik.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

5.2 Zehatzak:

1.1 Sexu-indarkeria zer den, nola identifikatzen den eta Tolosako Udaleko eraikin eta zerbitzu publikoetan lan egiten duten profesionalen jarduteko modua ezagutzea.

1.2 Pertsona erasotuari erantzun profesional eta egoki bat ematea, horretarako berehala egoeraren balorazio bat egin behar da, laguntza osoa eskaintzea prozesu osoan zehar, eta lankideen arteko koordinazio bat egotea.

1.3 Erasoa jasan duen pertsonari laguntza pertsonalizatua ematea, haren erritmoa eta nahiak kontuan hartuta.

1.4 Kasu bakoitza banaka aztertzea eta esku-hartze pertsonalizatua diseinatzea, intersekzionalitatea kontuan hartuz.

6. Hartzaileak:

Protokolo hau Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publikoetan sexu-indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren pertsona guztiei zuzenduta dago. Arreta berezia jarriko zaie elkargune ugari dituzten pertsonei, hala nola jatorriari, arrazari edo genero-eskema tradizionalak hausten dituzten pertsonei.

7. Tolosako Udalaren eraikin eta zerbitzu publikoak:

Protokolo hau Tolosako Udalaren eraikin eta zerbitzu publiko guztietan aplikatuko da.

Era berean, Tolosako Udalaren eraikin eta zerbitzu publikoetan lan egiten duten pertsona guztiei zuzenduta dago, haien kontratu mota edozein dela ere. Horrek barne hartzen ditu langile finkoak, aldi baterako kontratatuak, azpikontratatuta daudenak eta boluntario gisa lan egiten dutenak. Azpikontratatuta dauden pertsonei ere zuzenduta dago, betiere SPKLk (Sektore Publikoko Kontratuen Legea) ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Berdin dio zein lanpostu betetzen duten ere; protokolo hori eraikin edo zerbitzu publikoetan lan egiten duten pertsona guztiek bete behar dute.

8. Esku-hartzeko prozedura:

Esku-hartzeko prozedura bat ondo egiteko, printzipio gidarietan oinarritu behar da, baina profesionalek modu eraginkorrean aplika dezaten, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak bere jarduera profesionalean barneratzea eta integratzea. Printzipio horiek praktikan jartzeak pertsona erasotuaren ongizatea eta segurtasuna bermatzen du, esku-hartzea koherenteagoa eta eraginkorragoa eginez.

Funtsezko Oinarria: **KONFIDENTZIALTASUNA.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Esku-hartze prozedura bat kudeatzerakoan, funtsezkoa da pertsona erasotuaren eta inplikatutako pertsona guztien konfidentzialtasuna bermatzea. Prozesu osoan zehar, informazioa modu diskretuan kudeatu behar da, pertsonaren pribatutasuna eta segurtasuna lehenetsiz.

Kasuei buruzko informazioa eta baimen informatua trukatzeko jarraibideak.

Kasu guztietan, zerbitzu eta eraikin guztiak:

- Erabiltzaileari jakinaraziko zaio oso garrantzitsua dela bere datu pertsonalak biltzeko eta lagatzeko baimena ematea (baimen informatua), laguntza eta koordinazio instituzional hobea izan dezan, bai eta datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak ezerezteko eskubideak ere.

- Baimena emanez gero, laguntza ematen ari zaion profesionalak datuak biltzeko eta bilketa-orria aurkeztuko dio, emakumearen egoera edo esku hartzeko prozesuak ahalbidetzen duenean.

- Mailegurik ematen ez badu, salaketa aurkezten duen edo ez kontuan hartu gabe, artatzen duen profesionalak esku-hartze integralaren mugei buruzko informazioa eman beharko dio. Kasu horretan, informazio orokorra emango zaie Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuei eta Berdintasun Sailari.

  "Baimen informatuaren eredua protokolo honen 10.7 eranskinean dago."

Biktima adingabeen kasuan, erreferentziako pertsona heldua identifikatuko da haiekin, erabateko konfiantzaz, eta jarraitu beharreko prozeduraren eta eskubide juridiko eta asistentzialen berri emango zaio. Ikertu beharreko gaiaren inguruan interes-gatazkarik ez dagoela zaindu behar da adingabearen eta pertsona heldu arduradunaren artean, eta halako gatazka antzemanez gero, banandu egin beharko dute eta adingabearen eskubideak bermatuko dituen hirugarren pertsona edo erakunde bat bilatu.

8.1.- Egora posibleak:

Kasuaren berri izan ondoren, emakumearen eta/edo haren seme-alaben eta/edo bere kargura dituen mendeko pertsonen osotasuna arriskuan dagoenez, **berehalako erabakia hartu behar da eta ahalik eta azkarren ekintzak egin.**

8.1.1 Kasua larria baldin bada:

1. Pertsonak indarkeria edo sumisio kimikoa jasan badu eta bere osasuna edo ongizate fisikoa arriskuan badago.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

2. Bortxaketa egon denean edo bortxaketa-saiakera.

3. Pertsona batek beste bat sexu-ekintzak egitera behartzen dituen sexu-erasoak, beldurra, hertsadura edo hitzekin manipulazioa erabiliz.

4. Lesio nabariak daudenean (ezagutu ala ez).

8.1.2 Kasua hain larria ez bada:

1. Pertsona batek beste bati eduki sexualari buruzko iruzkinak edo proposamenak egiten dizkionean, haren baimenik gabe, dela hertsadura edo manipulazio bidez, baina kalte fisikorik eragin gabe.

2. Eduki sexuala duten jokabide gogaikarriak edo desatseginak, baita ukitze puntuala eta/edo ustekabekoa izan daitekeena ere.

3. **Ez du ezagutzen izan dezakeen arriskua,** baina artatzen duten langileek zenbait arrisku-seinale eta/edo sintoma detektatzen dituzte.

Kontuan hartzekoak: pertsona hauek KALTEBERATASUN HANDIAGOA dute, bai kasu larrietan, bai larritasun txikiagokoetan:

1. Desgaitasuna duten pertsonak.

2. Adingabeak (16 urtetik beherakoak).

3. Haurdunak

4. Biktimaren ardurapean adingabeak edo mendeko pertsonak daudenean.

8.2.- Protokoloa aktibatzea:

Protokoloa aktibatuko da beti, gertakari hauek gertatzen diren guztietan:

- Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publiko batean gertatu bada.

- Erasoa jasan duen pertsonak hala nahi badu, betiere adinez nagusia bada. 16 urtetik beherakoa bazara, jakinarazi Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

8.3.- Esku-hartzea:

1. Berehala erantzungo zaio pertsona erasotuari, arriskurik ez duela ziurtatzeko. Bere egoera fisiko eta emozionalaren **lehen balorazio azkarra egingo da.**

2. Balorazioan kasua **OSO LARRIA** dela ikusten bada**,** hauek dira jarraitu beharreko jarraibideak:

   Deitu 112ra. Arreta on baterako; pertsonari espazio seguru batera laguntzea, arretaz eta enpatiaz eta epaitu gabe entzutea:

   - Pertsona horri azaldu behar zaio garrantzitsua dela laguntza medikoa jasotzea, **baina erabakia beti berea dela**. Jakinaraztea komenigarria dela dutxarik ez hartzea, ez jantziak aldatzea, ezta arropa garbitzea ere, gorputzean eta jantzietan egon daitezkeen arrastoak ez galtzeko. Informazio hori baliagarria izango zaio bere babesa eta bere osasunaren zaintza bermatzeko, baita erasoaren frogak gal ez daitezen ere, salatu nahi izanez gero. Agian ez du orain salatu nahi, baina bai aurrerago, eta horregatik da garrantzitsua probak jasotzea. Probak 240 ordu igaro arte jaso daitezke. Hau da, 10 egun.

   - **Ospitalera joaten den pertsona** lagun edo senide batekin joan behar du bere segurtasuna eta ongizatea bermatzeko. Pertsonak ez badu inor berarekin, edo ez badu pertsona ezagunen batekin joan nahi, une horretan arreta ematen ari zaion pertsonak lagunduta joan beharko du. Zerbitzua ematen ari zaion udal-zerbitzuko edo eraikineko pertsonak ezin badio lagundu, harremanetan jarriko da Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuekin (lan-ordutegian) edo GLKZ zerbitzuarekin (lan-ordutegitik kanpo), persona erasotua norbaitekin dagoela bermatzeko.

   - **Pertsonak Ertzaintzara jo nahi badu,** aurreko paragrafoan adierazitako modu berean jokatuko da.

Esku-hartzeari amaiera emateko, laburpen-txostena eta ebaluazio-fitxa osatuko dira (*bi txostenak protokolo honen 10.6 eranskinean erantsi dira*), eta informazioa zerbitzua arduratzen den departamentura, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara eta Berdintasun Sailera bidaliko da.

3. Kasua **EZ BADA HAIN** larria, eta erasoa jasan duen pertsonak ez badu premiazko osasun-arretarik behar, baina larritasunaren araberako esku-hartzea behar badu, jarraibide hauekin jarraituko dugu:

   a. Espazio lasai, seguru eta intimo batera eramango zaio (pribatutasuna babesteko), bulego bat bezala.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

b. Ondoren, erasoa jasan duen pertsonari galdetuko zaio ea eraikin edo zerbitzu publikoan norbaitekin dagoen, laguntza ematen den bitartean pertsona hori bertan egon dadin.

c. Entzute enpatikoa eta aktiboa: garrantzitsua da arretaz entzutea, lasaitasuna mantentzea, segurtasuna transmititzea eta lehentasunezko zereginean zentratzea: laguntzea, entzutea eta beharrezko baliabideak ematea.

d. Gertatutakoa kontatzen badu, ez da mozten eta, batez ere, ez da epaitzen eta ez da, bere portaerari buruzko balio-judiziorik finkatzen ere. Sinetsi egiten zaio eta berarekin aliantza sortzen da.

e. Gertaeren kontakizuna amaitu ondoren, informazioa emango zaio, modu honetan: *(Komunikazio egokiaren eredua protokolo honen 10.5 eranskinean dago).*

   i. Gure komunikazioa bere egoera emozionalera egokituz.

   ii. Informazio argia eta zehatza eskainiz, bere erabakiak hartu ahal izan ditzan.

   iii. Informazioa bere ulermen-gaitasunera egokitzea: baliteke hizkuntza erabat ez ulertzea edo desgaitasunen bat izatea (entzumenekoa, psikologikoa, etab.). Informazioa behar duen guztietan errepikatuko diogu, bere egoerara egokitutako erritmoan eta tonuan.

   Garrantzitsua da jakitea SATEVIk arreta-zerbitzua eskeintzen duela 51 hizkuntzatan eta zeinu-hizkuntzan. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Hariberriak itzulpen zerbitzua ere eskaintzen dute dualia sistemaren bidez.

f. Honako hau jakinarazten diogu:

   i. Salaketa jartzeko aukera duela, eta hala nahi izanez gero, Udaltzaingoari deituko zaiola **(943675858, luzapena:520)** edo Ertzaintzara **(943 53 88 20)**, gertakarien lekura joan daitezen. Salaketa jarri nahi ez badu edo une horretan nahi ez badu, bere erabakia errespetatu behar da. Nolanahi ere, salaketa jarri edo ez, zerbitzu eta prestazio guztietarako sarbidea du, neurri judizialetarako izan ezik.

   Adi! Egoera irregularrean dagoen emakume atzerritar baten aurrean bagaude, garrantzitsua da jakinaraztea salaketa bat jartzen baduela eta azkenean zigor-epaia berarentzat aldekoa ez badela, epaileak ofizioz aktibatu dezakeela zehapen-prozedura administratibo bat (kanporatzea).

g. Jarraian, une horretatik aurrera zer egin behar den **argi eta garbi azalduko zaio.** Horretarako, **dekalogoa** emango zaio *(dekaloagoaren txostena protokolo honen 10.4 eranskinean dago)*, eraso baten ondoren jarraitu beharreko urratsak modu

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

errazean jasotzen dituen dokumentua. Dekalogoarekin batera, **infografia** bat ere eskainiko zaio *(infografiaren txostena protokolo honen 10.3 eranskinean dago)*, erabilgarri dauden hainbat baliabide biltzen dituena, hala nola harremanetarako telefonoak eta zerbitzu espezializatuak.

h. Lehenik eta behin, honako toki hauetara joateko **aukera emango zaio beti:**

   i. Lan-orduetan Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuetara.

   ii. Lan-ordutegitik kanpo, GLKZera.

   iii. Bigarrenik, Andragorara joateko aukera, Tolosaldeko emakumeen etxera.

Pertsonak baliabide horiek ez erabiltzea erabakitzen badu, eskura dituen beste aukera batzuen berri emango zaio, betiere bere erabakia errespetatuz.

i. **Informazio guztia ematen amaitzen denean** eta pertsonak zerbitzutik edo eraikin publikotik joan nahi badu, berarekin norbait doala ziurtatu behar da. Bakarrik badago eta inor ez badu berarekin joateko, une horretan arreta ematen ari zaion pertsonekin joan behar du. Zerbitzua ematen ari zaion udal-zerbitzuko edo eraikineko pertsonak ezin badio lagundu, harremanetan jarriko da Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuekin (lan-ordutegian) edo GLKZ zerbitzuarekin (lan-ordutegitik kanpo), persona erasotua norbaitekin dagoela bermatzeko.

j. **Erasotzaileak zerbitzu edo eraikin publikoa utzi ez badu,** Udaltzaingoari deitu behar zaio **(943675858, luzapena:520)** edo Ertzaintzari **(943 53 88 20)** segurtasuna bermatzeko.

k. Dena seguru dagoenean, nahitaezkoa da informazio zehatza ematea honako hauei:

   i. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila **(943 654 466, luzapena: 911),** astelehenetik ostiralera, **10:00etatik 13:00etara** (ostegunetan izan ezik, ez baita artatzen). Ordutegi horretatik kanpo bada GLKZ-ra deitu beharko da. **(943 11 21 11).**

   ii. Tolosako Udaleko Berdintasun Sailari. **(688 86 90 23)**

   iii. Orokorrean informatzea (datuen babesagatik) zure lanpostuaren mendeko zerbitzu/atal/saileko arduradunari.

   Gainera, erasoa jasan duen pertsona 16 urtetik beherakoa bada, gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi beharko zaie (kontuan izan erasoa haiengandik etorri ahal dela, eta, beraz, jakinarazpen horren egokitasuna baloratu beharko da) eta, jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari edo GLKZ

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

I. Amaitzeko, honako hauek osatuko dira:

i. Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena. *(Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena protokolo honen 10.6 eranskinean dago).*

ii. Ebaluazio-fitxa bat. *(Ebaluazio-fitxa jasotzen duen txostena protokolo honen 10.6 eraskinean dago).*

Esku-hartzearen prozedura bisualagoa jasotzen duen txostena protokolo honen 10.1 eraskinean dago.

9.- Sexu indarkeriei aurre egiteko baliabideak:

Koordinazioa/komunikazioa eta zerbitzuen eta materialen deskribapena.

1- Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuak eta berdintasun-zerbitzuak eta Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Foru Zerbitzua.

Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publikoek, lehenik eta behin, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentura bideratu behar dute, lan orduetan. Ordutegi horretatik kanpo bada, Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Foru Zerbitzura deitu beharko da:

- **Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak:** Gizarte Zerbitzuak prestazio eta zerbitzu multzo bat dira eta erantzuten diete herritarrek dituzten behar eta eskaerei norbera modu autonomoan moldatzeko edota familian, komunitatean eta, oro har, gizartean integratzeko. Indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen eremuan, zerbitzu horien barruan sartzen dira harrera eta esku-hartze espezializatua, hala nola informazioa, orientazioa eta aholkularitza, laguntza psikologikoa eta juridikoa, eta larrialdiko harrerak.

  Arreta ordutegia: astelehenetik ostiralera, **10:00etatik 13:00etara** (ostegunetan izan ezik, ez baita artatzen).

  ✆943 654 466, luzapena: 911 ✉gizartezerbitzuak@tolosa.eus
  📍Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa - Gipuzkoa

- **Gizarte Larrialdien Koordinazioko Foru Zerbitzua:** Gipuzkoan indarkeri matxista jasaten duten emakumeen urgentziazko beharrei erantzun die Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuen lan ordutegitik kanpo baliabide honetara joko da. Lehen balorazioa egin ostean, emakumeak dagozkien baliabide eta zerbitzuetara bideratzen dituzte.

  Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun** (erasoa eman eta hurrengo 48 urdutara ere arreta ematen dute).

  ✆943 224 411 📍Gipuzkoa Plaza, 1, 20004 Donostia.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

Jarraian, **Berdintasun Sailari** jakinaraziko zaio **(688 86 90 23)**, astelehenetik ostiralera 8:00-14:00 eta **Andragora,** Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

- **Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak:** zerbitzu hau funtsezkoa da Tolosan genero berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan. Bere lana hainbat arloren inguruan egituratzen da: emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea, prebentzioa eta sentsibilizazioa, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta berdintasunezko jaiak.

  Gainera, Sailak Jabetze Eskola antolatzen du Andragoran. Bertan, ikuspegi feministatik eta intersekzionaletik jarduerak eskaintzen dira, emakumeek aurre egiten dieten askotariko diskriminazio-egoerei erantzuna ematen saiatuz, eta emakumeen parte-hartzea, ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa indartuz. Ekintza horiek guztiek emakumeentzako espazio seguru eta parte-hartzailea bermatzen dute.

  Arreta ordutegia: goizez, astelehenetik ostiralera, **08:00etatik 14:00etara.**

  943 654 466, luzapena:812 688 86 90 23

  berdintasuna@tolosa.eus

  Emakumeon Plaza, 1, 20400 Tolosa, Gipuzkoa.

- **Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea (2. eraskina):** erreferentzia-gune bat da eskualdean, emakumeentzat segurua eta espezializatua delako, eta bertan genero-berdintasuna sustatzen da eta indarkeria matxisten aurka borrokatzen da. Bertan lan egiten duten profesionalek badituzte kasu bakoitzari behar bezala heltzeko behar diren tresnak, gizarte-zerbitzuekin koordinatuta. Horregatik, emakumeei bertaratzea gomendatzen zaie. Proiektuan parte hartzen duten Tolosaldeko 24 udalek eta Mugimendu Feministak eta Tolosaldeko emakume-taldeek kudeatzen dute baliabide hau.

  Indarkeria matxisten biktima eta bizirik atera diren emakumeei arreta emateko, emakumeei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dira, hala nola arreta, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, ahalduntze-programak eta autolaguntza-taldeak.

  Ordutegia:

  - **Goizez:** astelehenetik ostiralera, **10:00etatik 14:00etara.**
  - **Arratsaldez:** astelehenetik ostegunera, **16:00etatik 19:00etara.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

- Ostiral arratsaldetan itxita
- Uztaileko ordutegia: 08:00etatik 14:00etara.
- Abuztuan itxita

✆943 00 89 67 andragora@andragora.eus Emakumeon Plaza, 1, 20400 Tolosa, Gipuzkoa.

2- Beste zerbitzu eta baliabide interesgarri batzuk.

- **SATEVI (**Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu espezializatua**):** Eraso bat jasan duten emakumeak artuta eta eskura dituzten baliabide zein zerbitzuez informatzeko 24 orduko telefono-zerbitzua da. Zerbitzuak 51 hizkuntzatan erantzuten du, eta prestatuta dago entzuteko edota hitz egiteko desgaitasuna duten pertsonekin artatzeko. Zerbitzua berehalakoa da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta ez du arrostorik uzten telefono fakturan (baina deia ezabatu egin behar da telefonoaren dei-erregistrotik).

- **Hariberria- 24 orduko aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta-zerbitzua:** Indarkeri sexuala jasan duten pertsonei arreta integrala emateko foru-zerbitzua. Zentroak zerbitzu integrala eskeintzen du, 16 urtetik gorako emakumeen eskubide eta aukerei buruzko informazioa eta orientazioa ematen duena, bai eta arreta psikologiko eta soziela ere, suspertze-prozesua errazteko.

  ✆900 840 188 747 44 43 89 hariberria@gipuzkoa.eus Gros auzoa kale berria 20001 Donostia (24 ordu eta 365 egun).

- **Ekim:** Eusko Jaurlaritzaren web orri bat da, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio eta baliabide guztiak zentralizatzen dituena, eta, gainera, sexu-indarkerian espezializatutako doako zerbitzua eskaintzen du, krisi-egoeretan informazioa, orientazioa, gizarte-laguntza, laguntza psikologikoa, soziohezitzailea eta soziojuridikoa eskainiz.

  Telefonoaren ordutegia: **24 orduz.**

  ✆900 840 111

- **016 Telefono bidezko Arreta Zerbitzua:** Espainiako estatu mailako baliabidea da. Genero-indarkeria jasan duten pertsonei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen du. Ez du arrastorik uzten telefono-fakturan (baina deia ezabatu egin behar da telefonoaren dei-erregistrotik).

  ✆ 016 600 000 016 016-online@igualdad.gob.es

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

violenciagenero.igualdad.gob.es94

- **Osasun arreta:** Asuncion Klinika da larrialdietarako erreferentziazko osasun zerbitzua Tolosan. Baliteke azterketa forentsea egiteko, Donostiako Ospitalera bideratzea. Gainera, Osakidetzako langileak prestatuta daude sexu-indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko. Horretarako, gida bat dute: *Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida.*

  Ordutegia: **24 orduz.**

  112

- **SAV:** Biktimei Laguntzeko Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. Aurrez hitzordua duen zerbitzu presentziala da.

  Ordutegia: **09:00etatik 14:00etara.**

  900 10 09 28 - 943 00 07 68 sav20-1@justizia.eus

  Teresa de Calcuta Plaza, 1, Primera Planta | 20012 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa.

- **Tolosako Udaltzaingoa:** herritarren segurtasuna, trafikoa eta mugikortasuna kudeatzen dituen Departamentua. Sexu-indarkeria kasuetan arreta emateko prestatuta daude, baita horrelako egoera bat gertatzen denean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko ere.

  Ordutegia: Telefonoa: **24 ordu.** Bulegoa: Astelehenetik ostiralera: **07:00 - 22:00** Larunbatetan: **07:00 - 14:00.**

  943675858, ext.520 udaltzainburuzagitza@tolosa.eus

  Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa - Gipuzkoa

- **Oriako ertzain-etxea:** Tolosako ertzain-etxean sexu-erasoekin lotutako salaketei erantzuteko, berehalako babesa eskaintzeko eta dagozkion protokoloak aktibatzeko prestatutako langileak ditu.

  Ordutegia: **24 ordu.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

943 53 88 20 Sta. Klara Kalea, 2, B, 20400 Tolosa, Gipuzkoa

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegia. (Donostia):** genero-indarkeriarekin lotutako delituen instrukzioan eta epaitzean espezializatutako organo judiziala da. Lege prozedurak izapidetzen dituzte Gipuzkoan genero indarkeria kasuetan, biktimei laguntza judiziala eskainiz eta erasotzaileak penalki jazarriz.

  Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, **09:00etatik 14:00etara.**

  943 00 43 83 / 943 00 07 00 violencia.donostia@justizia.eus
  Pza. Teresa de Calcuta, 1 (Atotxa)

- **Sexu eta genero aniztasunarekin lotutako gaietarako informazio eta arreta zerbitzua. Berdindu:** Eusko Jaurlaritzaren doako zerbitzua, LGTBI pertsonentzat eta haien ingurukoentzat, informazioa, aholkularitza eta arreta eskaintzen duena.

  Arreta ordutegia:

  - Asteartetik ostiralera: 10:00 –13:00.
  - Astelehenetik ostiralera: 16:00–19:00.

  943 216 551 688 769 865 berdindu.gipuzkoa@gmail.com
  Paseo de Mikeletes 20 (Barrio del antiguo) C.P. 20008.

- **SOS arrazakeria:** migratzaileei eta arrazializatuei laguntza juridikoa, soziala eta psikologikoa eskaintzen dien erakundea, baita diskriminazioa edo arrazakeria eragiten duten indarkeri matxistaren kasuetan ere.

  Ordutegia: Asteazkena, 10:00-14:00.

  943 24 56 26/7 Rondilla Kalea, 34, 20400 Tolosa, Gipuzkoa

3- Materiala.

Hainbat baliabide izatea funtsezkoa da, baina, horrez gain, profesionalek laguntza prozesua nola gidatu jakin behar dute. Pertsona erasotuak askotan ez daki zein aukera duen, eta

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

horregatik, ezinbestekoa da **informazio hori modu argian ematea**. Baliabide bakoitzak zer eskaintzen duen azaldu behar da, baita zein kasutan izan daitekeen egokiena ere.

Era berean, beharrezkoa da **baliabideen ikusgarritasuna bermatzea.** Baliabide horiek erabilgarri egon arren, baliorik ez dute izango jendeari haien berri ematen ez bazaio. Horregatik, profesionaleek **informazioa modu argian eta ulergarrian zabaldu behar dute,** pertsona erasotuak aukera horien berri izan dezaten eta laguntza eskatzeko urratsa errazagoa izan dadin.

Bestalde, **koordinazio egokia ezinbestekoa da, pertsonari arreta osoa eta egokitua eskaintzeko.** Horretarako, Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publikoen eta beste entitate batzuen arteko lankidetza sendotu behar da, arreta eraginkorra eta eskuragarria bermatzeko.

Horren harira, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabide guztiak profesionalen eskura jartzeko, **garrantzitsua da eraikin edo zerbitzu publikoek infografia bat edukitzea.** Infografia horrek ikusgai egon behar du, eta informazioa modu argi eta ulergarrian eman behar du.

Azken batean, benetan garrantzitsua da profesionalek pertsonei laguntza eskuratzeko bide erraz, irisgarri eta segurua eskaintzea.

** Infografiaren lotura protokolo honen 10.3 eranskinean dago**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

10. Eranskinak:

10.1 Esku-hartzearen prozedura bisualago.

10.1 Esku-hartzearen prozedura bisualago

Esku-hartzeko prozedura bat ondo egiteko, **printzipio gidarietan** oinarritu behar da, baina profesionalek modu **eraginkorrean** aplika dezaten, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak bere jarduera profesionalean **barneratzea eta integratzea. Printzipio horiek praktikan jartzeak** pertsona erasotuaren **ongizatea** eta **segurtasuna** bermatzen du, esku-hartzea **koherenteagoa** eta **eraginkorragoa** eginez.

Funtsezko Oinarria: **KONFIDENTZIALTASUNA.**

Esku-hartze prozedura bat kudeatzerakoan, funtsezkoa da **pertsona erasotuaren** eta **inplikatutako pertsona guztien konfidentzialtasuna** bermatzea. Prozesu osoan zehar, **informazioa** modu **diskretuan** kudeatu behar da, pertsonaren **pribatutasuna** eta **segurtasuna** lehenetsiz.

Kasuei buruzko **informazioa** eta **baimen informatua** trukatzeko **jarraibideak.**

Kasu guztietan, zerbitzu eta **eraikin** guztiak:

- **Erabiltzaileari** jakinaraziko zaio oso garrantzitsua dela bere **datu pertsonalak biltzeko** eta lagatzeko **baimena** ematea (baimen informatua), **laguntza** eta **koordinazio instituzional** hobea izan dezan, bai eta datuetara **sartzeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko** eta datuak **ezerezteko eskubideak** ere.

- **Baimena** emanez gero, laguntza ematen ari zaion **profesionalak datuak biltzeko** eta **bilketa-orria** aurkeztuko dio, **emakumearen egoera** edo **esku hartzeko prozesuak** ahalbidetzen duenean.

- Mailegurik **ematen ez badu, salaketa** aurkezten duen edo ez kontuan hartu gabe, artatzen duen **profesionalak esku-hartze integralaren** mugei buruzko informazioa eman beharko dio. Kasu horretan, informazio orokorra emango zaie **Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuei** eta **Berdintasun Sailari.**

Biktima adingabeen kasuan, erreferentziako **pertsona heldua identifikatuko da haiekin, erabateko konfiantzaz,** eta jarraitu **beharreko prozeduraren** eta **eskubide juridiko** eta **asistentzialen** berri emango zaio. Ikertu beharreko gaiaren inguruan **interes-gatazkarik** ez dagoela zaindu behar da **adingabearen** eta **pertsona heldu arduradunaren** artean, eta halako gatazka antzemanez gero, **banandu** egin beharko dute eta **adingabearen eskubideak bermatuko dituen hirugarren pertsona** edo **erakunde bat** bilatu.

1. Egora posibleak

Kasuaren berri izan ondoren, **emakumearen** eta/edo haren **seme-alaben** eta/edo **bere kargura dituen mendeko pertsonen osotasuna arriskuan dagoenez, berehalako erabakia** hartu behar da eta ahalik eta **azkarren ekintzak egin.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

1.1 Kasua larria baldin bada

1. Pertsonak **indarkeria** edo **sumisio kimikoa** jasan badu eta bere **osasuna** edo **ongizate fisikoa arriskuan** badago.
2. **Bortxaketa** egon denean edo **bortxaketa-saiakera.**
3. Pertsona batek beste bat **sexu-ekintzak** egitera behartzen dituen **sexu-erasoak, beldurra, hertsadura** edo **hitzekin** manipulazioa erabiliz.
4. **Lesio nabariak** daudenean (ezagutu ala ez).
5. **Desgaitasuna** duen pertsona da.
6. Artatzen den pertsona **adingabea** denean.
7. **Haurdun** dago.
8. Biktimaren ardurapean **adingabeak** edo **mendeko pertsonak** daudenean.

2 Kasua hain larria ez bada

1. Pertsona batek beste bati eduki **sexualari buruzko iruzkinak** edo **proposamenak egiten dizkionean, haren baimenik gabe,** dela **hertsadura** edo **manipulazio** bidez, baina **kalte fisikorik** eragin gabe.
2. **Eduki sexuala duten jokabide gogaikarriak** edo **desatseginak, baita ukitze puntuala** eta/edo **ustekabekoa izan daitekeena** ere.
3. **Sexu-arrazoiengatiko** diskriminazioa.
4. Ez du ezagutzen izan dezakeen **arriskua,** baina **artatzen duten langileek** zenbait **arrisku-seinale** eta/edo **sintoma detektatzen dituzte.**

2 Protokoloa aktibatzea

Protokoloa aktibatuko da beti, **gertakari** hauek gertatzen diren guztietan:

- **Tolosako Udalaren eraikin edo zerbitzu publiko** batean gertatu bada.
- Erasoa jasan duen **pertsonak nahi badu.**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

3 Esku-hartzea

1. **Berehala erantzungo** zaio **pertsona erasotuari, arriskurik ez** duela ziurtatzeko. Bere **egoera fisiko** eta **emozionalaren lehen balorazio azkarra egingo da.**

2. Balorazioan kasua **OSO LARRIA** dela ikusten bada, hauek dira jarraitu beharreko jarraibideak:

   Deitu 112ra. Arreta on baterako; pertsonari **espazio seguru batera laguntzea, arretaz** eta **enpatiaz** eta **epaitu gabe entzutea:**

   Pertsona horri **azaldu behar zaio** garrantzitsua dela **laguntza medikoa jasotzea,** baina **erabakia beti berea dela. Jakinaraztea** komenigarria dela **dutxarik ez hartzea, ez jantziak aldatzea,** ezta **arropa garbitzea** ere, gorputzean eta jantzietan egon daitezkeen **arrastoak ez galtzeko.** Informazio hori baliagarria izango zaio bere **babesa** eta **bere osasunaren** zaintza bermatzeko, baita **erasoaren frogak gal ez daitezen** ere, **salatu** nahi izanez gero. Agian ez du orain salatu nahi, baina bai aurrerago, eta horregatik da **garrantzitsua probak jasotzea.** Probak **240 ordu** igaro arte jaso daitezke. Hau da, **10 egun.**

   Ospitalera joaten den pertsona lagun edo **senide batekin** joan behar du bere **segurtasuna** eta **ongizatea** bermatzeko. Pertsonak **ez badu inor berarekin,** edo ez badu pertsona ezagunen batekin joan nahi, une horretan **arreta ematen ari zaion pertsonak lagunduta** joan beharko du. Zerbitzua ematen **ari zaion udal-zerbitzuko** edo **eraikineko pertsonak ezin badio lagundu,** harremanetan jarriko da **Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuekin** (lan-ordutegian) edo **SFCUS** zerbitzuarekin (lan-ordutegitik kanpo), **persona erasotua norbaitekin dagoela bermatzeko.**

Esku-hartzeari **amaiera emateko, laburpen-txostena** eta **ebaluazio-fitxa** osatuko dira (*bi txostenak protokolo honen 10.6 eranskinean erantsi dira*), eta **informazioa zerbitzua arduratzen den departamentura, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara** eta **Berdintasun Sailera bidaliko da.**

3. Kasua **EZ BADA HAIN** larria, eta erasoa jasan duen pertsonak ez badu premiazko osasun-arretarik behar, baina larritasunaren araberako esku-hartzea behar badu, jarraibide hauekin jarraituko dugu:

   Espazio lasai, seguru eta **intimo batera** eramango zaio (**pribatutasuna babesteko**), **bulego** bat bezala.

   Ondoren, **erasoa jasan duen pertsonari** galdetuko zaio ea **eraikin** edo **zerbitzu publikoan norbaitekin dagoen, laguntza ematen den bitartean** pertsona hori bertan egon dadin.

   Entzute enpatikoa eta aktiboa: garrantzitsua da **arretaz entzutea, lasaitasuna mantentzea, segurtasuna transmititzea** eta **lehentasunezko zereginean zentratzea: laguntzea, entzutea** eta **beharrezko baliabideak** ematea.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Gertatutakoa kontatzen badu, ez da mozten eta, batez ere, ez da epaitzen eta ez da, bere portaerari buruzko balio-judiziorik finkatzen ere. Sinetsi egiten zaio eta berarekin aliantza sortzen da.

Gertaeren kontakizuna amaitu ondoren, informazioa emango zaio, modu honetan: (*Komunikazio egokiaren eredua protokolo honen 10.5 eranskinean dago*).

- Gure komunikazioa bere egoera emozionalera egokituz.
- Informazio argia eta zehatza eskainiz, bere erabakiak hartu ahal izan ditzan.
- Informazioa bere ulermen-gaitasunera egokitzea: baliteke hizkuntza erabat ez ulertzea edo desgaitasunen bat izatea (entzumenekoa, psikologikoa, etab.). Informazioa behar duen guztietan errepikatuko diogu, bere egoerara egokitutako erritmoan eta tonuan.
  Garrantzitsua da jakitea SATEVIk arreta-zerbitzua eskeintzen duela 51 hizkuntzatan eta zeinu-hizkuntzan. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Hariberriak itzulpen zerbitzua ere eskaintzen dute dualia sistemaren bidez.

Honako hau jakinarazten diogu:

- Salaketa jartzeko aukera duela, eta hala nahi izanez gero, Udaltzaingoari deituko zaiola (943675858, luzapena:520) edo Ertzaintzara (943 53 88 20), gertakarien lekura joan daitezen. Salaketa jarri nahi ez badu edo une horretan nahi ez badu, bere erabakia errespetatu behar da. Nolanahi ere, salaketa jarri edo ez, zerbitzu eta prestazio guztietarako sarbidea du, neurri judizialetarako izan ezik.

  Adi! Egoera irregularrean dagoen emakume atzerritar baten aurrean bagaude, garrantzitsua da jakinaraztea salaketa bat jartzen baduela eta azkenean zigor-epaia berarentzat aldekoa ez badela, epaileak ofizioz aktibatu dezakeela zehapen-prozedura administratibo bat (kanporatzea).

Jarraian, une horretatik aurrera zer egin behar den argi eta garbi azalduko zaio. Horretarako, dekalogoa emango zaio (*dekaloagoaren txostena protokolo honen 10.4 eranskinean dago*), eraso baten ondoren jarraitu beharreko urratsak modu errazean jasotzen dituen dokumentua. Dekalogoarekin batera, infografia bat ere eskainiko zaio (*infografiaren txostena protokolo honen 10.3 eranskinean dago*), erabilgarri dauden hainbat baliabide biltzen dituena, hala nola harremanetarako telefonoak eta zerbitzu espezializatuak.

Lehenik eta behin, honako toki hauetara joateko aukera emango zaio beti:

- Lan-orduetan Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuetara.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

- Lan-ordutegitik kanpo, SFCUSera.

- Bigarrenik, Andragorara joateko aukera, Tolosaldeko emakumeen etxera.

Pertsonak baliabide horiek ez erabiltzea erabakitzen badu, eskura dituen beste aukera batzuen berri emango zaio, betiere bere erabakia errespetatuz.

Informazio guztia ematen amaitzen denean eta pertsonak zerbitzutik edo eraikin publikotik joan nahi badu, berarekin norbait doala ziurtatu behar da. Bakarrik badago eta inor ez badu berarekin joateko, une horretan arreta ematen ari zaion pertsonekin joan behar du. Zerbitzua ematen ari zaion udal-zerbitzuko edo eraikineko pertsonak ezin badio lagundu, harremanetan jarriko da Tolosako Udaleko gizarte-zerbitzuekin (lan-ordutegian) edo SFCUS zerbitzuarekin (lan-ordutegitik kanpo), persona erasotua norbaitekin dagoela bermatzeko.

Erasotzaileak zerbitzu edo eraikin publikoa utzi ez badu, Udaltzaingoari deitu behar zaio (943675858, luzapena:520) edo Ertzaintzari (943 53 88 20) segurtasuna bermatzeko.

Dena seguru dagoenean, nahitaezkoa da informazio zehatza ematea honako hauei:

- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila (943 654 466, luzapena: 911), astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara (ostegunetan izan ezik, ez baita artatzen). Ordutegi horretatik kanpo bada, SFUS deitu beharko da. (943 11 21 11).

- Tolosako Udaleko Berdintasun Sailari. (943 654 466, luzapena:812)

- Orokorrean informatzea (datuen babesagatik) zure lanpostuaren mendeko zerbitzu/atal/saileko arduradunari.

Gainera, erasoa jasan duen pertsona 16 urtetik beherakoa bada, gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi beharko zaie (kontuan izan erasoa haiengandik etorri ahal dela, eta, beraz, jakinarazpen horren egokitasuna baloratu beharko da) eta, jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari edo GLKZ (SFCUS).

Amaitzeko, honako hauek osatuko dira:

- Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena. (*Gertatutakoaren laburpena jasotzen duen txostena protokolo honen 10.6 eranskinean dago*).

- Ebaluazio-fitxa bat. (*Ebaluazio-fitxa jasotzen duen txostena protokolo honen 10.6 eraskinean dago).*

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

10.2 Andragoraren folletoa:

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

HELBURUAK

ZERTARAKO EMAKUMEEN ETXE BAT TOLOSALDEAN?

¿PARA QUÉ UNA CASA DE LAS MUJERES EN TOLOSALDEA?

Gutasun baten parte sentitzeko: eskualdeko emakume guztiei gertutasuna eta konfiantza eskaintzeko, entzunak eta ulertuak izateko, eta seguru eta babestuta sentitzeko. Etxearen parte sentitzeko, eta parte hartzeko.

Sentsibilizaziorako, eta emakumeen ahalduntze feministarako gune iraunkorrak bermatzeko, hala nola, Jabetze Eskola.

Askotariko emakumeen arteko sareak eraikitzeko, eskualdeko emakume guztien indarrak batzeko eta Mugimendu Feminista sendotzeko.

Indarkeria matxistaren aurka ikuspegi integrala lantzeko, eta eraldaketa sozialaren ikuspegitik jendarteko eremu guztietan politikoki eragiteko.

Para sentirse parte de un colectivo: para ofrecer cercanía y confianza a todas las mujeres de la comarca, para ser escuchadas, entendidas, y sentirse seguras y protegidas. Para sentirse parte de la casa, y para participar.

Para garantizar espacios permanentes de sensibilización y empoderamiento feminista de las mujeres, como la Escuela de Empoderamiento.

Para construir redes entre mujeres de todo tipo; unir fuerzas de todas las mujeres de la comarca, y fortalecer el Movimiento Feminista.

Para abordar un enfoque integral contra la violencia machista, e incidir políticamente en todos los ámbitos interpersonales desde una perspectiva de transformación social.

PRINTZIPIOAK

PRINCIPIOS

Anitza, irekia, multikulturala, feminista, horizontala, partaidetzazkoa, eskualdearen errealitatean eragingo duena, bizia, aktiboa, hezitzailea, lotsagabea, zirikatzailea, belaunaldi artekoa, sortzailea, euskalduna, ekologikoki jasangarria, laikoa, irisgarria, harrera eta sarbide errazekoa eta jabetza publiko komunitarioduna.

Plural, abierta, multicultural, feminista, horizontal, participativa, que incida en la realidad de la comarca, viva, activa, educativa, sinvergüenza, provocadora, intergeneracional, creativa, euskaldun, ecológicamente sostenible, laica, accesible, de fácil acceso y de propiedad pública comunitaria.

ERABILTZAILEAK

USUARIAS

16 urtetik gorako emakumeak. Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta emakumeek etxea hartu dutenean Etxeak herritarrei irekitako jarduera mistoak antolatuko ditu.

Mujeres mayores de 16 años. Las actividades de la Casa se dirigirán a las mujeres en general, y una vez que las mujeres hagan suya la Casa, la Casa organizará actividades mixtas abiertas a la ciudadanía.

KUDEAKETA

GESTIÓN

Etxearen kudeaketa erakundeen (etxea babesten eta finantzatzen duten Tolosaldeko udalak) eta eskualdeko mugimendu feministaren eta emakumeen taldeen artean partekatuko da. Horretarako, Lantaldeak, Talde Eragilea, Koordinazio Taldea eta Gune Zabala/Asamblada sortuko dira. Talde bakoitzak bere osaera, funtzioak eta dinamika propioak izango ditu.

La gestión de la casa se compartirá entre las instituciones (ayuntamientos de Tolosaldea que patrocinen y financien la Casa) y el Movimiento Feminista de la comarca y grupos de mujeres. Para ello, se crearán Grupos de Trabajo, Grupo Motor, Grupo de Coordinación y Gune Zabala (Espacio Abierto)/Asamblea. Cada grupo contará con su propia composición, funciones y dinámicas.

JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

ACTIVIDADES Y SERVICIOS

Jarduerak, etxean nahiz etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira, eta jardueraren arabera zaintza zerbitzua jartzeko aukera aztertuko da. Topaketak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak antolatzeaz gain, jarduera kulturalak, ludikoak, kirol-jarduerak, kaleko ekintza zuzenak, ekimen solidarioak eta abar ere antolatuko dira. Aholkularitza psikologiko (banakakoa zein kolektiboa) eta juridiko zerbitzuak ere eskainiko dira.

Las actividades se organizarán tanto en la Casa como fuera de ella, tanto en Tolosa como en otros municipios de Tolosaldea, y en función de la actividad se valorará el establecimiento de un servicio de cuidados. Además de organizar encuentros, talleres, cursos, jornadas, se organizarán actividades culturales, lúdicas, deportivas, acciones directas de calle, iniciativas solidarias, etc. Se ofrecerán servicios de asesoría psicológica (individual y colectiva) y jurídica.

ANDRAGORA

Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Arreta eta bideraketa

Astelehenetik ostegunera 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00. Ostirala: 10:00-14:00

ZERBITZUAK

Aholkularitza juridikoa

ARRETA INTEGRALA
Asteazkenak, bi astetik behin
16:00 - 20:00

Aholkularitza psikologikoa

BANAKAKO ZERBITZUA. Txandaka
Asteazkena: 16:00 - 21:00
Osteguna: 10:00 - 15:00

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza

BANAKAKO AHOLKULARITZA
Hileko lehenengo asteartean
16:00 - 20:00

Aholkularitza laborala

ETXEKO LANGILE ZEIN ENPLEGATZAILEENTZAT
Astelehenak, bi astetik behin
16:15 - 18:30
Sos Arrazakeria eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Sailak bultzatuta

ELKARGUNEAK

Autolaguntza taldea

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA
Asteazkenak
10:15 - 12:15
Tolosako Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean

Kafe tertulia

JATORRI ANITZEKO EMAKUMEENTZAKO ELKARGUNEA
Asteazkenak
17:00 - 19:00
SOS Arrazakerlak eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Sailak bultzatuta

JABETZE ESKOLA

AHALDUNTZE IKUSPEGITIK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK
Tolosako Berdintasun Sailak antolatuta, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Sailarekin elkarlanean

Harremanetarako

Emakumeon Plaza 1. 20400 Tolosa
943 00 89 67 // 747 49 64 69
andragora@andragora.eus
andragora_tolosaldea
@Andragora_EE
Andragora Tolosaldea

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

10.3 Infografia:

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Osasun arreta

Asuncion Klinika da larrialdietarako erreferentziazko osasun zerbitzua Tolosan. Baliteke azterketa forentsea egiteko, **Donostiako Ospitalera bideratzea.** Gainera, Osakidetzako langileak prestatuta daude **sexu-indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko.** Horretarako, **gida bat dute.**

Ordutegia: **24 orduz.**

943 69 70 00

Informazio gehiago QR honetan.

SAV

Biktimei Laguntzeko Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. **Aurrez hitzordua duen zerbitzu presentziala da.**

Ordutegia:**09:00etatik 14:00etara.**

900 10 09 28 - 943 00 07 68

sav20-1@justizia.eus

Teresa de Calcuta Plaza, 1, Primera Planta | 20012 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa.

Informazio gehiago QR honetan.

Tolosako Udaltzaingoa

Herritarren segurtasuna, trafikoa eta mugikortasuna kudeatzen dituen saila da, eta **azkar jarduten du sexu-indarkeria kasuetan.**

Ordutegia: Telefonoa: **24 ordu.**

Bulegoa: Astelehenetik ostiralera: **07:00 - 22:00**

Larunbatak: **07:00 - 14:00.**

943675858, ext.520

Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa - Gipuzkoa

Informazio gehiago QR honetan.

Oriako ertzain-etxea

Tolosako ertzain-etxean **sexu-erasoekin lotutako salaketei erantzuteko, berehalako babesa eskaintzeko eta dagozkion protokoloak aktibatzeko prestatutako langileak ditu.**

Ordutegia: **24 ordu.**

943 53 88 20

Sta. Klara Kalea, 2, B, 20400 Tolosa, Gipuzkoa

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegia

Genero-indarkeriarekin lotutako delituen instrukzioan eta epaitzean espezializatutako organo judiziala da. Lege prozedurak izapidetzen dituzte Gipuzkoan **genero indarkeria** kasuetan, biktimei laguntza judiziala eskainiz eta erasotzaileak penalki jazarriz.

Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, **09:00etatik 14:00etara.**

943 00 43 83 / 943 00 07 00

violencia.donostia@justizia.eus

Informazio gehiago QR honetan.

Berdindu

Eusko Jaurlaritzaren doako zerbitzua, LGTBI pertsonentzat eta haien ingurukoentzat, informazioa, aholkularitza eta arreta eskaintzen duena.

Arreta ordutegia:
Asteartetik ostiralera: **10:00-13:00.**
Astelehenetik ostiralera: **16:00-19:00.**

943 216 551

688 769 865

berdindu.gipuzkoa@gmail.com

Paseo de Mikeletes 20 (Barrio del antiguo) C.P. 20008.

Informazio gehiago QR honetan.

SOS Arrazakeria

Migratzaileei eta arrazializatuei laguntza juridikoa, soziala eta psikologikoa eskaintzen dien erakundea, baita diskriminazioa edo arrazakeria eragiten duten **indarkeri matxistaren kasuetan ere.**

Ordutegia: Asteazkena, **10:00-14:00.**

943 24 56 26/7

Rondilla Kalea, 34, 20400 Tolosa, Gipuzkoa

Informazio gehiago QR honetan.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

TOLOSAK SEXU-HARREMAN ASKEAK ETA BAIMENDUAK DEFENDATZEN DITU.
INORK ZURE SEXU-ASKATASUNA ERAGOZTEN BADU, SALATU DEZAKEZU. **INFORMA ZAITEZ!**

1. Salatu ala ez salatu, **eskubidea duzu laguntza eta arreta psikologikoa, sanitarioa eta legala jasotzeko**; hau da, jasan duzun erasoa zuk erabaki bezala bideratzeko.
2. **Eskubide horiek berberak** izango dituzu zure **administrazio-egoera irregularra** izanda ere.
3. **Garrantzitsua da osasun-etxe batera ahalik eta azkarren joatea**, erasoan eragindako kalteari aurre egiteko laguntza jaso eta frogak erregistratzeko. Sexu-erasoaren ondorengo lehen orduak funtsezkoak dira ikerketa ongi bideratzea bermatzeko. Hori dela eta, gomendatzen da ez garbitzea, dutxarik ez hartzea eta arropaz ez aldatzea; erasoa ahotik jasoz gero, jakirik ez edaririk ez hartu, osasun-etxera joan baino lehen.
4. **Asuncion Klinika da larrialdietarako erreferentziazko osasun zerbitzua** Tolosan. Baliteke azterketa forentsea egiteko, Donostiako Ospitalera bideratzea.
5. **Ospitalean egonda erasoa salatzea erabakitzen baduzu, ospitaleak hartuko du ardura** lesio-partea dagokion guardiako epaitegira igortzeko eta hala poliziari nola mediku forentseari abisua emateko.
6. Ospitalean egonda ez baduzu erasoa salatu nahi, ospitalea **beharturik dago** agintari judizialei edozein sexu-erasoren **berri emateko**, zure baimenarekin edo baimenik gabe, baina horrek ez du prozedura judizialik zertan abiarazi.
7. Halaber, **aukera dago ertzain-etxe edo guardiako epaitegi hurbilenean salaketa zuzenean aurkezteko**. Bietan, eskubidea dago abokatuen laguntza jasotzeko. Laguntza hori eskatzeko aholkatzen da, **abokatu batek zaindu dezan prozesuaren funtzionamendu egokia**.
8. **Soilik salaketa aurkeztuta abiatuko da erasotzailearen kontrako zigor-prozedura**. Prozedura penala gogorra izan daiteke erasoa pairatu duenarentzat, eta ez du ziurtatzen erasotzailearentzat "bidezko" kondenarik, baina erasotzaileari aurre egiteko eta zigorgabetasuna saihesteko modu bakarra da.
9. Arreta feministan eta sexu-erasoetan esperientzia duten zerbitzu juridiko eta psikologiko espezializatuak ere eskura dituzu Tolosan. Horretarako, **ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxera, deitu dezakezu: 943 00 89 67.**
10. Salaketa jartzeko denbora tarte bat duzu, eta berehala egin nahi ez baduzu ere, ospitalera joan zaitezke prebentzio-tratamenduak lortzera eta probak lortzera, aurrerago egin nahi baduzu.

Informazio edo laguntza gehiago behar duzu?

TOLOSA
berdinsarea

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen etxera (943 008 967 | 747 496 469 - Emakumeon Plaza 1, Tolosa) jo dezakezu.
Udaleko Gizarte Zerbitzuetara (943 654 466 | Extensión 911, Plaza Zaharra 6b)

HARIBERRIA - **24 orduko aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta-zerbitzua.**

Sexu-erasoen biktimei arreta integrala emateko foru-zerbitzua. Zentroak zerbitzu integrala eskaintzen du, 16 urtetik gorako emakumeen eskubide eta aukerei buruzko informazioa eta orientazioa ematen duena, bai eta arreta psikologiko eta soziala ere, suspertze-prozesua errazteko.

✆ **900 840 188 (24 ordu eta 365 egun)**

SFUS

Gipuzkoan indarkeria matxista jasaten duten emakumeen urgentziazko beharrei erantzuten die Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuen lan ordutegitik kanpo baliabide honetara joko da. Lehen balorazioa egin ostean, emakumea dagokion baliabide eta zerbitzuetara bideratzen dute.

✆ **943 224 411 (07:00-22:00) / 112 (22:00-07:00)**

- **Ordutegia: 24 ordu eta 365 egun (Erasoa eman eta hurrengo 48 ordutara ere arreta ematen dute)**

SATEVI

Eraso bat jasan duten **emakumeak artatu eta eskura dituzten baliabide zein zerbitzuez informatzeko 24 orduko telefono-zerbitzua** da SATEVI. Zerbitzuak 51 hizkuntzatan erantzuten du, eta prestatuta dago entzuteko edota hitz egiteko desgaitasuna dutenak artatzeko. Zerbitzua berehalakoa da, **anonimoa, konfidentziala eta doakoa**, eta ez du arrastorik uzten telefono fakturan.

✆ **900 840 111 (24 ordu eta 365 egun)**

TOLOSA

10.5 Komunikazio egokia:

Funtsezkoa da sexu-indarkeria jasaten ari den pertsona batekin komunikazio egokia izatea. Profesionalek jakin behar dute nola hurbildu eta nola hitz egin pertsonari. Horretarako, enpatiaz jokatu behar da, pertsonaren emozioak ulertuz eta errespetatuz. Komunikazio egokiak pertsona babestua eta entzuna sentiarazten du, baita laguntza jasotzeko konfiantza ematen ere.

Hitz egiteko unean, kontuan hartu beharreko gauzak:

- **Enpatiaz hitz egitea**, pertsonaren sentimenduak ulertzea eta errespetatzea.
- **Entzute aktiboa praktikatzea**, etenik gabe entzun eta bere hitzak zalantzan jarri gabe.
- **Epaitu gabe komunikatzea**, erruduntasuna edo ardura pertsonarengan ez jartzea.
- **Konfiantza eta babesa transmititzea**, pertsona seguru senti dadin.
- **Informazio argia eta lasai ematea**, presiorik egin gabe.
- **Pertsona erasotuaren erritmoa errespetatzea**, presiorik gabe eta bere beharrak kontuan hartuz. Gainera, baliteke hizkuntza erabat ez ulertzea edo desgaitasunen bat izatea (entzumenekoa, psikologikoa, etab.). Informazioa behar duen guztietan errepikatuko diogu, bere egoerara egokitutako erritmoan eta tonuan.
- **Komunikazio ez-berbala zaintzea**, begiradarekin, gorputz-jarrerarekin eta keinuekin segurtasuna eta lasaitasuna transmitituz.

Komunikazio egokiak pertsona erasotua sendotzen du eta behar duen laguntza jasotzeko bidea irekitzen du. Pertsonak babestuta eta entzunda sentitzen direnean, errazagoa da laguntza eskatzea eta behar dituzten baliabideak eskuratzea. Horregatik, ezinbestekoa da profesionalek tresna egokiak izatea elkarrizketa horiek behar bezala bideratzeko.

Era berean, komunikazio prozesuan konfiantza giroa sortzea eta informazioa modu egokian transmititzea funtsezkoa da. Profesionalek jakin behar dute nola lagundu pertsonari bere egoera ulertzen, zein aukera dituen argitzen eta inolako presiorik gabe erabakiak hartzeko espazioa ematen. Komunikazio desegokiak, berriz, pertsona isolatu edo beldurtu dezake, eta horrek bere ongizatean eragin negatiboa izan dezake.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

10.6 Laburpen txostena eta ebaluazio eta jarraipen eredua egiteko fitxa:

Tolosako udal zerbitzu eta eraikin publikoetan gertatutako sexu-indarkeria kasuak

Laburpen txostena funtsezko tresna da sexu indarkeriako kasuen erregistroa eta kudeaketa egokia bermatzeko. Helburua da gertaeraren xehetasun guztiak fitxa batean jasotzea, kasua ahalik eta modu objektiboenean aztertzeko eta beharrezko neurriak hartzeko. Bertan, kasuaren deskribapena, lekua, data eta ordua eta protokoloaren aktibazioari buruzko informazioa jasotzen dira.

Fitxa hau behar bezala betetzea oso garrantzitsua da. Gainera, oinarrizko tresna da Tolosako eraikin edo zerbitzu publiko batek sexu indarkeriaren aurkako protokoloa bete duela egiaztatzeko.

Laburpen txostena egiteko bete beharreko fitxa:

- Eraikin edo zerbitzuaren izena:_____
- Protokoloaren aktibazioa egin duenaren izen-abizenak:_____
- Erasoa gertatutako eguna eta ordua:_____
- Gertatutako lekua:_____
- Sexu-indarkeria mota:_____
- Pertsona erasotuaren datu orokorrak:
    - Izen abizenak
    - Sexua
    - Adina
    - Jatorrizko herrialdea
    - Administrazio egoera erregularra/irregularra
    - Baimen-akta
    - Desgaitasuna. Mota
- Erasotzailearen datuak:

- Izen abizenak
- Sexua
- Adina
- Jatorrizko herrialdea

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540910c80

- Administrazio egoera erregularra/irregularra
- Zer gertatu da?

_____
_____

- Protokoloaren aktibazioa zergatik egin da?

_____
_____

- Erasoa gertatu ondoren, zer pauso eman dira? Protokoloaren pauso guztiak eman dira? Nola burutu da esku-hartzea?

_____
_____

- Zerbait ikasi duzu esku-hartze honetatik? Zalantzak/kezkak sortu zaizkizu?

_____
_____

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Tolosako udal-eraikin publikoetan sexu-indarkeriari aurre egiteko jarduera-protokoloa

Ebaluazioa eta jarraipena funtsezko elementuak dira protokolo bat ondo joateko.

Ebaluazioa eginda, protokoloa ondo doan ikusi dezakegu eta ea helburuak betetzen diren. Zerbait hobetzeko baldin badago, ebaluazioari esker, protokoloa indartu daiteke. Tresna honek ikasteko eta hobetzeko aukera ematen du, eta hori da protokoloaren arrakastaren funtsezko alderdia.

Jarraipena ezinbestekoa da, protokoloaren eraginkortasuna eta jarraitasuna bermatzeko. Prozesu honetan, Tolosako eraikin edo zerbitzu publikoetako sexu-jazarpenaren kasuak eta erantzunak aztertzen dira, eta beharrezko egokitzapenak egiten dira, protokoloa etengabe hobetzeko. Horrela, errealitatearen aldaketei egokitutako egon daiteke, eta helburuak lortzen direla ziurtatzen dugu.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa praktikan jartzeko, hurrengo moduan egingo lirateke:

- **Ebaluazioa**:

Ebaluazioa egiteko, Tolosako eraikin edo zerbitzu publikoetako langileek, protokoloaren aplikazioa nola ikusten den ikertu behar da. Horrela, arazoak edo hobetzeko aukera dauden eremuak identifikatu ahal izango dira. Ebaluazioaren emaitzak protokoloa egokitzea eta hobetzea ahalbidetuko du, eta horrek helburuak betetzen lagunduko du.

Ebaluaziorako tresna hau erabiliko da:

Ebaluazio irizpidea.	**Galdera edo behatutako elementua.**	**Bai/Ez/ Prozesuan.**	**Oharrak edo hobekuntza proposamenak.**
Protokoloaren ezagutza.	Profesionaleek protokoloaren edukiak ezagutzen dute?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	
	Tolosako eraikin edo zerbitzu publikoetan informazio egokia jaso dute. Sexu-jazarpenaren aurrean nola jokatu jakiteko?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	
Aplikazioa eta eraginkortasuna.	Sexu-jazarpen kasuetan, protokoloa behar bezala aplikatu da?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	
	Pertsonak babesteko eta laguntzeko mekanismoak aktibatu dira?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Eragin soziala.	Profesionalek protokoloa eraginkorra dela uste dute?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	
	Protokoloak segurtasuna eta errespetua sustatu du?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	
	Erabiltzaileak segurtasun handiagoz sentitzen dira?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Prozesuan	

- Jarraipena:

Protokoloaren erabilera eta eraginkortasuna aztertzeko, urteroko azterketa bat egingo da. Horrela, ikusi ahal izango da ea sexu-jazarpenaren kasuak gutxitu diren eta Tolosako eraikin edo zerbitzu publikoetan segurtasuna hobetu den.

Jarraipenerako tresna hau erabiliko da:

Epea.	Ekintza.	Oharrak.
Urtero.	Ebaluazio ofiziala: datuen bilketa eta txostena.	
6 hilabetaean behin.	Hobekuntzak edo egokitzapenak egitea, protokoloaren eraginkortasuna handitzeko.	
6 hilabetean behin.	Protokoloa zenbat aldiz aktibatu den jasotzea.	
Urtero.	Protokoloaren memoria egitea, kasu-kopurua eta hartu diren neurriak laburbilduz.	

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

10.7 Baimen informatua:

EREDU OROKORRA/MODELO GENERAL

DATU PERTSONALAK LAGATZEA. BAIMEN INFORMATUA

CESIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL. CONSENTIMIENTO INFORMADO

Izen-abizenak: Nombre-apellidos	
NAN- Pasaportea- Egoitza baimena-Beste identifikazio agiri bat DNI-Pasaporte-Permiso de residencia-Otro documento de identificación	

Legezko ordezkaria edo arduraduna- Representante legal o persona responsable de menor de 14 años *(osatu beharrezkoa bada bakarrik/ Completar solo si es necesario)*

Adingabearen izen-abizenak Nombre-apellidos de la persona menor de edad	
Adingabearen NAN- Pasaportea- Egoitza baimena-Beste identifikazio agiri bat DNI-Pasaporte-Permiso de residencia-Otro documento de identificación de la persona menor de edad	
Adingabearen legezko ordezkari edo arduradunaren izen-abizenak Nombre-apellidos del/la representante legal o persona responsable la persona menor de edad	
Adingabearen legezko ordezkari edo arduradunaren NAN- Pasaportea- Egoitza baimena-Beste identifikazio agiri bat	

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d183540091c80

DNI-Pasaporte-Permiso de residencia-Otro documento de identificación del/la representante legal o persona responsable la persona menor de edad	
Harreman mota: Tipo relación	

Idazki honen bidez, berariaz adierazten dut **----------honako hauek jakinarazi dizkidala:** **- Emandako datu pertsonalak BERDINTASUN SAILEKO ETA SEXU INDARKERIAREN AURREAN UDAL ZERBITZU ETA ERAIKIN PUBLIKOETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA izeneko dokumentuan sartuko dira. Dokumentu horren titularra Tolosako Udalarena da.** **Dokumentuaren helburua pertsonari arreta osoa eskaintzea da, berriro biktimizatzea saihestuz.** Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiten lagunduko du, eta, aldi berean, estatistikaetaikerketa-helburuetarako erabili ahal izango da. Era berean, eskubide hauek ditut:	**Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por.....** **de que:** **- Los datos personales proporcionados se incorporarán a un documento denominado PROTOCOLO DE ACTUACIÓN FRENTE A LA VIOLENCIA SEXUAL EN LOS SERVICIOS Y EDIFICIOS PUBLICOS MUNICIPALES PARA EL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD cuya titularidad es del Ayuntamiento de Tolosa.** **La finalidad del documento es ofrecer atención integral a la persona, evitando la revictimización.** Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación. Así mismo, tengo derecho: -A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial.

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

-Baimen hau osorik edo zati batean emateari uko egiteko eskubidea. -Era berean, ezezko horrek izan ditzakeen ondorioen berri emango didate. -Tolosako Udalean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzaket. Eta horren guztiaren arabera, askatasunez ematen dut baimena, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren arabera. Tolosan, 2025ko ……..ren …..(e)an **Sinadura**	-Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener. -A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Tolosa. Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y el Reglamento General Europeo de Protección de Datos. En Tolosa, a…… de …… del 2025 **Firma**
Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datu pertsonalak lagatzeko aukera ematen diet markatutako erakundeei: Udaleko Gizarte Zerbitzuak Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua (GLKZ) Tolosako Berdintasun Saila Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea	**Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:** **Servicios Sociales Municipales** **Servicio Foral de Urgencias Sociales de Guipuzkoa (SCFUS)** **Departamento de Igualdad de Tolosa** **Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea**

ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80

Osasuna (Osakidetza) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna (Ertzaintza) Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)	**Salud (Osakidetza)** **Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)** **Otros servicios (identificar expresamente)**

10.1 Esku-hartzearen prozedura bisualago.

Esku-hartzearen prozedura bisualago.docx

10.2 Andragoraren folletoa.

10.2 Andragoraren folletoa/ 10.2 folleto de Andragora.pdf

10.3 Infografia.

Sexu-indarkeriari aurre egiteko baliabideak.pdf

10.4 Dekalogoa.

10.4 Dekalogoa euskeraz

10.5 Komunikazio egokia.

10.5 Komunikazio egokia

10.6 Laburpen txostena eta ebaluazio eta jarraipen eredua egiteko fitxa.

10.6 Laburpen txostena

10.7 Baimen informatua.

10.6 Consentimiento informado_baimen informatua

EKS | CSV: ESKU4cc91fca-7c8d-4256-afe1-d18354091c80
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026IPLE0005-2026/05/28ko akta/2026/05/28ko akta ()

Digitalki sinatua:

Sara Berasategui Fuertes
Udal idazkaria
Data: 2026/06/03 14:38:24

Digitalki sinatua:

Angel Martinez de Rituerto Arregui
Alkatea
Data: 2026/06/03 16:50:39